

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GURASO BAKARREKO FAMILIENTZAKO UZTARTZE PROGRAMEN AZTERKETA

2010eko abendua

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES



## AURKIBIDEA

1. TXOSTENAREN AURKEZPENA, EGITURA ETA METODOLOGIA.....	4
2. EAE-KO GURASO BAKARREKO FAMILIEN EGOERAREN DESKRIBAPENA: EGOERA DEMOGRAFIKOA ETA ARAUDI ESPARRUA .....	7
2.1. EAEko guraso bakarreko familiei buruzko oinarrizko datu demografikoak .....	7
2.2. Pobrezia-egoerak EAEko guraso bakarreko familien artean.....	13
2.3. EAEko guraso bakarreko familiei buruzko arau-esparrua .....	15
2.3.1. Familia eta lana uztartzeko EAEko politiken errepaso laburra.....	16
2.3.2. Guraso bakarreko familiei laguntzeko neurri espezifikoak.....	22
3. GURASO BAKARREKO FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKAK EUROPAKO TESTUINGURUAN .....	30
3.1. Aktibazioaren aldeko apustu garbia Erresuma Batuen kasuan.....	31
3.1.1. Oinarrizko elementuak.....	31
3.1.2. Guraso bakarreko familientzako neurri espezifikoak familia guztientzat bideratutako neurri orokorrekin nahasita .....	32
3.1.3. Bestelako neurriak .....	34
3.2. Frantziaren kasua: laguntza ekonomikoak eta haurrak zaintzeko formulen aniztasuna.....	35
3.2.1. Familiei eta guraso bakarreko familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak .....	36
3.2.2. Haurrak zaintzeko zerbitzuak .....	37
3.2.3. Sistema zabal eta askotarikoa, baina ez behar adinakoa .....	39
3.3. Suediaren kasua: neurri espezifikoak kontuan hartzen ez dituen sistema unibertsala .....	40
3.4. Ondorio nagusiak.....	43
4. JARDUNBIDE EGOKIEN ADIERAZLEAK GURASO BAKARREKO FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMETARAKO .....	49
4.1. Ingurunearen azterketa eta premien ebaluazio globala .....	50
4.2. Sartzeko eta kanpoan uzteko behar bezala definitutako irizpideak .....	50
4.3. Erreferentziako esparru teorikoak.....	51
4.4. Laguntza pertsonalizatua .....	52
4.5. Eraitzen ebaluazioa.....	52
4.6. Erabiltzaileen premiekin bat datorren erreferentziazko profesionala.....	53
4.7. Ekipamendu eta azpiegitura nahikoak eta egokiak .....	53
4.8. Lan-baldintza egokiak.....	54
4.9. Integrazio komunitarioa eta baliabide-sarean sartzea.....	54
4.10. Familia erabiltzaileen eta programaren arteko harreman ezin hobeak .....	55
4.11. Programaren eraginkortasun ekonomikoa .....	56
5. EAE-KO GURASO BAKARREKO FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMAK ....	57
5.1. Sarrera eta metodologia.....	57
5.1.1. Egitura, edukiak eta alderdi metodologikoak .....	57
5.1.2. Aztertutako programen ezaugarri nagusiak .....	60
5.2. Esparru teorikoa eta programen helburuak .....	62
5.2.1. Helburu orokorrak.....	62
5.2.2. Esparru teorikoa .....	63
5.3. Artatutako biztanleria .....	64
5.3.1. Erabiltzaileak sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideak .....	64
5.3.2. Programen estaldura.....	67

5.4.	Erabiltzaileen arreta.....	70
5.4.1.	Kasuen harrera.....	70
5.4.2.	Programa hastea.....	72
5.4.3.	Programen baliabideak eta jarduerak.....	74
5.4.4.	Arretaren indibidualizazioa.....	77
5.4.5.	Erreferentziazko profesionala.....	78
5.4.6.	Familiek jasotzen duten Feedbacka.....	79
5.4.7.	Erabiltzaileen eta programaren arteko harremana.....	80
5.4.8.	Erabiltzaileen arteko harremana.....	81
5.4.9.	Koordinazioa beste zerbitzu batzuekin.....	81
5.5.	Giza baliabideak eta baliabide materialak.....	83
5.5.1.	Langileez hornitzea.....	83
5.5.2.	Plantilla hautatzea.....	84
5.5.3.	Lan-baldintzak eta eginkizunen ezaugarriak.....	85
5.5.4.	Langile boluntarioak.....	88
5.5.5.	Ekipamendua eta azpiegiturak.....	88
5.6.	Zerbitzuaren ebaluazioa eta eraginkortasun ekonomikoa.....	89
5.6.1.	Prozesuaren ebaluazioa.....	89
5.6.2.	Emaitzen ebaluazioa.....	90
5.6.3.	Erabiltzaileen gogobetetzea.....	91
5.6.4.	Profesionalen gogobetetzea.....	93
5.6.5.	Programen eraginkortasun ekonomikoa.....	93
6.	ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.....	98
	BIBLIOGRAFIA.....	104
	ERANSKINAK.....	108
1.	ERANSKINA: DATUAK ESKATZEKO TRESNAK.....	109
	- Guraso bakarreko familiei laguntzeko programa bakoitzari datuak eskatzea.....	110
	- Programen arduradunentzako elkarrizketaren gidoia.....	115
	- Programen langileentzako elkarrizketaren gidoia.....	118
	- Programen erabiltzaileentzako elkarrizketaren gidoia.....	119
2.	ERANSKINA: GURASO BAKARREKO FAMILIEN ARRETARAKO PROGRAMEN EZAUGARRIAK.....	120

## 1. TXOSTENAREN AURKEZPENA, EGITURA ETA METODOLOGIA

Ugalketa eta ezkontza-tasak jaitsi izanak eta azken urte hauetan dibortzio- eta bizikidetzatasa-igo izanak eragin dute familia mota desberdinak sortzea. Guraso bakarreko familien, lagun bakarreko etxekoen unitateen edo familia-nukleorik gabeko etxekoen unitateen kopuruak gora egin du, bi belaunaldi edo gehiagoko etxekoen unitateen kopuruak, aldiz, behera. Familia-egituraren izandako aldaketek gain, gizarte-babeseko –komunitarioa eta familia-arlokoa– sareak ahuldu izanak eta lan-merkatuak indarra galdu izanak eragin dute familia asko pobrezia- eta gizarte-bazterkeriako egoeretan egotea askotan, eta familia askok zailtasun garrantzitsuei aurre egin behar izatea beren premiei erantzuteko eta lan- eta lanbide-bizitza uztartzeko. Horixe da, hain zuzen ere, guraso bakarreko familien kasua. Familia mota hori gehienetan beren erantzukizunpean semeak edo alabak dituzten emakume alargunek, bananduek, dibortziatuek edo ezkongabeek osatzen dute; horretaz gain, guraso bakar bat izatearen ondorioz sortzen diren arazo espezifikoak izateko arrisku handia dute, eta arazo horiek askotan areagotu egiten dira baliabide ekonomiko gutxiago dituztelako eta laguntza-sarea ere mugatuagoa delako. Guraso bakarreko familiak, beraz, erronka bat dira gizarte-politiketarako, eta familia horien arazo espezifikoak gizarte garatuek aurre egin behar dieten *gizarte-arrisku* berrietako bat da (Eydoux eta Letabiler, 2009).

Kargura duten seme edo alaba bakoitzeko prestazio ekonomikoez eta lan- eta familia-bizitza uztartzeko neurri orokorrez gain, arazo ekonomikoak eta lana eta seme-alaben zaintza uztartzeko arazoak dituzten EAEko guraso bakarreko familiek seme-alaba horiek zaintzeko programa espezifiko batzuk eduki ditzakete. Testuinguru horretan, azterlan hau Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren enkargu bat da familia- eta lan-bizitza uztartzeko hiru programen funtzionamendua balioesteko eta programa horien eraginkortasuna egiaztatzeko. Programa horiek Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu ditu eta guraso bakarreko familientzat dira. Era berean, lan honen bitartez zehaztu nahi da zer formula eta zer orientabide praktiko izan daitezkeen eraginkorrenak familia mota honek familia- eta lan-arloko erantzukizunak uztartu ahal izateko.

Txosten honek honako helburu nagusi hauek ditu:

- guraso bakarreko familietara eta familia horietako adingabeak zaintzera bideratutako esku-hartze sozialeko programei dagokienez azken urte hauetan gure inguruneko herrialdeetan egindako esperientziak deskribatzea;
- programa mota hori garatzeko erreferentziak irizpide nagusiak biltzen dituen esparru teoriko bat proposatzea, programa horiek dituzten helburuen, edukien eta antolatzeke formulen ikuspegia oinarri hartuta;
- guraso bakarreko familiei laguntzeko EAEn eskaintzen diren hiru programa espezifikoek edukia deskribatzea;
- aztertutako laguntza-programa horiek zenbateraino betetzen dituzten proposatutako kalitate-irizpideak balioestea eta

guraso bakarreko familiei laguntzeari buruz jardunbide egokien gaineko hainbat gomendio proposatzea.

Azterketa hori egiteko, lehenik eta behin, SIIS Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko datu-base bibliografikoa eta beste datu-base batzuetan eta Interneten egindako bilaketa espezifikoak oinarri hartuta, Europako hiru herrialdeetako guraso bakarreko familiei laguntza emateko esperientziei buruzko informazioa bildu da. Zehazki, txosten honek Erresuma Batuan, Suedian eta Frantzian (kolektibo horri laguntzeko erreferentzia-esparrua eratzen duten edo era dezaketen herrialde gisa) izandako esperientzien azterketa du oinarri. Legeriaren azterketari eta datu-base estatistikoen berrikuspenei esker ere (EUSTAT, EIN, Etxekoen unitateei buruzko Inkesta, pobrezari eta gizarte-desberdintasunei buruzko Inkesta) familia horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duten errealitatea modu espezifikoan ezagutu ahal izan dugu.

Bigarren fasean, EAEn egindako programak deskribatzeko eta programa horien ezaugarriak balioesteko, programen memoriak eta Interneten eskuragarri dagoen informazioa berrikusi dira eta ikasteko hainbat bisita egin dira hiru programetako bakoitzera. Bisita horietan programaren jarduerari buruzko datu orokorrak bildu dira datuei buruzko oinarritzko fitxa bat betez eta hainbat elkarrizketa eginez. Ikertzaileek banako elkarrizketak egin dituzte programako arduradunekin, esku hartzeko hiru profesionalekin eta programa horietako bakoitza erabiltzen duten hiru familiarekin. 1. eranskinean datuak eskatzeko fitxak eta datuak biltzeko erabili diren elkarrizketa-gidoiak bildu dira.

Txosten honen egiturari dagokionez, sarrera moduko atal honetaz eta egoerari buruzko balioespen orokorra eta ondorioak eta egokitzat hartu diren gomendioak biltzen dituen azken kapituluaz gain, lan hau bi zatitan bereizten da. Lehenengo zatian, alde batetik, guraso bakarreko familiei laguntzeko programak zer testuingurutan biltzen diren azaltzen da. Azterlanaren xede den kolektiboa deskribatzeko, familia horiei buruzko datu demografikoak

eman dira eta EAEko guraso bakarreko familiei ematen zaien laguntza arautzen duen esparru juridikoa zehazten da. Horretaz gain, txosten honetan familiei laguntza emateko politikak eta erreferentziatzko hiru herrialdetan –Erresuma Batua, Frantzia eta Suedia– dituzten baliabideak zein diren deskribatzen dira. Azkenik, edukien lehenengo zati honetan jardunbide egokiaren adierazleei buruzko azterketa labur bat egiten da, txosten hau idatzi dutenen iritziz esku-hartzeko programa horietako lana bideratu behar duten, eta, hortaz, aztertutako hiru programaren funtzionamendua balioesterakoan erreferentzia gisa erabili diren adierazleei buruzkoa, hain zuzen ere.

Txostenaren bigarren zatian guraso bakarreko familiei laguntzeko Eusko Jaurlaritzak finantzatutako hiru programen deskribapena egiten da: AGLE Elkartearen (Arabako Gizarte Laneko Elkartea) guraso bakarreko familiei laguntza integrala emateko Lore Maitea Zerbitzua, ASFAMOGIren (Gipuzkoako guraso bakarreko Familien Elkartea) Uztartze Programaren Kanguras Zerbitzua, eta Clara Campoamor Elkartearen “Umezainak” Programa. Bildutako informazioa hedatzerakoan behar den isilpekotasun-maila edukitzeko, eta sarrerako kapitulu honetan aztertutako programa guztien izen zehatza aipatzen den arren, informazioari buruzko aurkezpen xehatua egiterakoan zentro bakoitza inisial baten bitartez –A, B edo C– aipatzen da bere izen espezifikoren bitartez aipatu ordez.

Azken kapituluan, aztertutako nazioarteko esperientziak eta aztertutako hiru programei dagokienez egindako balioespina kontuan hartuta, hainbat gomendio ematen dira guraso bakarreko familiei laguntzeko programak hobetzeko.

## 2. EAE-KO GURASO BAKARREKO FAMILIEN EGOERAREN DESKRIBAPENA: EGOERA DEMOGRAFIKOA ETA ARAUDI ESPARRUA

### 2.1. EAEko guraso bakarreko familiei buruzko oinarrizko datu demografikoak

Familia-bizitza asko aldatu da azken urte hauetan egiturari dagokionez ez ezik balioei, jarrerei eta eginkizunei dagokienez ere. Aldaketaren alderdiak era askotakoak izan dira eta eremu guztietan gertatu dira: alderdi demografikoan (ernalketak behera egin du); alderdi politikoan (ezkontzeko adina atzeratu egin da edo ezkontzarik ez dago eta dibortzioak gora egin du). alderdi ekonomikoan (emakumeak lan-merkatuan sartzea) eta alderdi sozialean (rol-aldaketa). Guraso bakarreko familiaren kontzeptua bera ere aldatu egin da denborarekin eta orain era askotako errealitateak biltzen ditu. Nahiz eta oinarri gisa hartu guraso bakarreko familiaren definizioa kargura seme-alaba adingabeak dituen guraso bakar batek (aita edo ama bakarrik) osatutako familia dela, guraso bakarra izatera iristeko bideak eta kausak, familia-osaera eta familiaburuaren nahiz familia hori osatzen dutenen egoerak era askotako egoerak daudela erakusten du.

Guraso bakarreko<sup>1</sup> familien bilakaerari dagokionez, eta uste orokorraren aurka, datuek ez dute erakusten mota horretako familia kopurua igo denik. 2001eko biztanleria-eroldaren datuen eta Eusko Jaurlaritzaren 2004. eta 2008. urteetako Etxekoen Unitateei buruzko Inkesten (EAEko 787.000 familiaren 4.880 etxekoen unitateetako lagun batean oinarrituak) arabera, guraso bakarreko familiak % 11,8 ziren 2011n; 2008an, aldiz, familia guztien % 9,6 bakarrik dira. Gainera, familia horietatik, erdiak baino gutxiagok mendeko seme-alabak dituzte.

1. taula. EAEko familien banaketa etxekoen unitate motaren arabera (%). 2001., 2004. eta 2008. urteak

	2001eko biztanleria-errola		Etxekoen unitateari buruzko inkesta, 2004		Etxekoen unitateari buruzko inkesta, 2008	
	Etxekoen unitateak	Biztanleak	Etxekoen unitateak	Biztanleak	Etxekoen unitateak	Biztanleak
Lagun bakarrekoak	20,3	7,3	15,5	5,5	17,7	6,7
Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	5,4	5,5	4,8	4,7	4,0	4,1
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrekoak	6,4	5,7	5,5	4,6	5,6	5,0
Mendeko seme-alabak dituzten bikoteak	32,0	44,9	34,1	46,6	30,4	43,2

<sup>1</sup> Guraso bakarreko familiei laguntzeko programen laguntza jasotzen duen biztanleria deskribatzeko, ondoren aurkeztuko diren datuetan honako bereizketa hau egin nahi izan da: alde batetik, mendeko seme-alabak edo 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak, eta bestetik, mendeko seme-alabarik ez duten edo 16 urtetik gorako seme-alabak dituzten familiak.

Mendeko seme-alabarik ez duten bikoteak	30,9	30,1	35,8	32,9	37,4	34,5
Bestelako etxekoen unitateak	6,9	7,4	4,2	5,5	4,9	6,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2001eko biztanleria-errola, EIN. 2004ko eta 2008ko Etxekoen unitateei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritzia.

Era berean, EINek 2006. eta 2008. urteetan Familia Aurrekontuei buruz egindako Inkestak ematen dituen datuen arabera, azken urte hauetan ez da igo ez guraso bakarrek familien ehunekoa ez kopurua.

**2. taula. EAEko familien banaketa etxekoen unitate motaren arabera (kopurua eta %). 2006. eta 2008. urteak**

	2006		2008	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Lagun bakarrek etxekoen unitateak	153.947	19,0	176.068	20,9
16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarrek	15.792	2,0	12.053	1,4
Ekonomikoki mendekoak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituzten guraso bakarrek	6.053	0,7	4.523	0,5
16 urtetik beherako seme-alabak dituen bikotea	157.210	19,4	168.646	20,0
Ekonomikoki mendekoak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituen bikotea	38.290	4,7	39.569	4,7
Mendeko seme-alabarik ez duen bikotea	175.791	21,7	200.242	23,8
Bestelako etxekoen unitateak	262.641	32,4	240.458	28,6
Guztira	809.724	100,0	841.558	100,0

Iturria: Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta, 2006. eta 2008. urteak, EIN

Guraso bakar bat duten familia multzo horretan beren kargura 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiak nagusitzen dira. EINen Inkesta horrek kontsumo-gastu motari eta gastu horien xedeari buruzko urteko datuak ez ezik etxekoen unitateetako bizi-baldintzei buruzko zenbait ezaugarri buruzkoak ere ematen dituenez, esan dezakegu EAEko etxekoen unitateen egituraren bilakaeraren ezaugarri diren bereizgarrietako bat honako hau dela: lagun bakarrek etxekoen unitate kopuruak eta mendeko seme-alabarik ez duten bikoteen kopuruak gora egin du, guraso bakarrek familietan duten garrantziaren igoeraren aurretik. Familia bakoitzeko erreferentziazko lagunaren adinari dagokionez, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten hamar familietatik zazpitan (bi gurasokoak nahiz guraso bakarrek) guraso batek 44 urte baino gutxiago ditu. Familia Aurrekontuei buruzko Inkestan azaltzen den beste datu interesgarri bat honako hau da: 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarrek familiek adin horretako seme-alabak dituzten bikoteak baino zertxobait gazteagoak dira. 16



urtetik beherako seme-alabak dituzten eta 35 urtetik beherako guraso bakarreko familiak direnen ehunekoa % 29,7 da; aitzitik, bikotean bizi direnen ehunekoa soilik % 16,1 da.

**3. taula. EAEko familien banaketa, etxeen unitate motaren eta etxeen unitatearen eusle nagusiaren adinaren arabera (%). 2008**

	< 35 urte	35-44 urte	45-64 urte	>65 urte	Guztira
Lagun bakarreko etxeen unitateak	13,6	13,1	28,2	45,1	100,0
16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	29,7	46,2	24,1	0,0	100,0
Ekonomikoki mendekoak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	0,0	15,3	84,7	0,0	100,0
16 urtetik beherako seme-alabak dituen bikotea	16,1	55,9	28,0	0,0	100,0
Ekonomikoki mendekoak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituen bikotea	0,0	8,6	88,0	3,5	100,0
Mendeko seme-alabarik ez duen bikotea	18,2	12,4	27,3	42,1	100,0
Bestelako etxeen unitateak	6,8	7,8	54,2	31,2	100,0
Guztira	12,8	20,3	38,4	28,5	100,0

Iturria: Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta, 2008, EIN

Eusle nagusiaren sexuari dagokionez, argi dago emakumeek garrantzi handia dutela lagun bakarreko familien arduradun gisa. Eusko Jaurlaritzaren Etxeoen Unitatei buruzko Inkestaren arabera, mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien % 84,6tan emakumea da etxeen unitatearen euslea. Hortaz, guztiz onargarria da guraso bakarreko familia emakume bat buru duen familiarekin identifikatzea.

**4. taula. Etxekoen unitate motaren banaketa erreferentziatzko pertsonaren emakumeen proportzioaren arabera (%). 2008**

	2008
Pertsona bakarrekoak	68,4
Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	84,6
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrekoak	78,4
Mendeko seme-alabak dituzten bikoteak	23,5
Mendeko seme-alabarik ez duten bikoteak	23,7
Bestelako etxekoen unitateak	47,5

Iurria: Etxekoen Unitatei buruzko Inkesta, 2008, Eusko Jaurlaritza.

Halaber, EINek egindako Etxekoen Unitateen Aurrekontuari buruzko Inkestak ematen duen informazioari esker ikus dezakegu guraso bakarreko familien kasuan, orokorrean, eta 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien kasuan, bereziki, emakume bat dela etxekoen unitatearen eusle nagusia (% 97,5). Nolanahi ere, taula horretan ikus dezakegu egoera guztiz kontrakoa dela bikoteei dagokienez, kasu horretan familiaburua gizona delako, baita EAEko hamar familiatik zazpitan ere.

**5. taula. EAEko familien banaketa, etxekoen unitate motaren eta etxekoen unitatearen eusle nagusiaren sexuaren arabera (%). 2008**

	Gizona	Emaku mea	Guztira
Lagun bakarreko etxekoen unitateak	39,5	60,5	100,0
16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	2,5	97,5	100,0
Ekonomikoki mendekoak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	13,8	86,2	100,0
16 urtetik beherako seme-alabak dituen bikotea	85,6	14,4	100,0
Ekonomikoki mendekoak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituen bikotea	84,1	15,9	100,0
Mendeko seme-alabarik ez duen bikotea	86,3	13,7	100,0
Bestelako etxekoen unitateak	69,4	30,6	100,0
Guztira	69,8	30,2	100,0

Iurria: Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta, 2008, EIN

Nazionalitatearen ikuspegitik, badirudi guraso bakarreko egoeren nagusitasuna handiagoa dela atzerritar jatorria dutenak buru diren familietan; nolahi ere, guraso bakarreko familia gehienetan Espainiako nazionalitatea dutenak nagusitzen dira. Familia Aurrekontuei buruz EINek egindako Inkestak ematen dituen datuen arabera, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien taldean familien ia % 14ek atzerritar jatorria du, adin

horretatik beherako seme-alabak dituzten bikoteez osatutako etxeen unitateen kasuan, aldiz, etxeen unitatearen eusle nagusia atzerritarra izatearen zifra % 6,6 besterik ez da.

**6. taula. EAEko familiak, etxeen unitate motaren eta etxeen unitatearen eusle nagusiaren sexuaren arabera (%). 2008**

	Espainiako	Atzerrikoa	Nazionalitate bikoitza	Guztira
Lagun bakarreko etxeen unitateak	97,4	2,6	0,0	100,0
16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	86,1	13,9	0,0	100,0
Ekonomikoki mendeak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	73,4	19,5	7,1	100,0
16 urtetik beherako seme-alabak dituen bikotea	92,7	6,6	0,6	100,0
Ekonomikoki mendeak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituen bikotea	98,8	1,2	0,0	100,0
Mendeko seme-alabarik ez duen bikotea	96,5	3,0	0,5	100,0
Bestelako etxeen unitateak	94,1	5,4	0,5	100,0
Guztira	95,1	4,5	0,4	100,0

Iturria: Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta, 2008, EIN

Gurasoen egoera zibilaren bilakaerari dagokionez, EINen Familia Aurrekontuei buruzko Inkestaren datuek erakusten du ezkongabe kopuruak gora egin duela guraso bakarreko familien kasuan. Zehazki, 2008an, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien % 31,5 ezkongabea da; 2006an, aldiz, zifra hori % 19,4 zen. 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietan ezkongabe kopuruak gora egin izana kontrastean dago alargun eta banandu kopurua jaitsi izanarekin.

**7. taula. EAEko familien banaketa, etxeen unitate motaren eta etxeen unitatearen eusle nagusiaren egoera zibilaren arabera. 2006. eta 2008. urteak**

	Ezkongabea		Ezkontua		Alarguna		Banandua		Dibortziatua	
	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008
Lagun bakarreko etxeen unitateak	45,1	50,5	0,9	0,7	40,8	40,2	9,3	3,1	4,0	5,5
16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	19,4	31,5	2,1	2,7	13,2	5,2	34,0	31,9	31,3	28,7
Ekonomikoki mendeak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	0,0	16,0	0,0	0,0	44,9	22,2	24,9	44,1	30,2	17,8
16 urtetik beherako seme-alabak dituen bikotea	6,1	5,6	93,1	94,3	0,0	0,0	0,8	0,0	0,0	0,1
Ekonomikoki mendeak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituen bikotea	0,0	0,7	100,0	98,0	0,0	0,0	0,0	1,3	0,0	0,0
Mendeko seme-alabarik ez duen bikotea	12,9	13,3	86,5	85,1	0,4	0,6	0,0	0,4	0,2	0,6
Bestelako etxeen unitateak	15,7	15,0	65,5	62,2	13,5	15,3	2,8	4,6	2,5	3,0
Guztira	18,0	19,7	63,0	61,7	12,8	13,1	3,7	2,8	2,4	2,7

Iturria: Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta, 2006. eta 2008. urteak, EIN

16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien % 11,7k ikasketa-maila txikia du (ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak); aitzitik, adin horretarako seme-alabak dituzten bikoteen kasuan % 7,8 dago egoera horretan. Horretaz gain, Familia Aurrekontuei buruz EINek egindako Inkestaren datuei esker (ondoren taulan azaltzen dira) esan dezakegu guraso bakar bat duten eta 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten hamar familiatik seik (% 60,1) bigarren mailako edo goragoko ikasketak dituela; aitzitik, adin horretako seme-alabak dituzten bikoteen kasuan % 76,1 dago egoera horretan.

**8. taula. EAEko familien banaketa, etxekoen unitate motaren eta etxekoen unitatearen eusle nagusiaren ikasketa-mailaren arabera. 2008 (%)**

	Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	Lehen hezkuntza, 1. zikloa	Bigarren hezkuntza, 2. zikloa	Goi-mailako Hezkuntza	Guztira
Lagun bakarreko etxekoen unitateak	32,7	22,5	12,0	32,9	100,0
16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	11,7	28,2	18,4	41,7	100,0
16 urtetik gorako mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	29,5	15,7	6,7	48,1	100,0
16 urtetik beherako seme-alabak dituen bikotea	7,8	16,1	22,9	53,2	100,0
Ekonomikoki mendekoak diren 16 urtetik gorako seme-alabak dituen bikotea	14,7	22,1	23,8	39,4	100,0
Mendeko seme-alabarik ez duen bikotea	22,9	24,2	13,0	39,9	100,0
Bestelako etxekoen unitateak	24,8	32,5	16,8	26,0	100,0
Guztira	21,9	24,5	16,4	37,2	100,0

Iturria: Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta, 2008, EIN

Familien lan-jardueraren ikuspegitik begiratuta, nabarmendu behar da guraso bakarreko familien okupazio-tasak bi gurasoko familienak bezain handiak direla –% 87,4 eta % 89,0, hurrenez hurren–, eta, hortaz, alderdi horretan ezin da alde esanguratsurik ikusi. Langabezia-tasari dagokionez, ordea, guraso bakarreko familietan eta lagun bakarreko familietan dago langabetuen proportzio handiena. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak 2008an egin zuen Etxekoen Unitatei buruzko Inkestan adierazten da langabeziari lotutako kolokatasun-egoerek –aldi baterako kontratua izatea, lan-kontraturik ez izatea edo Gizarte Segurantzaren ez kotizatzea– mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiei gainerako familiei baino gehiago eragiten dietela. Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien % 43,5ek mota horretako arazoak ditu; aitzitik, adin horretako seme-alabak dituzten bikoteen % 15ek du arazo mota hori.

**9. taula. EAEko familien banaketa, etxeen unitate motaren eta etxeen unitatearen eusle nagusiaren lan-jarduerearen arabera. 2008**

	Jarduera-tasa	Enplegu-tasa	Langabezia-tasa	Kolokatasuna	Luzaroko langabeak
Pertsona bakarrekoak	73,1	60,1	17,7	26,4	7,5
Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarrekoak	87,4	72,6	16,9	43,5	6,1
Mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarrekoak	65,3	61,5	6,0	25,7	2,4
Mendeko seme-alabak dituzten bikoteak	89,0	83,1	6,6	15,5	2,0
Mendeko seme-alabarik ez duten bikoteak	71,2	64,4	9,5	15,0	2,3
Bestelako etxeen unitateak	91,2	73,1	20,0	43,3	6,3

Iturria: Etxeen Unitatei buruzko Inkesta, 2008, Eusko Jaurlaritzak.

## 2.2. Pobrezia-egoerak EAEko guraso bakarreko familien artean

Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruz Eusko Jaurlaritzak egindako Inkestaren datuei esker ikus dezakegu hainbat aldaketa daudela pobreziaren eta beste kolokatasun mota batzuen eraginpean dagoen biztanleriaren ezaugarrietan. Inkesta horren arabera, pobreziari eta kolokatasunari dagokionez, arrisku-talde nagusietako bat guraso bakarreko familietako pertsonen taldea da. Nahiz eta talde horren kolokatasun-tasa (% 34,3) etxeen unitatean familia-talderik ez duten pertsonen dagokien tasa baino zertxobait beherago egon, kolektibo horren pobrezia errealaren tasa oso handia da oraindik, % 10eko mailak gainditzen baititu; aitzitik, pobrezia errealaren intzidentziaren zifra % 3,2 da gizarte osoan, Beraz, nabarmendu behar da pobrezia- eta kolokatasun-adierazle gehienek orokorrean behera egin duten arren (nolanahi ere, jaitsiera hori ez da familia horietara mugatzen), pobrezia errealaren egoeren intzidentzia EAEko guraso bakarreko familien artean guztizko biztanleriaren kasuan baino hiru aldiz handiagoa da. Pobrezia- eta kolokatasun-egoeran dagoen kolektiboaren osaera oinarri hartuta, datuek erakusten dute guraso bakarreko familien garrantzi espezifikoak zertxobait jaitsi dela azken urte hauetan, baina seme-alabak dituzten bikoteen eta bakarrik dauden pertsonen garrantziak gora egin duela.

**10. taula. Pobrezia- eta kolokatasun-egoeren intzidentziaren bilakaera familia-talde motaren arabera. 1996-2008. Familia-etxebizitzetan bizi direnak (%)**

Talde mota	Mantentzea				Metatzea				Pobrezia erreala				Ez erabateko ongizaterik			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Talderik ez	10,8	16,7	15,5	7,9	2,3	2,8	2,1	0,6	7,2	7,0	8,8	4,2	52,2	53,8	49,5	38,4
Seme-alabarik gabeko bikotea	8,7	6,1	5,1	3,3	1,5	1,7	1,1	0,3	2,9	2,9	2,4	1,5	41,4	27,2	28,7	19,3
Seme-alabak dituen bikotea	7,8	4,6	3,9	2,8	1,7	2,5	1,3	0,5	5,4	3,8	2,4	2,6	39,5	31,6	29,1	17,4
Guraso bakarrekoa	23,1	10,0	15,0	11,9	3,2	4,8	10,4	2,6	13,0	7,6	16,4	10,1	47,9	35,9	50,4	34,3
Beste mota batekoa	Daturik Ez	14,9	3,0	4,4	Daturik Ez	0,0	1,0	0,0	Daturik Ez	9,3	2,5	4,4	Daturik Ez	35,9	26,7	24,3
Guztira	9,3	6,3	6,1	4,1	1,8	2,6	2,2	0,7	5,8	4,4	4,2	3,2	41,2	33,1	32,7	21,1

Iturria: PGDI, 1996-2008

**11. taula. Pobrezia- eta kolokatasun-egoeren banaketaren bilakaera familia-talde motaren arabera. 1996-2008. Familia-etxebizitzetan bizi direnak (% bertikalak)**

Talde mota	Mantentzea				Metatzea				Pobrezia erreala				Ez erabateko ongizaterik			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Talderik ez	6,7	18,9	19,9	17,0	7,3	7,7	7,2	8,3	7,2	11,4	16,3	11,7	7,4	11,6	11,9	16,0
Seme-alabarik gabeko bikotea	11,7	12,7	13,7	14,1	10,2	8,7	8,0	7,1	6,3	8,7	9,1	8,1	12,7	10,8	14,2	16,0
Seme-alabak dituen bikotea	61,2	49,8	42,0	43,5	68,1	65,9	39,4	51,6	68,0	60,3	36,8	51,9	70,4	65,7	57,9	52,9
Guraso bakarrekoa	20,4	15,0	23,5	24,1	14,4	17,7	44,6	33,0	18,4	16,4	36,8	26,7	9,5	10,3	14,7	13,6
Beste mota batekoa	Daturik Ez	3,6	0,8	1,3	Daturik Ez	0,0	0,8	0,0	Daturik Ez	3,3	1,0	1,7	Daturik Ez	1,7	1,3	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: PGDI, 1996-2008

Dena den, pobrezia guraso bakarra izatearekin lotzen da, baina, baita, orokorrean, etxekoen unitatean adingabeak izatearekin ere. Hortaz, kolokatasun-arazoaren eragina % 17,6 da adingaberik gabeko etxekoen unitateetan bizi direnen kasuan; aitzitik, zifra hori % 27,4ra igotzen da gehienez 14 urte dituen seme edo alaba bat edo gehiago dituzten etxekoen unitateetan. Pobrezia errearen tasa ere handiagoa da adin horretako seme edo alaba bat edo gehiago dituzten etxekoen unitateetan (% 5,7), zifra hori, dena den, adingaberik gabeko etxekoen unitateen dagokien % 1,8ko zifra baino askoz ere handiagoa da. 2008ko datuen arabera, ordea, hobekuntza nabarmena izan da 2004ra bitarte ikusitakoarekin alderatzen badugu. Ildo horretatik, seme-alabak dituzten etxekoen unitateetan bizi den biztanleriaren kolokatasun-tasak % 40tik % 45era bitartekoak ziren 2004an, eta pobrezia errearen mailak % 7tik % 8ra bitartekoak zirenez esan dezakegu erabat kontrajarrita zeudela adingaberik gabeko etxekoen unitateetako tasen beheranzko joerarekin. 2004. urtetik 2008. urtera bitarteko aldirian,

ostera, jaitsiera nabarmena da adingabeak dituzten etxeen unitateetan, kolokatasun-tasa % 41,4tik % 27,6ra jaisten baita, eta pobrezia erreala % 7,1etik % 5,7ra.

**12. taula. Pobrezia- eta kolokatasun-egoeren intzidentziaren bilakaera etxeen unitatean dauden 14 urtetik beherako kopuruaren arabera. 1996-2008. Familia-etxebizitzetan bizi direnak (%)**

14 urtetik beherako kopurua	Mantenua				Metatzea				Pobrezia erreala				Ez erabateko ongizaterik			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Bat ere ez	7,8	5,4	5,1	3,1	1,4	1,8	1,3	0,3	4,6	3,1	3,0	1,8	39,4	30,2	29,0	17,6
Bat edo gehiago	12,6	8,5	8,4	6,0	2,8	4,5	4,4	1,3	8,3	7,5	7,1	5,7	44,9	40,3	41,4	27,6
Guztira	9,3	6,3	6,1	4,1	1,8	2,6	2,2	0,7	5,8	4,4	4,2	3,2	41,2	33,1	32,7	21,1

Iturria: PGDI, 1996-2008

**13. taula. Pobrezia- eta kolokatasun-egoeren banaketaren bilakaera etxeen unitatean dauden 14 urtetik beherako kopuruaren arabera. 1996-2008. Familia-etxebizitzetan bizi direnak (%)**

14 urtetik beherako kopurua	Mantenu-pobrezia				Metatze-pobrezia				Pobrezia erreala				Ez erabateko ongizaterik			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Bat ere ez	56,8	61,5	58,9	49,5	52,4	50,5	40,2	30,5	54,2	51,0	49,8	36,8	65,3	65,4	62,2	54,5
Bat edo gehiago	43,2	38,5	41,1	50,5	47,6	49,5	59,8	69,5	45,8	49,0	50,2	63,2	34,7	34,6	37,8	45,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: PGDI, 1996-2008

Pobrezia- eta kolokatasun-egoeren banaketari buruzko azterketaren (aurreko taula) arabera ikus dezakegu 14 urtetik beherako adingabeak dituzten etxeen unitateen garrantziak ere gora egin duela pobrezia-aren gizarte-arloan. Hain zuzen ere, pobrezia erreala egoeren kasuan, adingabeak dituzten familiak 1996an kolektiboaren 45,8 izatetik 2008an % 63,2 izatera igaro dira. Bilakaera hori bereziki deigarria da metatze-pobrezia-aren arazoei dagokienez, arazo horiek seme-alabak dituzten etxeen unitateetan ikusten baitira batez ere, zifrak % 50etik zertxobait beherago daudelako 2000. urtera arte, baina % 59,8ra iristen direlako 2004an eta % 69,5era 2008an. Mantenu-pobrezia-ari dagokionez, ikusten da seme-alabak dituzten etxeen unitateen presentziak ere gora egiteko joera duela, 2008an % 50eko maila gainditzen baitute lehenengo aldiz.

### 2.3. Lan- eta familia-erantzukizunak uztartzeari eta guraso bakarreko familiei buruzko arau-esparrua EAEn

EAEn ez dago guraso bakarreko familiei laguntza emateari buruzko arau espezifikorik; izan ere, uste izan da familia horiei, ahal bada, gainerako familiei laguntzeko erabiltzen diren gailu

eta politika berekin lagundu behar zaiela, eta, hala badagokio, eta, ahal den neurrian, gailu eta politika horiek guraso bakarreko familien berezitasunetara egokituz.

Atal honetan, lehenik eta behin, familia eta lana uztartzeko politikak gaur egun EAEEn arautzen dituzten arauak eta planak zehaztuko dira. Bigarrenik, azalduko da arau horiek zenbateraino proposatzen dituzten guraso bakarreko familientzako neurri espezifikoak, eta, gainera, guraso bakarreko familientzat bereziki egindako neurri edo egokitzapenak biltzen dituzten gainerako arauak deskribatzen dira.

### 2.3.1. Familia eta lana uztartzeko EAEko politiken errebaso laburra

Azken urte hauetan, familia- eta lan-bizitza uztartzeko EAEko politikak garatu dira honako laguntza-arau eta -plan hauek ezarri direlako<sup>2</sup>:

- **Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakunde arteko I. Plana, 2002-2005** aldian egon zen indarrean, eta familia babesteko sistema unibertsal, integral eta koordinatua lortzeko lehen urratsa izan zen EAEEn. Plan horren funtsezko helburuetako bat honako hau izan zen: lan- eta familia-bizitza uztartzeko politikei ekiteko premiari —gero eta premia larriagoari— aurre egitea. Hortaz, uztartze-neurriak arautu ziren, amatasunak edo aitatasunak enpleguan eragin ditzakeen eragozpenak, eta lan-arloko bizitzak familiaren bizitzarako ezar ditzakeen mugak ezabatze aldera; horrekin guztiarekin, bizitzaren bi eremu horiek uztartzearen alde egin eta azken batean, aukera-berdintasuna ezartzen da gizonentzat nahiz emakumeentzat enplegurako sarbidean eta egonkortasunean, baita seme-alabak zaintzen modu intentsiboan aritzeko aukeretan ere, haurrek gehien behar duten garaian. Laguntza horien bitartez, kasu batzuetan gurasoek denbora gehiago har dezakete seme-alabak zaintzeko, aukera horren ondorio ekonomikoak murriztuta; beste zenbait kasutan, seme-alaben zaintza eta arreta antolatzeko aukera izaten dute, gurasoen lanbide-karreraren garapenari trabarik jarri gabe (bereziki emakumearen kasuan).
- **329/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, lanerako laguntzak arautzen dituena.** Dekretu horrek laneratzeko zailtasunak dituzten langabeen kolektiboak kontratatzeko laguntzak arautzen ditu, arau horretan bertan enpresetako plantillen berriztapenak sustatzeari, lan-denbora banatzeari eta aparteko orduak kentzeari buruzko jardunak

<sup>2</sup> Nahiz eta elementu guztien garrantzia ez den berdina uztartze-politikak definitzerakoan, arauak eta planak hurrenkera kronologikoaren arabera ordenatzea erabaki da.



biltzen dira, baita lan- eta familia-bizitza uztartzeari buruzkoak ere. Hain justu, VI. kapituluan bilatzen da lan- eta familia-bizitza uztar dadin laguntzea eta adierazten da laguntza horien onuradunak honako hauek izatea:

- alde batetik, sei urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko eskubideak baliatzen dituzten besteren konturako emakume langileak, hitzaren zentzu zabalenean, baita adin horretatik gorako seme-alabak dituztenak ere, baldin eta % 33ko edo hortik gorako minusbalotasuna aitortu bazaie.
- bestalde, erakunde pribatuak, edozein forma juridiko izanik eta irabazi-asmoa eduki edo ez, baldin eta langabezian erregistratutako pertsonen lanaldi osoko edo partzialeko kontratua egiten badiete, arestian aipatutako eskubideak baliatu dituzten langileak ordeztzeko, betiere ordezeko langileek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako lantokietan jarduten badute.

Langileentzako laguntza ekonomiko horien bitartez egoera horietan gertatzen den soldata-murrizketa konpentsatu nahi da. Aitzitik, entitate pribatuentzako laguntzekin (gertakizun arruntengatik enpresak Gizarte Segurantzari egiten dion kotizazioaren % 100eraino haborokinak) langile horiek ordeztzeko egindako bitarteko kontratuetatik eratorritako kostu osagarria arindu nahi da. VI. kapituluan, bestalde, gizonen aldeko ekintza positiboko alderdi bat erantsi da; kasu horretan laguntza ekonomikoen zenbatekoa igo egin baita, familia-erantzukidetasuneko eredu berri bat sustatzeko. Gizonen eta emakumeen rol berezituaren aldaketa bultzatzera bideratutako neurria da, gizonak seme-alaben zaintzan inplikatzuz.

- **Familiei Laguntzeko Erakunde arteko II. Plana, 2006-2010.** Eusko Jaurlaritzak sustatu du eta Foru Aldundien eta Eudelen partaidetza aktiboarekin egin da, aurreko planaren jarraipen gisa. Plan honek ere familia mota desberdinen eta horien seme-alaben eskubideak sustatu eta babesten ditu, eta familia-erantzukizunak eta erantzukizun pertsonalak uztartzen lagundu nahi du. Jardun-eremu horretatik abiatuta, ahaleginak egiten dira familia guztiek eskuragarri dauden laguntza ekonomikoak, zerga-arloko neurriak eta zerbitzuak lortzeko eskubide bera izan dezaten. Helburua zera da, prestazio unibertsalak –gero eta zabalagoak– bermatzea, lana eta familia uztartzeko erantzun desberdinak emanez eta, familia mota guztietan eragina duten hutsuneak konpontze aldera, zerbitzuak koordinatzeari eta sortzeari ekinez.

Hain zuzen ere, lan- eta familia-bizitza uztartzeari buruzko 3. ildo estrategikoan, Plan honek I. Planaren jardun-ildoak indartzen du, eta zabaldu egiten du inoren laguntza behar duten ahaide helduak zaintzen laguntzeko. Besteak beste, Familiei Laguntzeko II. Planean honako hauentzako laguntza ekonomikoen programak adierazten dira: alde batetik, besteren kontura lan egiten duten eta seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileentzat; bestetik, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileentzat, eszedentzia-neurriak eta lanaldi-murrizketaren neurriak baliatu dituzten langileak ordeztzeko beste langile batzuk kontratatzen dituzten enpresentzat, bi urtetik beherako haurren zaintzaileak kontratatzeko eta norberaren kontura edo autonomo gisa jarduera ekonomikoren bat gauzatzen dutenentzat, eta azkenik, adingabeak eta inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eszedentziatarako eta lanaldi-murrizketatarako.

Zehazki, Familiei Laguntzeko Plan honek azaltzen du honako laguntza-programa hauek garatzea:

1. **Seme-alabak zaintzeagatik eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programak** honako laguntza hauek aurreikusten ditu:
  - a. Seme edo alaba bakoitza zaintzeagatik eszedentzian dagoen langilearentzako laguntza ekonomikoa; gehienez ere hiru urtez emango da, jaiotza, adopzioa edo harrera izateagatik dagokion lizentzia, baimena edo bestelako antzeko eskubideren bat amaitzen denetik kontatzen hasita.
  - b. Sei urtetik beherako semea edo alaba zaintzeagatik lanaldia heren bat eta erdia bitarte murriztu duen langilearentzako laguntza ekonomikoa.
2. **Inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntza ekonomikoen programak** kargura dituzten seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu dutenei aplikatzen zaizkien neurrien antzeko laguntza ekonomikoak aurreikusten ditu. Laguntza horiek baliatzeko aldia eta horietarako sarbidea dekretu bidez arautzen dira.
3. **Eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileen ordezkopak kontratatzeko enpresentzako laguntza-programa.** Seme-alabak edo inoren laguntza behar duten ahaide helduak zaintzeagatik eszedentziaren nahiz lanaldi-murrizketaren kasuetan, enpresak gertakizun arruntengatik Gizarte Segurantz

kotizatzen duenaren % 100erainoko diru-laguntza emango da, Administrazio Zentralak eman ez duen laguntzarekiko aldearen adinakoa. I. Planean ez bezala, kasu honetan langile autonomoei ere ematen zaizkie laguntza horiek.

4. **Bi urtetik beherako haurren zaintzaileak kontratatzeako laguntza-programa.**

Arreta emateko zerbitzu publiko bat baliatu beharrean, semea edo alaba zaintzeko lagun bat kontratatzen dutenei laguntza ekonomikoa ematea da kontua. Zaintzailea kontratatzeak eragindako gastuak estaltzera bideratuko da laguntza, eta honako baldintza hauek bete beharko dira onuradun izateko: besteren edo norberaren konturako lanbide-jarduera bat egitea edo lanerako ezintasunen bat egiaztatzea; ez erabiltzea diruz lagundutako haurtzaindegiko plazarik, gutxienez lanaldi-erdiz Gizarte Segurantzari alta emanda dagoen zaintzaile bat kontratatzea eta seme-alabak zaintzeko hartutako eszedentziagatik edo lanaldi-murrizketagatik laguntza ekonomikorik ez baliatzea.

5. **Norberaren konturako jarduera ekonomikoan dihardutenentzako edo autonomoentzako laguntza ekonomikoaren programa,** adingabeak edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eszedentziak hartu eta lanaldiak murrizten dituztenerako.

Eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langile autonomoentzako laguntzak besteren konturako langileentzat ezarritakoen berdinak izango dira, bai adingabeak zaintzeagatik, bai inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatik, betiere haien lanpostua betetzeko beste norbait kontratatu dutela frogatzen badute.

- **Agindua, 2006ko otsailaren 15ekoa, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurren arretarako zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzak ematea arautu eta horietarako deialdia egiten duena.**

Laguntzei buruzko Agindu honen bitartez, lan- eta familia-bizitza uztartzeari eta hiru urtetik beherako haurren hezkuntzan laguntzeari dagokionez Euskadiko administrazioek dituzten helburuak betetzen lagundu nahi da. Bereziki, errentarik txikienak dituzten eta orain arte egungo kuotei aurre egin ezin izanagatik lehen zikloko hezkuntza-zerbitzuetarako sarbidea mugatuta izan duten familia-unitateak hartuko dira kontuan. Agindu honek kontuan hartu ditu azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren ondoriozko jarduera guztiak (Dekretu horrek, gogoratu, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen ditu). Agindu honen bitartez, seme-alabak 0-3 urteko eskoletan matriculatzearen alde egin eta errenta baxuak dituzten familia-unitateentzako laguntzak finkatu nahi dira; horretarako, hainbat laguntza emango dira

ongizateko gizartea lortzeko asmoz, non alde ekonomikoak ez diren eragozpen izango haur-eskola bat lortzerakoan.

- **255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.** Arau honetan ez da modu espezifikoan aipatzen lana- eta familia-bizitza uztartzea, baina gure ustez egokia da atal honetan sartzea familiei laguntzeko esparruaren barruan garrantzitsua delako. Hain zuzen ere, Dekretu honetan seme-alabak dituzten familientzako laguntzak arautzen dira, Familiei Laguntzeko II. Planean azaltzen diren laguntzak, zehazki. Familia eta familia-egoera mota orori trataera bidezkoagoa emango zaiola bermatzeko, Dekretuak honako hauek arautzen ditu: alde batetik, kargura duten seme edo alaba bakoitzeko laguntzak. Laguntza horiek semearen edo alabaren adinaren eta ordenaren arabera arautzen dira, eta lehenengo semearen edo alabaren kasuan, familia-unitatearen errentaren arabera mailakatuta.

Laguntza horiek jaiotzari edo adopzioari loturik ageri dira aurreko Dekretuetan, eta urte anitzeko laguntzak ziren, lehen semeari edo alabari dagokiona izan ezik. Dekretu honetan adopzio aurreko familia-harrerako egoeran dauden adingabeei ere aplikatzen zaizkie laguntzak, eta ezarritako adin- eta ordena-baldintzak betetzen dituen seme edo alaba bat bizi den familiek urtero eskatu behar dituzte. Horretarako, laguntza eskatzen den urteko urtarrilaren 1eko familia-konposizioa hartuko da aintzat. Jaiotzaren, adopzioaren edo adopzio aurreko familia-harreraren ondorioz urte horretan familia-unitatearekin bat egiten duten seme edo alabei oso-osorik emango zaie dagokien laguntza.

Bigarrenik, erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntza sortu da, erditze edo adopzio anizkoitzetik eratorritako seme-alabentzako laguntza-sistema aldatzeko. Alde batetik, seme eta alaba guztientzat ezarritako laguntza orokorrak jaso ahal izango dituzte, eta, bestetik, jaiotzaren edo adopzioa gauzatzen den urterako laguntza puntuala ezartzen duen berriazko programa. Laguntza hori ematerakoan kontuan hartuko dira, batetik, erditze batean jaiotako edo aldi berean adoptatutako adingabe kopurua, eta, bestetik, familia-unitatearen errenta-maila. Hirugarrenik, Dekretu honen berritasun gisa, 2007ko urtarrilaren 1etik egiten diren nazioarteko adopzioetarako — bakun zein anizkoitzetarako— laguntza puntualen programa berria ezarri da. Aurreko Dekretuan nazioarteko adopzio anizkoitzek adopzio nazionalen eta erditze anizkoitzen tratu bera jasotzen zuten. Dekretu honetan nazioarteko adopzioetarako

berriazko zenbatekoak ezartzen dira, aldi berean adoptatutako adingabe kopuruaren eta familia-unitatearen errenta-mailaren arabera graduatuta.

- **13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa.** Familientzako arreta arautzen duen EAEko oinarrizko araua da eta familia mota ororentzat da, laguntza-neurrien esparru orokorra ezarriz. Legearen testuaren arabera, EAEko familia-politikaren helburua familia- eta lan-erantzukizunak uztar daitezen, emakumea lan-merkatuan sar dadin, emakumearen lanbide-karrera gara dadin eta kalteberatasun handiko egoeretan dauden familietan gizarte-bazterkeria prebenitzen laguntzea da. Helburu horrekin, Lege horrek familiei laguntzeko politika Euskal Autonomia Erkidegoan bideratzen eta eratzten duten esparru juridikoa, ildoak eta neurriak ezartzen ditu. Helburu horrekin, multzo koherente eta bakarrean biltzen dira euskal administrazio publikoek autonomia-eremuan dagoeneko abiarazi eta araututako eskubide, onura, zerbitzu eta prestazio ezberdin guztiak, eta egungo laguntzen jarraitutasuna aitortzen eta bermatzen da, baita laguntza horiek pixkanaka-pixkanaka handitzea ere.

Horretaz gain, 13/2008 Legeak familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak, familia- eta lanbide-bizitza uztartzeko neurriak eta administrazio-jardunaren zenbait eremutan familiei laguntzeko neurri sektorialak arautzen ditu. Era berean, administrazio-jardunaren zenbait eremutan familiei laguntzeko neurri sektorialak arautzen dira; esate baterako zerga-arloko neurriak eta etxebizitzaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen eremuetan garatutakoak. Hezkuntzaren eremuan, Legeak 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako haur-eskolak finka daitezen sustatzen du, baita arreta osagarriko neurriak har daitezen ere. Azken neurri horiek curriculumetik kanpokoak dira, aurretik ezarritako eskola-ordutegiari eta -egutegiari erantsi beharrekoak; horregatik, gizonen eta emakumeen bizitza pertsonala, familia- eta lan-bizitza uztartzen lagundu nahi da. Halaber, Legeak bermatzen du hezkuntza-etapa guztietan eskola-jangelen zerbitzu osoa egongo dela, eskariaren arabera.

- **177/2010 Dekretua, uztailaren 7koa, familia- eta lan-bizitza uztartzeko neurriak arautzen dituena.** Dekretu honek beren familia- eta lan-bizitza uztartzeko diru-sarrerak txikiagotuta ikusten dituztenentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak hobetu eta handitu egiten ditu, aurreko 118/2007 Dekretuan lehendik zeuden jardun-ildoei eutsiz. Hainbat helburu lortzen lagundu nahi da, hala nola emakumea lan-merkatuan sartzea eta emakumearen lanbide-karrera garatzea, emakumeen eta gizonen

erantzukidetasuna sustatzea familia-eremuan –seme-alaben zaintzan eta heziketan– eta Familiei Laguntzeko II. Planean adierazten diren familia- eta lan-erantzukizunak uztartzea.

Arau horrek seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako, mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordeztzen dituzten enpresentzako laguntzak arautzen ditu, baita seme-alabak eta mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murrizten duten langileak ordezteko laguntzak ere, eta, azkenik, seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak arautzen ditu. Dekretu hori garatzeko, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko ekainaren 30eko Aginduak Dekretu horretan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen ditu.

### *2.3.2. Guraso bakarreko familiei laguntzeko neurri espezifikokoak*

Arestian adierazi denez, Euskadiko erakundeen ustez ez da beharrezkoa guraso bakarreko familien egoerari heltzera bideratutako arau-esparru espezifikorik ezartzea. Nolanahi ere, erabaki dute neurri osagarri espezifikokoak ezartzea, bai aurreko epigrafean aipatutako arauetan, bai beste batzuetan ere, familia mota horren ezaugarriak eta premia espezifikokoak kontuan hartzeko.

Jarraian, familia horientzako tratamendu desberdina edo berezia adierazten duten arauak eta horien edukia deskribatuko da ordena kronologikoan.

- **199/2002 Dekretua, uztailaren 30ekoa, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak Laneratzeko AUZOLAN Programa arautzen duena, eta 166/2004 Dekretua, abuztuaren 31koa, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak Laneratzeko Auzolan Programa arautzen duen Dekretua aldatzen duena.** 199/2002 Dekretuaren helburu nagusia honako hau da: baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen –Oinarrizko Errentarako eskubidea duten titularrak, Oinarrizko Errentarako eskubidea duen titularraren bizikidetzaren unitateko kideak eta baztertuta geratzeko arriskuan dagoen edozein pertsona, baldin eta pertsona horrekin Gizarteratzeko

Hitzarmena sinatu bada– gizarte-onurako enplegurako aukera bat emateko Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren bitartez, ematen dituen laguntzak arautzea. Enplegu-aukera hori prestakuntza-prozesua lan-praktikarekin nahasita lortzen da, aldi baterako eta denbora partzialeko lan-kontratuen bitartez. Dekretu horretan, onuradunak hautatzeko lehentasunezko irizpideen artean guraso bakarreko familiako kide izatea sartzen da.

- **329/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, enplegurako laguntzak arautzen dituen Dekretua, eta 239/2005 Dekretua, irailaren 13koa, enplegurako laguntzak arautzen dituen Dekretua** aldatzen duena. Arau horiek enplegu-politika aktiboen tresna gisa adierazten dira eta laneratzeko zailtasun espezifikoak dituzten langabeen kolektiboak kontratatze laguntzak arautzen dituzte. Hain justu, kontratazioarako laguntzak sustatzen dira, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboetako pertsonak laneratzeko, eta kolektibo horien artean guraso bakarreko familiak aipatzen dira esanbidez. Dekretu horien bitartez plantillak berritzeko laguntzak ere arautzen dira, baita lan-denbora banatzeko laguntzak, enplegu edo prestakuntzako tokiko eremuko proiektuetarako laguntzak eta lan- eta familia-bizitza uztartzen lagundu nahi duten laguntzak ere.
- **Familiei Laguntzeko Erakunde arteko II. Plana, 2006-2010.** Plan horrek familia ugariantzat eta guraso bakarreko familientzat konpentsazioko neurriak hartzea bultzatzen du, haien ezaugarri bereziei eta premia-mailari erreparatuta. Etxebizitzari dagokionez, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan nahitaezko erreserba bat ezarri da adingabeko seme-alabak kargura dituzten guraso bakarreko familia-unitateentzat. Zerga-arloko kenkarietara dagokionez, proposatzen du Foru Aldundiek hainbat zerga-kenkari aplikatu ahal izango dituztela, hala nola guraso bakarreko familien kasuan, ohiko etxebizitza erostegatikoko kuota-kenkari gehigarria. Horretaz gain, udal-tasetako eta -zergetako salbuespenei eta hobariei dagokionez, adierazten da tokiko administrazioek salbuespen- eta hobari-erregimen bat ezarri ahal izango dutela familia ugariantzat, guraso bakarreko familientzat eta oinarrizko errentaren onuradun diren familientzat, oinarrizko zerbitzu publikoetara (energia-hornidura, ura, estolderia, zabor-bilketa) eta hiritar eta landatar ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkion tasa eta prezioetan.
- **13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa.** Lege horretan azaltzen da kontuan eduki behar dela kalteberatasun bereziko egoeran dauden familia batzuei

eragiten dien problematika, hala nola guraso bakarreko familiei eragiten diena. Hain zuzen ere, Lege horren III. kapituluaren (familiei laguntzeko zerbitzuei buruzkoa) 18. artikuluan familiei etxebizitzaren eta lurzorua eremuan laguntzeko neurri espezifikoak jasotzen dira, eta ezartzen da, oro har, Eusko Jaurlaritzak, etxebizitza-politikaren esparruan, tratamendu berezia emango diela adingabeko seme-alabak edo mendetasun-egoeran dauden pertsonak kargura dituzten familiei, baita familia ugarietara eta kalteberatasun bereziko egoeran dauden familiei ere, “hala nola guraso bakarrekoei”, betiere familia horiek etxebizitza lortzeko aukera erraztuko duten kupoak ezartzeari dagokionez.

Horretaz gain, Lege horren 22. artikuluan laneratzeko eremuan familiei laguntzeko dauden neurri espezifikoak arautzen dira, eta ezartzen da “zuzeneko familia-kargak dituzten eta oinarrizko errentaren titularrak direnek, guraso bakarreko familiako kideek eta kalteberatasun bereziko egoeretan dauden familia ugarietako kideek lehentasuna izango dutela gizarteratze- eta laneratzeko-programetan sartzeko”.

Azkenik, Lege horren IV. kapituluaren (familiei laguntzeko zerga-neurriak) 24. artikuluan zerga-neurrian homogeneousazioa ezartzen da eta adierazten da Eusko Jaurlaritzak sustatuko duela lurralde historikoetako organo eskudunen aurrean, zergei buruzko beren foru-arauetan, Lege honetan aipatzen diren familia moten aldeko zerga-neurriak har ditzaten. Hain justu, Legearen testuan honako hau ezartzen da: “persona fisikoen errentaren gaineko zergan zehazturik datozen zerga-neurrietan, ahal dela, familia ugarien egoera beren bereziki hartuko da kontuan, beste familiek baino gastu handiagoa baitute, eta bereziki ahul dauden familia-moten egoera ere halaxe hartuko da, esate baterako, guraso bakarrekoena, etxean indarkeria jasan dutenena edo terrorismoa jasan dutenena”.

- **18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.** 18/2008 Legearen 20.1.d) artikuluan (Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoa finkatzen duena) subsidio ekonomiko osagarri bat ezartzen da, guraso bakarreko bizikidetzak-unitateentzat izango dena, eta subsidio horren zenbatekoa erregelamendu bidez finkatuko da. Esparru horretan, honako hauek hartzen dira guraso bakarreko unitateentzat: amak edo aitak osatutakoak, beren kargura seme edo alaba bat edo gehiago dituztenak eta eskabidea aurkeztzen denean ezkontza-harremanik edo antzekorik ez dutenak. Aurreikuspen hori diru-sarrerak bermatzeko bi errenta motei aplikatzen zaie: alde batetik, 20. artikuluan 1d idatz-zatian azaltzen den



gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentari eta, bestetik, artikuluko bereko 2 c) idatz-zatian azaltzen den laneko errenten errenta osagarriari. Lege hori garatzeko, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 13. artikuluan subsidio osagarriaren zenbatekoa arautzen da, eta urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 6,4tan ezartzen da. Guraso bakarreko unitatearen definizioari dagokionez, Dekretu horretan ezartzen da ezkontza-harremanik edo antzeko harremanik ez izateko eskakizuna eskabidea aurkezten denean aplikatu beharko dela, baita eskabidea aurkeztu ondoren ere (hau da, egoera horrek iraun egin beharko du osagarria baliatzen jarraitzeko prestazio nagusiak irauten duen bitartean).

- **Agindua, 2010eko ekainaren 23koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, honako beka hauetarako deialdia egiten duena: orokorrak, eguneroko garraiorakoak eta desgaitasunen bat duten ikasleentzako garraiorakoak, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketak batzuk egiteko 2010-2011 ikasturtean.** Agindu horren 13. artikuluan (errentaren kenkariari buruzkoa) azaltzen da ehuneko hogeiko kenkaria aplikatuko dela eskatzailea guraso bakarreko familia-unitateetako semea edo alaba bada, betiere diru-sarreraren iturri bakarra besteren konturako lana eta, hala badagokio, sorrarazitako pentsioak badira.
- **177/2010 Dekretua, uztailaren 7koa, familia- eta lan-bizitza uztartzeko neurriak arautzen dituena.** Dekretu horren II. Kapituluan (seme-alabak zaintzeko laneko eszedentzia-egoeran edo lanaldi-murrizketako egoeran dauden langileentzako laguntzak arautzen dira) Dekretu horrek guraso bakarreko familiak hartzen ditu kontuan bereziki. Lanaldi-murrizketari dagokionez, guraso bakarreko familien kasuan (eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko baimena seme edo alaba hori zaintzeko eskatu da eta seme edo alaba horrek osatzen ditu familia horiek; horretaz gain, aitak edo amak gaur egun ez du ezkontza-harremanik edo antzeko harremanik eta ez du zaintza eta babespe partekaturik) ezartzen denez, Dekretu honetan ezarritako semearen edo alabaren adin-mugaren barnean baliatzen den lan-eszedentziaren edo lanaldi-murrizketaren aldi osoa diruz laguntzeko modukoa izango da.

Laburbilduz, ondorengo taulan EAEko guraso bakarreko familiei laguntzeko lege-esparrua arautzen duten arau nagusiak biltzen dira.

FAMILIA ETA LAN BIZITZA UZTARTZEKO EAE-KO LEGE ESPARRUA	
- 329/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, lanerako laguntzak arautzen dituen.	- Laneratzeko arazoak dituzten langabeen kolektiboak kontratatzeko laguntzak arautzen ditu - Enpresetako plantillen berriztapenak sustatzeari, lan-denbora banatzeari eta aparteko orduak kentzeari buruzko jardunak biltzen ditu, baita lan- eta familia-bizitza uztartzeari buruzkoak ere.
- Familiei laguntzeko Erakunde arteko II. Plana (2006-2010), Eusko Jaurlaritzarena.	- Familia mota guztien eta haien seme-alaben eskubideak sustatzen eta babesten ditu. - Plan horren helburu nagusia da, hain zuzen ere, familia babesteko eta laguntzeko sistema osoa eratzea, prestazio unibertsalak –gero eta zabalagoak– bermatuz, lana eta familia uztartzeko erantzun desberdinak emanez eta, familia mota guztietan eragina duten hutsuneak konpontze aldera, zerbitzuak koordinatzeari eta sortzeari ekinez.
- Agindua, 2006ko otsailaren 15ekoa, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurren arretarako zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzak ematea arautu eta horietarako deialdia egiten duena.	- Neurri honen asmoa Eusko Jaurlaritzak lan- eta familia-bizitza uztartzeko eta hiru urtetik beherako haurren hezkuntzan laguntzeko dituen helburuak betetzen laguntzea da. Bereziki, errentarik txikiak dituzten eta orain arte egungo kuotei aurre egin ezin izanagatik lehen zikloko hezkuntza-zerbitzuetarako sarbidea mugatuta izan duten familia-unitateak hartuko dira kontuan.
- 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen.	- Familia eta familia-egoera mota orori trataera bidezkoago bat eman nahi dio. - Kargura duten seme edo alaba bakoitzeko ematen diren laguntzak, erditzeagatik edo adopzio nazional anizkoitz bakoitzeko laguntzak arautzen ditu, eta berritasun gisa, nazioarteko adopzioetarako (sinpleak edo anizkoitzak) laguntza puntualen programa berri bat sortu du.
- 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa (EHAA).	- Laguntzeko arau orokorrak ezartzen ditu. - Familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak arautzen ditu <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kargura seme-alabak dituzten familientzat</li> <li>▪ 0-2 urteko haurren zaintzaileak kontratatzeko laguntzak</li> <li>▪ Hiru urtetik beherako haurrak zaintzeko zentroetako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak</li> </ul> - Familia- eta lanbide-bizitza uztartzeko neurriak arautzen ditu - Familiei laguntzeko neurri sektorialak arautzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zerga-neurriak</li> <li>▪ Etxebizitza-neurriak</li> <li>▪ Hezkuntza-neurriak</li> <li>▪ Neurriak Gizarte Zerbitzuen eremuan</li> </ul>
- 177/2010 Dekretua, uztailaren 7koa, familia- eta lan-bizitza uztartzeko neurriak arautzen dituen.	- Familia- eta lan-bizitza uztartzeagatik diru-sarrerak murriztuta dituztenentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak hobetu eta handitzen dira, 118/2007 aurreko dekretuan lehendik zeuden jardun-ildoei eutsiz. - Honako helburu hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Emakumea lan-arloko bizitzan sartu eta lanbide-karrera garatzeko erraztasunak ematea.</li> <li>▪ Emakumeen eta gizonen erantzukidetasuna sustatzea familia-eremuan –seme-alaben zaintzan eta heziketan–</li> <li>▪ Familiei Laguntzeko II. Planean adierazten diren familia- eta lan-erantzukizunak uztartzeko erraztasunak ematea</li> </ul>

## GURASO BAKARREKO FAMILIEI BURUZKO ERREFERENTZIA ESPEZIFIKOA EGITEN DUTEN LEGEZKO ARAUAK EAE-N

<ul style="list-style-type: none"> <li>- 199/2002 Dekretua, uztailaren 30koa, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko AUZOLAN Programa arautzen duena.</li> <li>- 166/2004 Dekretua, abuztuaren 31koa, 199/2002 Dekretua aldatzen duena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- AUZOLAN Programa antolatzen da, bazterturik dauden edo baztertzeko arriskuan daudenak Laneratzeko.</li> <li>- baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzako programa –Oinarrizko Errentarako eskubidea duten titularrak, Oinarrizko Errentarako eskubidea duen titularraren bizikidetz-unitateko kideak eta baztertuta geratzeko arriskuan dagoen edozein pertsona, baldin eta pertsona horrek Gizarteratzeko Hitzarmena sinatu bada– gizarte-onurako enplegurako aukera bat ematen duena, prestakuntza-prozesua lan-praktikarekin nahasita lortzen dena, aldi baterako eta denbora partzialeko lan-kontratuen bitartez.</li> <li>- Onuradunak hautatzeko lehentasunezko irizpideen artean guraso bakarrek familiako kide izatea sartzen da.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 329/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, lanerako laguntzak arautzen dituena.</li> <li>- 239/2005 Dekretua, irailaren 13koa, lanerako laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena (EHAA).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enplegu-politika aktiboen tresna gisa proposatzen dira.</li> <li>- Gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten langabeen kolektiboak (guraso bakarrek familiak, adibidez) kontratatzea sustatzen du.</li> <li>- Laguntza ekonomikoak arautzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Plantillak berritzeko</li> <li>▪ Lan-denborak banatzeko</li> <li>▪ Tokiko enplegu/prestakuntzako proiektuetarako</li> <li>▪ Lan- eta familia-bizitza uztartzen laguntzeko.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiei laguntzeko Erakunde arteko II. Plana (2006-2010), Eusko Jaurlaritzarena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familia ugariantzat eta guraso bakarrek familientzat konpentsazioko neurriak hartzea bultzatzen da, haien ezaugarri bereziei eta premia-mailari erreparatuta.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena (EHAA).</li> <li>- Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuko akatsak zuzentzea (EHAA).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familia-unitate mota orori lagundu nahi dio, edozein diskriminazio mota saihesteko ahalegina eginez.</li> <li>- Laguntza ekonomikoak arautzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kargura dituzten seme-alabengatik, eta semearen adinaren eta ordenaren nahiz familia-errentaren arabera aldatu egiten dira.</li> <li>▪ Erditze edo adopzio anizkoitzarengatik.</li> <li>▪ Nazioarteko adopzioengatik.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa (EHAA).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lege horretan azaltzen da kontuan eduki behar dela kalteberatasun bereziko egoeran dauden familia batzuei eragiten dien problematika, hala nola guraso bakarrek familiei eragiten diena.</li> <li>- Familiei laguntzeko neurri espezifikoak proposatzen ditu, etxebizitzaren eta lurzorua alorrean. Guraso bakarrek familiei tratamendu berezia eman behar zaiela adierazten du, familia horiek etxebizitza lor dezaten erraztuko duten kupoak ezartzeari dagokionez.</li> <li>- Guraso bakarrek familiei laguntzeko zerga-neurriak adierazten ditu</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Guraso bakarrek bizikidetz-unitateentzako subsidio ekonomiko osagarria ezartzen du, eta subsidio horren zenbatekoa erregelamendu bidez finkatuko da.</li> </ul>

<p>Bermatzekoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Subsidio osagarriaren zenbatekoa arautzen du, eta ezartzen du urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 6,4 izango dela.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2010eko ekainaren 23ko Agindua, beketarako deialdia egiten duena: orokorrak, eguneroko garraiorakoak eta desgaitasunen bat duten ikasleentzako garraiorakoak, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketak batzuk egiteko 2010-2011 ikasturtean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ehuneko hogeiko kenkaria adierazten du eskatzailea guraso bakarreko familia-unitateetako semea edo alaba bada, betiere diru-sarreraren iturri bakarra besteren konturako lana bada eta, hala badagokio, sorrarazitako pentsioak badira.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 177/2010 Dekretua, uztailaren 7koa, familia- eta lan-bizitza uztartzeko neurriak arautzen dituena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Seme-alabak zaintzeko laneko eszedentzia-egoeran edo lanaldi-murrizketako egoeran dauden langileentzako laguntzak arautzen ditu. Dekretu horrek guraso bakarreko familiak hartzen ditu kontuan bereziki.</li> </ul>

### 3. GURASO BAKARREKO FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKAK EUROPAKO TESTUINGURUAN

Gure inguruneko herrialde gehienetan familiei, eta horien artetik, guraso bakarreko familiei laguntzeko hainbat politika garatu dira azken urte hauetan. Ondorengo orrialdeetan, guraso bakarreko familiei laguntzeko gure inguruneko hiru herrialdetan (Erresuma Batua, Frantzia eta Suedia) dagoen eredia azalduko dugu labur: Hiru herrialde horiek aukeratu dira gizarte-politiken eremuan esku hartzeko hiru eredu desberdin aurkezten dituztelako (Europako iparraldeko eredia edo eredu sozialdemokrata, Suediaren kasuan; eredu kontinental edo korporatiboa, Frantziaren kasuan; eta eredu liberala edo anglosaxoniarra, Erresuma Batuaren kasuan).

Hiru herrialde horietako bakoitzari dagokionez, familiei laguntzeko politika generikoak –guraso bakarreko familiek laguntza horiek balia ditzaketen neurrian– ez ezik guraso bakarreko familiei bereziki bideratutako politikak ere deskribatzen dira. Ildo horretan, laguntza ekonomikoko politikak eta lana uztartzeko politikak ez ezik haurrak zaintzarekin lotutako ekimenak ere zehazten dira, guraso bakarreko familiei laguntzen dieten neurrian gure ustez aipagarriak direlako eta txosten honen bigarren zatian aztertu diren haurrak zaintzeko programekin lotuta daudelako.

#### 3.1. Aktibazioaren aldeko apustu garbia Erresuma Batuaren kasuan

##### 3.1.1. Oinarrizko elementuak

Guraso bakarreko familien ardura dutenenen laneratzea<sup>3</sup> Britainia Handiko Gobernuaren lehentasunezko ekintza-ardatzetako bat izan da azken urte hauetan gizarte-politiken eremuan. Horretarako, guraso bakarreko familietara bereziki bideratutako lan-aktibazioko estrategia generikoaren esparruan, hainbat neurri aplikatu eta/edo indartu dira, hala nola laguntza ekonomikoko neurriak eta laguntza indibidualeko eta haurrak zaintzeko eskaintza handitzeko neurriak. Labur esanda, guraso bakarreko familiei laguntzeko Britainia Handiko –eta bereziki, Ingalaterrako– politika honako ardatz hauetan oinarritzen da:

---

<sup>3</sup> Kolektibo horri erreferentzia egiteko Erresuma Batuan eta nazioarteko literaturan gehien erabiltzen den terminoa *lone mothers* edo ama bakarrik da, eta, beraz, termino hori bera erabiliko dugu ondorengo orrialdeetan.

- Alde batetik, Ongizateko Estatu selektiboan, ez-unibertsalean inskribatzen da, eta batez ere diru-sarrera txikiak dituzten pertsonak hartzen ditu kontuan, eta azken urte hauetan prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenen lan-aktibazioa lortzera bideratu da argi eta garbi. Beste herrialde batzuk ez bezala, lana uztartzeko politikak batez ere honengatik justifikatzen dira: batetik, politika horiek pertsona batzuk gizarteratzeko edo laneratzeko tresna gisa duten gaitasunagatik; izan ere, pertsona horiek, bestela, prestazio ekonomikoak jasoko bailituzkete; bigarrenik, lana uztartzeko ama bakarrentzako politikak justifikatzen dira, halaber, pobrezia-tasak eta, bereziki, haur-pobrezia-ko tasak murrizteko gaitasuna dutelako.
- Guraso bakarreko familiei bideratuta dauden haurrak zaintzeko politikak estrategia zabalagoetan biltzen dira, haurren zaintza hobetzeko estrategia integraletan, eta estrategia horietan prestazio ekonomikoek, zerga-arinketek eta enplegu-zerbitzuetatik ematen den laguntza pertsonalizatuak funtsezko zeregina dute.
- Haurrak zaintzeko zerbitzuak –familia- eta lan-erantzukizunak uztartzea ahalbidetuko dutenak– emateari dagokionez, bereziki, Erresuma Batuan jarraitu den estrategia bikoitza izan da: alde batetik, haurrak zaintzeko zerbitzuak ordaintzeko laguntza ekonomikoak ematea izan dute helburu, eta bestetik, eskaintza handitzea, bai kalitatearen ikuspegitik, bai haurrak zaintzeko plazen nahiz haurrak zaintzeko gaur egun dauden formulen aniztasunaren ikuspegitik. Nolanahi ere, eskaintza ez da igo guraso bakarreko familiei laguntzeko formula bereziak sortuz, baizik eta haurrak zaintzeko aurretik zeuden formulak bultzatuz, eta formula horiek guraso bakarreko familietara nahiz bi gurasoko familietara bideratu dira. Bestalde, esan behar da haurrak zaintzeko plazen eskaintza, diruz lagunduta badago ere, batez ere pribatua dela, baina *Office for Standards in Education (OFSTED)* izenekoak ezarritako baldintzak hartzen dituela kontuan. Eskaintza pribatu horrek irabazi nahia izan dezake edo ez, laguntza motaren arabera, eta batzuetan udalaren titulartasuneko zerbitzuekin batera ematen da.
- Nolanahi ere, eta Kooperazio eta Hazkunde Ekonomikorako Erakundearen (KHEE) datuen arabera, Erresuma Batuak gastu publiko gutxi ematen du haurren zaintzarako. Ildo horretatik, azken datuek erakusten dute Erresuma Batuak BPGaren % 0,4 bideratzen dituela gai horretara; Suediak, aldiz, % 2 bideratzen du. Ildo beretik, bi urteko haurren % 85ek haurrak zaintzeko zerbitzu formalak erabiltzen ditu Suedian; aitzitik, zifra hori % 50 da Suedian. Izan ere, nazioarteko erakundeen (KHEE, esaterako) txostenetan aitortzen da sare informalak (aitona-amonak, bizilagunak eta abar) funtsezko zeregina duela ama langileen seme-alabak

zaintzeari dagokionez. Administrazio publikoak dohainik eskaintzen duen arreta formala egun bakoitzean bi ordu eta erditik gora ez denez gero, laguntza-iturri askotara jo behar da nahitaez, eta horrek berekin dakar lanaldi berean zaintzaile edo laguntza-zentro bat baino gehiago nahasi eta koordinatu behar izatea (KHEE, 2005).

### 3.1.2. Guraso bakarreko familientzako neurri espezifikoak familia guztientzat bideratutako neurri orokorrekin nahasita

Guraso bakarreko familiei dagokienez Britainia Handiko Gobernuak abian jarri zuen tresna nagusietako bat *New Deal for Lone Parents* (NDLP) deiturikoa da. Estrategia integral hori 1997an jarri zen abian esperimentu gisa eta 1998an aplikatu zen modu orokorrean, ama bakarrak lanera daitezzen bultzatzera bideratuta dago bereziki, guraso bakarreko familietan 90eko hamarkadaren amaieran atzeman ziren pobrezia-tasa altuei erantzuteko.

NDLP programa beste kolektibo batzuetara (50 urtetik gorako langabeak edo desgaitasunak dituztenak) bideratuta dauden eta 1997an Gobernura Alderdi Laborista iritsi zenean abian jarri ziren antzeko estrategia integral multzo baten barnean sartzen da. Gaur egun, NDLP programa laguntza-programa eta borondatezko partaidetza-programa gisa eratzten da, kargura seme-alabak dituzten ama bakarrak laneratzera bideratuta dagoena eta batez ere aholkulari espezializatu baten laguntzan oinarritzen dena. Horretaz gain, programa horrek, zenbait kasutan, laguntza ekonomikoak ematen ditu haurrak zaintzeko zerbitzu formalak ordaintzeko, betiere zerbitzu horiek behar bezala egiaztatuta badaude<sup>4</sup>, eta zerbitzu horiek familia-kargak dituen eta langabezia-egoeran dagoen ama bakarra laneratzen laguntzeko eskatzen badira. Kasu horietan, laguntza ekonomikoa zuzenean ordaintzen zaio zentroari edo kontratatuko profesionalari.

NDLP programaren esparruan haurrak zaintzeari eskaintzen zaion arreta hainbat ekimen orokorrekin osatzen da, familia guztiei bideratutako ekimenak, haurren zaintza hobetzeko (izan ere, aurreko paragrafoan aipatutako neurri batzuk familia guztiei ere eskaintzen zaizkie). Ildo horretatik, 1998an abian jarri zen Haurrak Zaintzeko Estrategia Nazionalan (*Child Care National Strategy*) guraso bakarreko familientzako nahiz bi gurasoko familientzako hainbat neurri azaltzen dira,

---

<sup>4</sup> Profesionalak (*childminders*) nahiz zentroak izan daitezke, baina laguntza ezin zaie familiako zaintzaileei eman (Aitonamonak, osaba-izebak eta abar). *Childminder* edo zaintzailearen figura legez onartzen du Gobernuak. Profesional independenteak dira, behar bezala egiaztatutak eta Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimenean alta emanda daudenak, hainbat haur zaintzen dituztenak beren etxean. Haurren eta horien aiten edo amen premietara egokitzeko malgutasunak eta ahalmek eragiten dute profesional horiek ospe handia izatea eta Britainia Handiko familia guztiek, eta, bereziki, guraso bakarreko familiek asko erabiltzen duten zerbitzua izatea.

biztanleria osoari bermatzeko haurrak zaintzeko zerbitzu eskuraerrazak, lorgarriak eta kalitatezkoak. NDLP programaren kasuan bezala, estrategia honen oinarriko helburua da amen, eta, zehazkiago, diru-sarrera txikiak dituzten familien lan-jarduerako tasak igotzea, pobreziaen aurka borroka egiteko modu gisa (Skinner, C eta Finch, N, 2006). Estrategia horren esparruan, Britainia Handiko Gobernuak ezarri du hiru eta lau urteko haurrak zaintzeko doako zerbitzu partzial bat eskaintzea (bi ordu eta erdi egunean, baina 2010eko irailean hiru ordu izango dira), baita eskolaz kanpoko ordutegian haurrak zaintzeko plaza kopurua igotzea ere.

Horren haritik, azken urte hauetan *eskola zabaltzeko* hainbat esperientzia garatu dira, eta esperientzia horien bitartez, aitei eta amei aholkuak eta laguntza emateaz gain, zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzte arratsaldeko orduetan eta asteburuetan<sup>5</sup>. Era berean, azken urte hauetan hainbat programa pilotu garatu dira (*Extended Schools Childcare* eta *Child Care Tasters*), hezkuntza-agintariekin lankidetzan, enplegu-zerbitzuen, hezkuntza-zerbitzuen eta haurrak zaintzeko zentroen arteko koordinazioa hobetzeko eta zerbitzu horiek behar dituzten familiei laguntzeko. Aipatutako estrategiak berarekin dakar, halaber, ikuskapen- eta egiaztapen-eginkizunak indartzea, Gobernuari dagozkionak, baita hezkuntza-zerbitzuak eta haurrak zaintzeko zerbitzuak hobeto koordinatu daitezkeen bultzatzea ere; bi zerbitzu horiek tokiko administrazioaren eskumena dira.

Hala eta guztiz ere, amak –guraso bakarreko familiakoak izan edo ez– laneratzen laguntzeko Britainia Handiko Gobernuak erabiltzen duen tresna nagusia *child care tax credit* deiturikoa da, soldata txikiak dituzten langileak enplegua lor dezaten bultzatzeko Britainiako Gobernuak sortu duen zerga-arinketa sorta zabalean sartuta dagoen zerga-arinketa. Adierazitako zerga-arinketa horiei esker gurasoen lan-erantzukizunak direla medio haurrak beste batzuek zaintzeko premiak eragiten duen kostuaren zati bat ordain daiteke; kostu hori, batez beste, aste bakoitzeko 200 libera inguru zen 2003an. Egindako ebaluazioen arabera, aipatutako zerga-kenkariak funtsezko zeregina du orokorrean kolokako eta gaizki ordaindutako enpleguak lortzen dituzten amek enplegua lor dezaten sustatzerakoan (Ridge, T. eta Millar J., 2008). Ildo horretatik, zerga-arinketa –praktikan laguntza ekonomiko garbia da, amei beren nominetatik atxikitzen dieten zenbatekoa baino zenbateko handiagoa jasotzen baitute Ogasunetik– oso formula egokia da amen ustez, beste kasu batean ekonomikoki konpentsatuko ez zen laneratzea errentagarri bihurtzeko<sup>6</sup>.

---

<sup>5</sup> Eskola zabaltzeko sistema horiek beste herrialde batzuetan ere ezarri dira. Holandan, esaterako, duela urte batzuetatik aurrera ikastetxeek eskolaz kanpoko hainbat jarduera eskaini behar dituzte eskola-ordutegia amaitu ostean, aiten edo amen lana uztertzen laguntzeko, besteak beste (Adema eta Thevenom, 2008).

<sup>6</sup> Hala eta guztiz ere, zenbait azterlanek adierazten dute laguntza ez dela nahikoa haurrak zaintzeko eragiten duen gastu guztia finantzatzeko, eta Britainia Handiko familiek, nahiz eta laguntza hori eduki, gastuaren % 75 inguru ordaindu behar dute; beste herrialde batzuetan, ordea, % 25/30 ordaintzen dute.



Guraso bakarreko familiak lanera daitezzen laguntzeko, familia horiei ematen zaien beste neurrietako bat –ama langile guztientzako neurriak badira ere– honako hau da: enplegu-bulego bakoitzean (*Job Plus Centre*) *child care partnership manager* izenekoa dago, eta aholkulari pertsonal gisa jarduten du enplegua lortzen duten amen haurrak zaintzeko plaza bilatzerakoan, egon litezkeen laguntza ekonomikoari buruzko aholkuak emateko, ordezkarri gisa edo zentroekiko lotura gisa jarduteko eta abar.

### 3.1.3. Bestelako neurriak

Aipatutako neurriez gain, 90eko hamarkadaren amaieratik aurrera haurrak zaintzeko zentro integralen (*Sure Start* deiturikoak) sare bat garatu da Britainia Handian eta zentro horiek eremu behartsuetan ezarri dira bitarteko txikiak dituzten familiei haurrak zaintzeko plazak lortzen laguntzeko, zentro berean hainbat hezkuntza-, jolas-, eta osasun-zerbitzu integratu eskaintzeko, eta aitak eta amak hainbat guraso-gaitasunetan eta -trebetasunetan gaitzeko. Haur horien gaitasun kognitiboak garatzera oso bideratuta daude, eskola-porrotaren eta eskolan egokitu ezineko egoerak saihesteko, 2005ean mota horretako 500 programa inguru zeuden, gutxi gorabehera 400.000 adingaberi eskaintzen zizkioten zerbitzuak eta 300 milioi liberako gastua eragiten zuten (KHEE, 2005).

Esperientzia zehatzago gisa, aipatu behar da, halaber, haurrak zaintzeko etxez etxeko zerbitzu batzuk garatzen direla –ez dira oso orokorrak eta ez dira soilik guraso bakarreko familientzat–. Zerbitzu horietako batzuei dagokienez, Eskozian garatutakoei dagokienez, egindako ebaluazioak emaitza positiboak jartzen zituen agerian, bai maila indibidualan, bai komunitarioan, kostua txikia izanik. Aztertutako zerbitzuen eraginkortasuna kontrajarrita dago, ordea, garapenarekin eta finantziarioarekin, garapena urria baita eta finantziarioa zatikatua; eta horrek arriskuan jartzen du eskala handiagoan orokortzea (Wilson, V., 2007).

## 3.2. Frantziaren kasua: laguntza ekonomikoak eta haurrak zaintzeko formulen aniztasuna

Familiak babesten dituen eta jaiotza sustatzen duen Ongizatezko Gizartea du Frantziak; gainera, gure ustez, Frantziako politika natalistek eta familiari laguntzeko politikek funtsezko garrantzia izan dute herrialde horretan jaiotza-tasa handiari eusteko, Europako testuingururako. Ildo horretatik, esan behar dugu familiari laguntzeko politikei Frantzian bideratzen den gastua KHEE programako

handiena dela, nahiz eta Frantzian –Eskandinaviako herrialdeetan ez bezala, esaterako– prestazio ekonomikoek eta zerga-arinketek haurrak zaintzeko zerbitzuek baino zeregin garrantzitsuagoa izan (ikus kapituluaren amaierako taula). Nolanahi ere, Frantziak BPGaren % 1,6 bideratzen du haurrak zaintzeko zerbitzuetara, KHEEren batez bestekoaren bikoitza. Espainiaren kasuan, zerbitzu horietan egiten den gastua KHEEren % 0,69 da.

Erresuma Batuaren kasuan bezala, Frantzian bereziki guraso bakarreko familietara bideratzen diren prestazio ekonomiko batzuk daude, eta prestazio horiek familia guztietara bideratzen diren prestazio ekonomikoen gailu oroko zabal batekin elkartzen dira, eta gailu horrek unibertsaltasun handia du (prestazio horien bitartez banatzen diren funtsen % 73 laguntza unibertsalei dagokie, eta laguntza horiek emateko ez dira familia onuradunen diru-sarrerak kontuan hartzen). Guraso bakarreko familientzat ere onuragarria da haurrak zaintzeko herrialde horretan dagoen zerbitzu multzo zabala, beren seme-alabei eskaini diezaiaketen laguntza mota hautatzeko familiei aukera emateko printzipioan oinarritzen den zerbitzu multzoa<sup>7</sup>. Hala eta guztiz ere, ia ez dago soilik guraso bakarreko familientzat bideratutako laguntza-zerbitzurik; familia horiek, orokorrean, familia guztiei laguntzeko ohiko zerbitzuetara jotzen dute.

Oro har, Frantziak 30.000 milioi euro inguru bideratu zituen 2008an haurrak zaintzeko prestazioetara, horrek biztanle bakoitzeko 454 euroko kostua eragin zuen, hilabete bakoitzean batez beste 363 euroko laguntza familia bakoitzeko<sup>8</sup>.

### 3.2.1. Familiei eta guraso bakarreko familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak

Seme-alabak zaintzeko familiei ematen zaien laguntza-prestazio nagusia *Prestation d'Accueil de Jeune Enfant* (PAJE)<sup>9</sup> deiturikoa da. Prestazio hori aurretik zeuden bost familia-prestazio biltzeko ezarri zen 2004an, jaiotza bakoitzeko ordainketa bakar bat biltzen du eta haurdunaldiaren zazpigarren hilabetean ordaintzen da, eta hilabeteko prestazio bat, haurrak hiru urte bete arte luzatzen dena. Bi prestazio horiek familien errentarekin lotuta daude. Horretaz gain, PAJE prestazioaren esparruan, familiak hainbat osagarriren onuradun izan daitezke: jarduera modu librean aukeratzeko prestazioa

<sup>7</sup> Praktikan, honako hau da: aukeratzeko askatasuna izatea; nolanahi ere, askatasun hori asko baldintzatzen dute familien erosahalmenak eta lan-egoerak (Ademma eta Thevenom, 2008).

<sup>8</sup> Ahalegin-maila hori mila milioi euro inguruko gastu publikoa izango litzateke EAEn.

<sup>9</sup> Horretaz gain, familiei laguntzeko beste laguntza batzuk daude Frantzian: laguntza horien artetik familia-prestazioa nabarmendu behar da; bi seme edo alaba baino gehiago dituzten familientzako prestazio unibertsala, hilabete bakoitzeko 123 eurotik 441 eurora bitarteko zenbatekoarekin, seme-alaba kopuruaren arabera; edo eskolara itzultzeko prestazioa, 6-18 urteko haur eskolatuak dituzten familientzat, baita laguntza espezifiko batzuk ere premia bereziak dituzten seme-alaben kasuan.

(CLCA) eta zaintzak modu librean aukeratzeko prestazioa (CMG). Lehenengoa, aitak edo amak haurra zaintzeko eszedentzia hartzeagatiko edo lanaldia murrizteagatiko prestazioa da; bigarrenaren bitartez kanpoko zaintzen (orokorrean etxez etxekoa) kontratazioak eragiten duen kostua murriztu nahi da, zaintzailearen Gizarte Segurantzarako kotizazioaren ehuneko jakin bat ordainduz, eta 158-368 euroko hileko laguntzaren bitartez, zaintzaileak zaintzen dituen adingabeen kopuruaren arabera. Laguntza hori abian jartzeak biderkatu egin du familia-zaintzaile egiaztatuetara jotzen duten familien kopurua; nolana ere, kopuru hori aurretik ere igotzen ari zen (1999tik aurrera lau aldiz handiagoa da).

Familientzako laguntza ekonomikoen gailu orokorrez gain, bereziki guraso bakarreko familientzako bi prestazio daude Frantzian:

- *Allocation de parent isolé* deiturikoa diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoa da, desberdina, 1976an sortua eta 2009an Elkartasun Aktiboko Errenta berrian txertatu zena antzinako RMIarekin batera (*revenu minimum d'insertion*). Baliabideen arabera –hau da, erabiltzailearen errenta-mailak baldintzatuta dagoena– ematen den prestazioa da, eta, desberdina denez, dagokion pertsonaren benetako diru-sarreraren eta prestazioaren gehieneko zenbatekoaren arteko aldea estaltzen du. Diru-sarrerak bermatzeko gutxieneko errenta denez gero, langabezia-egoeran dauden eta beste prestazio batzuetara jotzeko aukerarik ez duten guraso bakarreko familientzat edo laneko diru-sarrera oso txikiak dituzten guraso bakarreko familientzat soilik da. 2007an, seme edo alaba bat duen pertsona bakar batentzako zenbatekoa 748,24 euro zen, eta kargura zuen beste seme edo alaba bakoitzeko, zenbateko horri 187 euro gehitzen zitzaizkion. Benetan jasotako batez besteko zenbatekoa hilabete bakoitzeko 409 euro zen 2005ean. Ia 200.000 familiak jasotzen zuten, Elkartasun Aktiboaren Errentan (EAE) sartu aurretik, guraso bakarreko familiei laguntzeko prestazioa.
- *Allocation de soutien familial* izeneko prestazio unibertsalaren helburua banantzearen edo dibortzioaren kasuan mantenu-pentsiorik ez jasotzea konpentsatzea da. Prestazio horrek mila milioi euro inguruko gastua eragiten du eta gutxi gorabehera 615.000 erabiltzailek jasotzen dute, eta jasotzaile bakoitzeko 1.621 euroko gastua du urtean.

2004an, bi laguntza horiek 1.927 milioi euroko gastua eragiten zuten. Horretaz gain, kalkulatzen da familia-prestazio, laneratzeko errenta eta etxebizitzarako laguntza guztiek guraso bakarreko familien diru-sarrera garbiak, batez beste, % 20tan igotzen dituztela; aitzitik, igoera hori % 1ekoa da seme-alabak dituzten bikoteen kasuan. Laguntza multzo horretan guraso bakarreko familien pobrezia-

tasak familia guztien kasuan baino gehiago jaisten diren arren (% 41etik % 13ra), pobreziaren nagusitasuna familia guztien kasuan erregistratzen den pobreziaren bikoitza da (Eydoux eta Letablier, 2007).

### 3.2.2. Haurrak zaintzeko zerbitzuak

Laguntza ekonomikoak alde batera utzita, haurrak zaintzeko Frantzian ezarri den gailua anitza eta askotarikoa da, eta zaintzeko hainbat formula ditu, hala nola zaintzaile profesionalek zaintza indibiduala eskaintzen dute eta *multiharrerako* zentroak deiturikoak daude. Haurrak hartzeko formulen dibertsifikazioak familien nahi eta premia espezifikotara (ezohiko ordutegi, ezusteko premiak eta abar) egokitutako eskaintza garatzeko borondateari eta lurraldeen arabera dauden premia desberdinei erantzuten die.

Guztira, hiru urtetik beherako Frantziako haurren % 21 egitura kolektiboek hartzen dute beren gain (ama-eskolak, haurzaindegiak eta abar); aitzitik, % 26 eskualdeko hezkuntza-zerbitzuek aitortutako eta egiaztatutako zaintzaile profesionalek artatzen dute.

14. taula. Hiru urtetik beherako haurrak zaintzeko eskaintzaren estaltze-tasa Frantzian (2007)

	Estaldura %	Banaketa %
Harrera kolektiboa	14,2	29,7
Amen laguntzaileak	25,1	52,3
Ama-eskola	7,06	14,7
Etxez etxeko soldatapekoak	1,6	3,4
Guztizko eskaintza	48,1	100

Iturria: Observatoire National de la Petite Enfance, 2008.

Haurrak zaintzeko honako zerbitzu hauek daude eskuragarri Frantzian:

- Haurzaindegiak edo *creches collectives*. Modu kolektiboan eta erregularrean zaintzen dituzte 6 urtera bitarteko haurrak. Lurralde- edo lan-eremukoak izan daitezke, lantoki jakin bateko langileentzat edo gurasoen kooperatibek sustatuak. Gehienez ere 60 plaza dituzte eta jaiegunetan itxi egiten dute. Guztira, kalkulatzen da 2008an 88.000 plaza zituztela.
- *Haltes garderies* deiturikoak. Modu puntualean edo aldizka –ez modu erregularrean– hartzen dituzte sei urtera bitarteko haurrak. 2008an, 33.566 plaza zituzten.

- Haurtzaindegiak. Modu erregularrean zaintzen dituzte 3-6 urteko haurrak eta ama-eskolaren alternatiba gisa sortu ziren. Gehienez ere 80 plaza dituzte eta haurtzaindegiek baino plaza gutxiago estaltzen dituzte (7.687 plaza 2008an).
- *Multiharrerako* establezimenduek arestian aipatutako formulez gain beste hainbat formula erabiltzen dituzte, eta zaintza erregularreko zerbitzuak nahiz noizbehinkako zerbitzuak eskaintzen dituzte. Harrera-formula ohikoenak dira, 151.819 plaza izanik.
- Familia-harrerako zerbitzuak (familia-haurtzaindegiak). Familia-haurtzaindegiek beren bizileku partikularretan haur kopuru aldagarria zaintzen duten familia-zaintzaile egiaztatuak biltzen dituzte eta noizean behin zentro kolektiboetan elkartzen dira hainbat jarduera egiteko. Sare horietako bakoitzaren guztizko zaintza-gaitasuna ezin da 150 plazatik gorakoa izan. Guztira, zerbitzu horiek 61.000 plaza eskaintzen zituzten 2008an, hau da, eskuragarri dauden plaza guztien % 17.

Haurrak zaintzeko zerbitzu kolektibo horietaz gain, kalkulatu da Frantzian gutxi gorabehera 281.000 ama-laguntzaile homologatu daudela<sup>10</sup>, 769.000 haur inguru zaintzeko (hau da, zerbitzu horien zaintzeko ahalmena harrera kolektiboen zaintzeko ahalmenaren bikoitza da). Figura profesional horri dagokion zaintza-tasa honako hau da: zaindutako 34 haur hiru urtetik beherako 100 haurreko. Egindako ebaluazioek erakusten dute, gainera, zaintzaile mota horietaz baliatzeko aukera igo egin dela familia xumeenetan PAJE indarrean jarri izanaren ondorioz (Mahieu, R., 2005).

Europako beste herrialde batzuetan bezalaxe, Frantzian ere azken urte hauetan hainbat ekimen garatu dira haurrak zaintzeko zerbitzuak eskolaz kanpoko ordutegira zabaltzeko. Beraz, ikasleen % 41ek ikastetxean bazkaltzen du, eta % 10ek ikastetxean bazkaltzeaz gain, ikastetxean jarraitzen du eskola-jarduerak egiten eskola-ordutegia amaitzen denean.

### 3.2.3. Sistema zabal eta askotarikoa, baina ez behar adinakoa

Haurrak zaintzeko Frantzian dagoen gailua aztertzeak ahalbidetzen du lan honetarako interesgarriak diren oinarrizko bi ondorio ateratzea:

---

<sup>10</sup> Eskualdeko administrazioak ematen du egiaztapena, eta administrazio horrek berak ebaluatzen ditu haurrak zaintzeko erabiltzen den etxebizitzaren baldintzak eta zaintzailearen trebakuntza.

- Prestazio ekonomikoak alde batera utzita, ez dago guraso bakarreko familiei bideratutako zaintza-eredu espezifikorik, eta familia horiek egun dauden zaintza-formulen aniztasuna erabiltzen dute. Pentsa daiteke etxez etxeko zaintzaileak nahiz zaintza kolektiboko hainbat formula erabiltzea ahalbidetzen duen aniztasun horri esker guraso bakarreko familien premia espezifikoetara aurre egin daitekeela.
- Adierazitakoa gorabehera, guraso bakarreko familiek lan-merkatuan sartzeko eta lan- eta familia-bizitza uztartzeko zailtasun espezifikoak dituzte Frantzian. Guraso bakarreko familientzako prestazioaren ama onuradunen % 30-40k adierazi du enpleguren bat ezetsi duela haurrak zaintzeko formularik ez dagoelako, baina ama horien artean % 80k (hain zuzen ere, prestazioaren epe luzerako modalitatea jasotzen dutenak) adierazi du horixe dela enplegurik ez bilatzeko kausa nagusia.

### **3.3. Suediaren kasua: neurri espezifikoak kontuan hartzen ez dituen sistema unibertsala**

Suediako ongizatezko gizartea, Eskandinaviako gainerako herrialdeetako bezala, bere zabaltasunak eta unibertsaltasunak definitzen du. Suediako Gobernuak inbertsio publiko handia egin du azpiegituretan haurrak zaintzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ahalik eta handiena izan dadin lanean eta berdintasunezko familia lortzeko rolak esleitzeari eta eginkizunez arduratzeari dagokionez.

Guraso bakarreko familiak zaintzeari dagokionez, Suediako sistemaren ezaugarri nagusia da ia ez dagoela sistemarik. Izan ere, mantenu-pentsioaren aurrerapena (unibertsala eta 1937az gerotik aplikatzen dena) ematea alde batera utzita, Suediako guraso bakarreko familiek jaso ditzaketen ia prestazio guztiak guraso bakarreko eta bi gurasoko familiek ere berdinduz jaso ditzakete; nahiz eta espezifikoetara guraso bakar bat duten familientzat onuragarri izateko diseinaturik dauden –edo, behintzat, ez dituzte beste familiek diskriminatzen–. Horrek ez du esan nahi guraso bakarreko familien problematika espezifikoak ez dela kontuan hartzen familia-politikak diseinatzerakoan, baizik eta politika horien diseinuan, gutxienez 50eko hamarkadatik aurrera, neutraltasun-egoera lortu nahi izan dela, familia-formula jakin batzuk beste batzuk baino mesedegarriak ez izateko. Guraso bakarreko familiei laguntzeko neurri espezifikorik ez izatea haurrak zaintzeko zerbitzu sorta handia izateak, aitatasunagatiko bajek eta enplegurako laguntzek azaltzen dute (KHEE, 2005).

Familia guztiei laguntzeko politika zabal honen ondorio gisa haur-pobreziaren tasak txikiak dira, bai familia guztietan, bai guraso bakarreko familietan, eta horietan bereziki. Hori gertatzen da, besteak

beste, Suediako ama bakarren lan-jardueraren mailak handiak direlako: horien artetik, jarduera-tasa % 82 da; Erresuma Batuan, aldiz, % 50.

**15. taula. Haurren pobrezia-tasak eta guraso bakarreko familien tasa Europako herrialdeetan 90eko hamarkadaren erdialdean**

	Haurren pobrezia-tasa	Haurren pobrezia-tasa guraso bakarreko familietan	Guraso bakarreko familien tasa
Suedia	2,6	6,7	21,3
Finlandia	4,3	7,1	11,8
Hungaria	10,3	10,4	7,4
Norvegia	3,9	13,1	15,0
Belgika	4,4	13,5	8,2
Danimarka	5,1	13,8	15,2
Polonia	15,4	19,9	5,6
Italia	20,5	22,2	2,8
Holanda	7,7	23,6	7,4
Frantzia	7,9	26,1	7,7
Luxenburgo	4,5	30,4	5,8
Espainia	12,3	31,6	2,3
Erresuma Batua	19,8	45,6	20,0
Alemania	10,7	51,2	9,8

Iturria: Unicef, 2000.

Familia-egituren edo gurasoen generoaren ikuspegitik familiari laguntzeko sistema neutro bat sortzearekin batera, Suediako familiei laguntzeko ereduaren oinarritzko beste ezaugarrietako bat haurrei laguntzeko zerbitzuek prestazio ekonomikoekin kontrajarrita hartzen duten protagonismoa da. Hain zuzen ere, eranskinetako taulan ikusten denez, Suedia da KHEEren herrialdeen artetik haurrak zaintzeko zerbitzuei BPGaren proportzio handiena eskaintzen dien herrialdea. Nahiz eta BPGaren ehuneko handi bat eskaintzen dien prestazioei dirutan, KHEE osoarekiko aldeak ez dira hain handiak kasu honetan.

16. taula. Familien aldeko prestazio ekonomikoak, zerbitzuak eta zerga-neurriak BPGaren ehunekoan, 2005ean

	Prestazioak dirutan	Zerbitzuak	Zerga-arinketak	Guztira
Danimarka	1,55	1,83	0,00	3,38
Islandia	1,26	1,70	0,00	2,97
<b>Suedia</b>	<b>1,52</b>	<b>1,69</b>	<b>0,00</b>	<b>3,21</b>
<b>Frantzia</b>	<b>1,39</b>	<b>1,62</b>	<b>0,77</b>	<b>3,79</b>
Finlandia	1,60	1,37	0,00	2,97
Norvegia	1,58	1,26	0,12	2,95
Hungaria	1,89	1,22	-	3,11
Holanda	0,64	1,01	0,61	2,26
<b>Erresuma Batua</b>	<b>2,21</b>	<b>0,99</b>	<b>0,35</b>	<b>3,55</b>
Belgika	1,66	0,94	0,52	3,12
Portugal	0,68	0,80	0,18	1,67
Alemania	1,43	0,74	0,87	3,04
Italia	0,58	0,73	0,00	1,30
Zeelanda Berria	1,92	0,71	0,01	2,64
<b>Espainia</b>	<b>0,45</b>	<b>0,69</b>	<b>0,10</b>	<b>1,24</b>
Australia	2,18	0,65	0,04	2,87
Mexiko	0,37	0,63	0,00	1,00
Eslovenia	1,39	0,58	-	1,97
Txekiar Errepublika	1,17	0,57	0,45	2,18
AEB	0,08	0,54	0,65	1,27
Luxenburgo	3,08	0,52	0,00	3,60
Austria	2,37	0,47	0,04	2,88
Japonia	0,35	0,46	0,48	1,29
Eslovakiar Errepublika	1,72	0,40	0,00	2,12
Lituania	0,79	0,40	-	1,19
Grezia	0,70	0,39	-	1,08
Suitza	1,02	0,32	-	1,34
Polonia	0,84	0,29	0,04	1,17
Irlanda	2,21	0,27	0,10	2,58
Korea	0,01	0,26	0,00	0,27
Zipre	1,88	0,23	-	2,11
Latvia	1,08	0,22	-	1,30
Errumania	1,25	0,16	-	1,42
Kanada	0,89	0,16	0,10	1,14
Malta	0,77	0,10	-	0,87
Bulgaria	0,96	0,09	-	1,05
Estonia	1,43	0,07	-	1,50
Turkia	0,02	0,01	-	0,02
<b>KHEE-26</b>	<b>1,30</b>	<b>0,82</b>	<b>0,21</b>	<b>2,33</b>

Iturria: KHEE.

1995. urtetik aurrera, tokiko agintariak haurrak zaintzeko zentroetan plazak eman behar dituzte urte batetik sei urtera bitarteko haurrentzat eta, aldi berean, zaintza motaren bat eman behar diete



eskolara sartu aurreko denbora-tarterako eta eskolatik atera ondorengo denbora-tarterako sei urtetik hamabi urtera bitarteko haurrei, baldin eta haur horien gurasoak lanean edo ikasten ari badira (Madurga, 2006). Suediako haurrak zaintzeko zerbitzuak bereizten dira, gainera, kostua oso txikia delako: KHEEren datuen arabera, Suediako haurtzaindegi baten kostua batez besteko soldata baten % 1etik % 3ra bitartekoa da, diru-sarreren mailaren arabera; Erresuma Batuko ehunekoak, ordea, % 11tik % 34ra bitartekoak dira.

Oro har, zentroen irekiera-ordutegia oso zabala da (06:30etik 18:30era) eta hainbat eskolaz kanpoko zerbitzu irekirekin osatzen dira, eta zerbitzu horietan aitek edo amek zainduko dituzte beren seme-alabak; horrela, haur horiek ez dute beren adineko beste haur batzuekin harremanetan egoteko aukerarik galduko. Era berean, haurrak gauez zaintzeko zentroak daude, nahiz eta gutxiengodunak izan, txandak direla-eta gauetan seme-alabak zaindu ezin dituzten aitentzat edo amentzat dira zentro horiek. Kalkulatu da Suediako udalerrien erdiek haurrak zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituztela ezohikotzat hartzen diren ordutegietan. Zerbitzu horietako asko aisia-zentroetan eta ludoteketan eskaintzen dira, eta zerbitzu horien kopurua nabarmen igo da azken urte hauetan (KHEE, 2005).

Era berean, aipatu behar da batez ere guraso bakarreko familientzat diren lasaitasun- edo arintze-zerbitzuak garatu direla, horien kopurua beste zerbitzuena baino askoz ere txikiagoa izan arren. Zerbitzu horiek ohiko familientzat hartzen direnek eskaintzen dituzte, eta horrela, aldi baterako lasaitasun-zerbitzu bat eskaintzen dute. Askok samar hedatuta dagoen udal-eskumeneko zerbitzua da –estatistiken arabera, Suediako ehun haurretik batek erabili du noizbait zerbitzu hori–, nahiz eta zerbitzu horren emaitzak ez diren modu positiboan balioetsi izan beti. Zerbitzu mota horri buruzko ebaluazio kuantitatiboaren arabera, ikusten da ohiko familia horietara jotzeak inpaktu negatiboa duela bi gurasoko familiaren ideala hedatzeari dagokionez guraso bakarreko familiaren aurka, familia mota hori anomalia gisa aurkezten baita (Regner eta Johnson, 2007).

### 3.4. Ondorio nagusiak

Guraso bakarreko familiei laguntzeko Europako hiru herrialdetan garatu diren politikei buruzko errepaso azkar honek elementu interesgarri hauek jartzen ditu agerian:

- Bereziki haurrak zaintzeko edo soilik guraso bakarreko familientzako zerbitzuak oso gutxi garatu dira, eta ia ez dago zaintza espezifikoko zentroi edo formulei buruzko aipamenik. Oro har, guraso bakarreko familiek haurrak zaintzeko ohiko sarea erabiltzen dute, eta

aztertutako herrialdeetan sare horiek familia-egitura eta zaintzeko premia ugariagoetara egokitu dira. Ikuspegi horretatik abiatuta, argi dago haurrak zaintzeko behar bezain zabal eta anitza den sare orokor baten garapenak soilik erantzun diezaikeela guraso bakarreko familien premia espezifikoei lan- eta familia-bizitza uztartzeari dagokionez.

- Frantzia nahiz Erresuma Batuan, zaintzeko formulen aniztasun hori formula erdifamiliarrak erabiliz lortu da, beste neurri batzuen artean, beren bizilekuetan hainbat haur zaintzen dituzten haur-zaintzaile egiaztatuekin (*childminder, assistante maternelle*, eta abar). Formula hori ohiko zentroetako formula baino malguagoa eta eskuragarriagoa da eta gastu eraginkorragoa bermatzen du, pertsona bakar batek, zentro batean bezala, haur bat baino gehiago zaindu baititzake. Zaintzaren eta instalazioen kalitatea administrazioak ezarritako egiaztapen-sistemen bitartez bermatzen da. Herrialde horietan, haurrak zaintzeko formulen aniztasuna ere igo nahi izan da eskolaz kanpoko zerbitzuen, ludoteken eta antzekoen erabilera handituz, baina ezin da esan sistema horien inpaktua oso handia izan denik.
- Guraso bakarreko familientzat bideratutako lana uztartzeko politikek haurrak zaintzeko formula generikoen ahalegina eta prestazio ekonomikoak bateratzen dituzte. Kasu horretan, Suedian, eta batez ere Frantzia, bereziki guraso bakarreko familientzat diren prestazioak daude. Urte horietan, laguntza indibidualizatuko zerbitzuek ere gora egin dute, familia horien ardura dutenei beren premietara egokitutako prestakuntza- eta lan-baliabideak ez ezik haurrak zaintzeko baliabideak ere ematera bideratutako zerbitzuek, hain zuzen ere. Ildo horretatik, helburua zera da, laguntza espezializatu baten bitartez haurrak zaintzeko sare orokorrean baliabideak bilatzen eta babes ematen laguntzea. Horrela, laguntza indibidualizatu eta espezializatu ematea aukeratzen da baliabide espezializatuak erabili ordez, ohiko sarea lortzeko. Nolanahi ere, hori guztia hainbat politika integral aplikatzearen esparruan. Politika horiek prestazio ekonomikoak, haurrak zaintzeko formulak, baimenak, eszedentziak eta abar elkartzen dituzte.
- Frantzia eta Erresuma Batuan, guraso bakarreko familiei laguntzeko politiken diseinuari dagokionez azken aldi egin diren aldaketek aktibazioaren helburua hartu dute aintzat, eta gutxi gorabehera aitortutako helburu hau izan dute: ama bakarrak laneratzea, haur-pobrezia murrizteko lehenasunezko formula gisa. Bi herrialde horietan (eta beste batzuetan ere bai, hala Holanda edo Norvegia) guraso bakarreko familiei laguntzeko ereduak lan-jarduerarik gabeko sostengu ekonomikoa aintzat hartu ordez aktibazioaren logika hartu dute aintzat, eta

logika horrek, hainbat formularen bitartez, ama bakarrek laneratzera edo lan-merkatuan jarrai dezaten sustatzen da.

Laburbilduz, haurrak dituzten familiei laguntzeko aztertutako hiru herrialdeetan dauden baliabide eta programa nagusiak eta horien ezaugarriak biltzen dira ondorengo hiru tauletan.

ERRESUMA BATUA	
Sistemaren ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Guraso bakarreko familiei laguntzeko politika espezifikoak daude.</li> <li>- Gizarte-arloko arrisku-egoeran dauden haurrak dituzten familia guztiek hainbat laguntza ekonomiko dituzte haur horiek zaintzeko.</li> <li>- Prestazio horiek eman ahal izan dira guraso bakarreko familietako gurasoen ehuneko handi bat ez delako lan-merkatuan sartu.</li> <li>- Familia askok zaintza informala aukeratu dute –ahaideek, bizilagunek eta abarrek zaintzen dituzte haien haurrak– beren seme-alabak zaintzeko eredu gisa haur-hezkuntzan hasi aurretik.</li> <li>- Britainia Handiko hezkuntza-sistema publikoak eskolaz kanpoko behar adina jarduera ditu –eskolan sartu aurretik eta eskolatik atera ondoren– lan- eta familia-bizitza uztartu ahal izateko.</li> </ul>
Baliabide normalizatuaren sarea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Amatasunagatik bajek 52 asteko iraupena dute gehienez, eta aste horietatik lehenengo 39ak soldataren % 90ekin ordaintzen dira.</li> <li>- Lan egiten duten gurasoentzako laguntza ekonomikoak: “<i>Working tax credits</i>” <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan egiten duten eta seme-alabak zaintzeko arazo ekonomikoak dituzten gurasoentzako laguntza ekonomikoak dira.</li> <li>▪ Prestazio horiek haurrak zentro ofizialetan zaintzeko kostuaren % 80 estaltzen dute. Esate baterako, hiru urtera bitarteko haurrentzako haurtzaindegietan (“<i>day nurseries</i>”) eta bi urtetik 5 urtera bitarteko haurrentzako zentroetan (“<i>nursery schools</i>”). Bi zentro horietan, Gobeenuak ez ditu haur guztientzako plazak bermatzen, baina premiak egon daitezkeela uste delako eta gizarte- eta hezkuntza-arloko desabantailak daudelako onartzen dira haurrak.</li> <li>▪ Era berean, etxeko haurtzaindegiek (“<i>Childminders</i>”) ematen duten zaintzaren kostua estaltzen dute. Figura hori legez onartuta dago, eta pertsona horiek autonomoen erregimen orokorrean alta emanda egonik, hainbat haur zaintzen dituzte beren bizilekuan. Zerbitzu horrek eskaintzen duen malgutasuna eta familia bakoitzaren premietara egokitzeko ahalmena direla medio familia guztiek eta, bereziki, guraso bakarreko familiek asko erabiltzen dute baliabide hori.</li> </ul> </li> <li>- Seme-alabak zaintzeko laguntza ekonomikoak: “<i>Child tax credits</i>” <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Laguntza ekonomiko horiek kargura 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoentzat dira.</li> <li>▪ Aitak ordaindutako lanik ote duen edo ez kontuan izan gabe jasotzen dira laguntza horiek.</li> </ul> </li> <li>- “<i>Childcare partnership managers</i>” deiturikoez aholkularitza profesionala ematen dute. Funtzionario publikoak dira eta ikastetxeetan zaintza jasotzeko plazak bilatzen eta laguntza ekonomikoak lortzen laguntzen dute.</li> <li>- Haurtzaindegiak dohainik. Nahi duten familia guztiek hamabi ordu eta erdiko doako zaintza dute haurtzaindegietan.</li> <li>- Ikastetxe gehienetan eskolaz kanpoko behar adina jarduera daude, eskola-ordutegia baino lehen eta ondoren, eta horiei esker familia- eta lan-bizitza uztar daitezke.</li> </ul>
Guraso bakarreko familientzako baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programa: “<i>New deal for lone parents</i>”: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guraso bakarreko familiarik gizarteratzeko eta laneratzeko programa da.</li> <li>▪ Prestakuntza-ikastaroak eta lan-praktikak ematen dituzte.</li> <li>▪ Gurasoek beren seme-alabak zaintzeko laguntza publikoak eskatzeko moduari buruzko aholkuak eta laguntza jasotzen dituzte.</li> <li>▪ Borondatezkoa da programan parte hartzea, baina aita edo ama erabiltzaileek konpromisoa hartzen dute bideratuko dituen profesional batekin biltzeko (<i>work focused interviews</i>)</li> </ul> </li> </ul>

FRANTZIA	
Sistemaren ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Guraso bakarreko familiei laguntzeko politika espezifikoak daude.</li> <li>- Garrantzi handia ematen dio guraso bakarreko familiek enplegua lortzeari, eta guraso bakarreko familientzat onuragarriak diren lan- eta familia-bizitza uztartzeko neurriak ditu.</li> <li>- Familiari laguntzeko politikak familiek aukeratzeko duten askatasun-printzipioan oinarritzen dira.</li> <li>- Haurrak zaintzeko estaldura oso handia da eta 0-6 urteko haurrak eskolatzeko tasak (ez da derrigorrezkoa) oso handiak dira.</li> </ul>
Baliabide normalizatuen sarea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Amatasunagatik baimenek 16 asteko iraupena dute eta osorik ordaintzen dira. Baimen horiek kargura dituen seme-alaben kopuruaren arabera luzatzen dira.</li> <li>- Gurasoek hautatzeko duten askatasun-printzipioak eragiten du haurrak zaintzeko eskaintza zabala eta askotarikoa izatea.</li> <li>- Haurrak zaintzeko Gobernuak ematen dituen laguntza ekonomiko asko dituzte Frantziako familiek.</li> <li>- Hilabeteak dituzten haurretatik hasita 2 urtera bitarteko haurrak zaintzeko Gobernuak honako erakunde-alternatiba hauek arautzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ama-laguntzaileak / “<i>Assistantes maternelles</i>”</li> <li>▪ Eguneko zentroak / “<i>Crèches collectives</i>”</li> <li>▪ Eguneko zentroak familian / “<i>Crèches familiales</i>”</li> <li>▪ Haurtzaindegiak / “<i>Pouponniers</i>”</li> <li>▪ Atsedeen-haurtzaindegiak / “<i>Haltes Garderies</i>”</li> </ul> </li> <li>- Haurrek bi urte betetzen dituztenetik aurrera, gurasoek plazak lor ditzakete ama-eskoletan / “<i>écoles maternelles</i>”.</li> </ul>
Guraso bakarreko familientzako baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiari laguntzeko subsidioa: “<i>Allocation de soutien familial</i>”: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aitarik edo amarik gabeko haur umezurtzaren edo elikagaiak emateko betebeharrak betetzen ez dituzten aitaren edo amaren edo gurasoen edo guraso kaudimengabearen haurraren ardura hartzen duten laguntzako laguntza ekonomikoa.</li> </ul> </li> <li>- Guraso bakarrarentzako subsidioa: “<i>Allocation de parent isolé</i>”: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Seme edo alaba baten zain daudenen edo kargura seme edo alaba bat dutenen gutxieneko diru-sarrerak bermatzera bideratutako prestazio ekonomikoa.</li> <li>▪ Iraupen mugatua du, haurrak hiru urte bete arte gehienez.</li> <li>▪ Gurasoek lan- eta familia-bizitza uztartu ahal izateko baliabide-maila nahikoa eduki dezaten bermatu nahi da.</li> </ul> </li> </ul>

SUEDIA	
Sistemaren ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez dauka guraso bakarreko familiei laguntzeko politika espezifikorik.</li> <li>- Gobernuaren familia-politikak unibertsaltasunaren eta eskubide indibidualen printzipioetan oinarrituta daude.</li> <li>- Gobernuak bi alderdi sustatzen ditu, alde batetik gizonen eta emakumeen berdintasuna lanean, eta bestetik, baterako partaidetza familia-erantzukizunetan, haurrak zaintzeko azpiegiturretan inbertsio publiko handia eginez.</li> <li>- Haurrak dituzten familia guztiak behar adina laguntza ekonomiko dituzte eta baliabide sorta handia.</li> <li>- Haurrak zaintzeko zerbitzuak nabarmentzen dira kalitate-estandarrak handiak direlako eta eskuragarritasun unibertsalaren printzipioarengatik.</li> <li>- Familia gehienek zentro ofizialetara eramaten dituzten seme-alabak eta zaintzaile informalak ez dira haurrak zaintzeko eredu ospetsuak.</li> </ul>
Baliabide normalizatuen sarea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prestazio ekonomiko unibertsalak 16 urtetik beherako seme-alabak kargura dituzten familia guztientzat.</li> <li>- Amatasunagatiko/aitatasunagatiko bajak soldataren % 80 estaltzen du, 480 eguneko iraupena du eta bajaren titularra aita edo ama izan daiteke.</li> <li>- Amatasunagatiko baja luze horiek eragiten dute haurrak 12 hilabetetik aurrera sartzeko zaintzeko zerbitzuetan. Interesa duten guraso guztiak plaza bana izango dute eskolaurreko zentroetan eta zaintza pedagogikoko zentroetan.</li> <li>- Hezkuntza-zentro guztiak eskolaz kanpoko jarduerak dituzte, lan- eta familia-bizitza uztartzea ahalbidetzen dutenak. Haurren zaintza eskolaz kanpoko ordutegian honako hauetan egiten da: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Astialdiko zentroetan.</li> <li>▪ Zaintza pedagogikoko zentroetan.</li> </ul> </li> <li>- Zailtasun ekonomikoak dituzten familia guztiak ikastetxeak ordaintzeko laguntzak dituzte.</li> </ul>
Guraso bakarreko familientzako baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez dago guraso bakarreko familientzako programarik ezta baliabide espezifikorik ere.</li> <li>- Familia guztiak laguntza ekonomiko espezifikoak dituzte adingabeak mantentzeko bi gurasoetako batek ez badu haien ardura hartzen.</li> </ul>

#### **4. JARDUNBIDE EGOKIEN ADIERAZLEAK GURASO BAKARREKO FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMETARAKO**

Haurrak zaintzeko zerbitzuei buruzko jardunbide egokien eskuliburuek –bai guraso bakarreko familien seme-alabentzat direnak, bai haur guztientzat direnak– nahitaez bete behar diren irizpide jakin batzuk azpimarratzen dituzte programek behar bezala funtzionatzeko. Lan honetan gauzatu den literatura espezializatuaren berrikuspenak –jardunbide egokien eskuliburuak, araudia, programen ebaluazioak eta abar– ahalbidetu du guraso bakarreko familiei laguntzeko programa ororen esku-hartzea bideratu behar duten jardunbide egokiaren adierazleak zehaztea.

Ondoren azalduko diren jarraibide egokiaren irizpideek haurrak zaintzeko guraso bakarreko familientzat EAEn ezarri diren formulen balioespena egiterakoan (txosten honen bigarren zatian) kontuan hartu den esparru teorikoa osatzen dute. Ez da zerrenda zehatza, antzeko beste irizpide batzuk ere erants baitaitezke, eta ezin dira beti adierazle kuantitatibo zorrotzak izan (esate baterako, laguntza-ratioak). Bestalde, kasu gehienetan, kontuan hartzen diren jardunbide egokiaren irizpideak, haurren zaintzaren kasuan, ezin zaizkie soilik guraso bakarreko familiei aplikatu, baizik eta haurrak zaintzeko programa guztiei eta/edo esku-hartze sozialeko programa guztiei aplikatzen zaizkie. Dituzten mugak gorabehera, proposatutako irizpideek erreferentzia-eskema baliagarriak dira aztertutako jardunbideak beste herrialde batzuetan garatutako jardunbide egokiak oinarri hartuta egindako erreferentziako eredu teorikoarekin egiazta baitaitezke.

Identifikatutako oinarritzko irizpideak honako hauek dira:

##### **4.1. Ingurunearen azterketa eta premien ebaluazio globala**

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programa orok ingurunearen azterketa egin behar du; lehenik eta behin, lanaren xede izango diren haurren oinarritzko premiak identifikatzeko, baita zerbitzuen erabiltzaileak izango diren familien premia espezifikokoak eta dagokion eremuan familia erabiltzaileentzat eskuragarri dauden baliabideen mapa identifikatzeko ere. Inguruneari buruzko azterketa eraginkorrek ahalbidetu behar du zerbitzua ezarriko den lurralde-eremuan dauden gabezia nagusiak, haurrak zaintzeari dagokionez familiek dituzten oinarritzko premiak eta beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak identifikatzea. Familien egoera aztertu eta gogobete gabe geratu diren premiak atzeman ondoren, lagundu ahal izango da familia horiek beste zerbitzu batzuetara bideratzen edo zerbitzu gehiagoren laguntza jaso behar duten

erabakitzen (DSRU Matching needs and services 1999). Guraso bakarreko familiei laguntzeko programek eta familia horiek harremanetan egon behar dute beste laguntza-zerbitzu batzuekin eta eskuragarri dauden laguntza-zerbitzuei eta zerbitzu horiek lortzeko formulei buruzko informazioa izan behar dute (Department of Health, 1999).

Ingurunearen azterketari buruzko oinarritzko elementuetako bat bereziki guraso bakarreko familiei bideratutako esku-hartzearen premia justifikatzeari dagokiona da; izan ere, esku-hartze horrek honako arrazoi hauengatik soilik dauka zentzua: familia horiek ezin dutelako haurrak zaintzeko baliabide orokorrik lortu, baliabide horiek ez dietelako premia espezifikoei erantzuten edo aztertutako eremuan ez dagoelako horrelako zerbitzurik.

#### 4.2. Sartzeko eta kanpoan uzteko behar bezala definitutako irizpideak

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programa orok erabiltzaileak sartzeko eta kanpoan uzteko irizpide garbiak izan behar ditu, eta artatu behar den xede-biztanleria argi eta garbi definitu beharko da, baita programa horretan parte hartuko duten familia erabiltzaileen profila eta ezaugarriak ere. Sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideez gain, programan parte hartzeko behar adina plazarik ez dagoen eta itxaronzerrenda dagoen egoeretarako programek hainbat lehentasun izan behar dituzte.

Erabiltzaileak programan lehenbailehen sar daitezten laguntzeko, egile askok adierazten dute sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideak eta programan parte hartzen noiz hasiko diren balioesterakoan kontuan izan behar diren lehentasunak argiak izango direla nahitaez, eta jende guztiak ezagutu behar dituela (Chile Welfare League of America, 1991; Fernández del Valle, 1995; Department of Health, 1999). Irizpide horiek definitzerakoan, pentsa daiteke –EAEko errealitate soziolaborala kontuan hartua– guraso bakarreko familiei laguntzeko programen erabiltzaileak honako familia hauek izango direla: gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden adingabeen zaintzaren arduradun bakarra guraso bakar bat duten familiak, eta familia horiek ez badute behar adina baliabiderik lan-jarduera seme-alaben zaintzarekin uztartzeko.

Programa horietan sartzeko edo kanpoan uzteko irizpideek ere adingabeak zaintzeko adin-muga bat ezarri beharko dute. Literatura aztertu ostean, nabarmendu behar da 12 urtetik aurrera haurrek nahikoa heldutasun-, erantzukizun- eta autonomia-maila dutela bakarrik geratzeko, heldu baten zaintzaren premiarik izan gabe (Child Care Aware, 2010). Hortaz,



pentsa daiteke, kasu berezietan izan ezik, guraso bakarreko familiei laguntzeko programek ez luketela 12 urtetik gorako haurren zaintzaz arduratu behar.

### 4.3. Erreferentziako esparru teorikoak

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programa orok erreferentziako esparru teoriko bat izan behar du, baita esku-hartzeko helburu eta metodologia argiak ere (Child Care Aware, 2010).

Programen arduradunek langileak prestatu beharko dituzte eta programaren oinarri pedagogikoei, esku-hartzearen garapenaren oinarriko printzipioei eta profesional guztiek gauzatu behar dituzten rolei buruzko informazioa eman beharko diete. Egile gehienek adierazten dute programaren diseinu metodologikoa a priori definitu behar dela, eta profesional guztiek jakin behar dutela zein den erreferentziako eredu teorikoa eta laneko kultura komun bat partekatu behar dute (Department of Health, 1998; Utting, 1990). Bestalde, erreferentzia-esparruak honako honetan oinarritu behar du: hezkuntza-jarduerak ematean, sustapenean eta egokitze psikosozialean, zaindutako haur bakoitzaren bilakaera-fasearekin bat etorriko direnak, programako profesionalen esku-hartzea ama edo aita ez dagoenean zaintza fisiko soila ez izateko.

### 4.4. Laguntza pertsonalizatua

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programaren erabilizaile guztiek laguntza-plan indibidual bat izan behar dute, familia horien diagnostiko espezifikoetik abiatuta. Egia esan, laguntza-plan indibidual hori egiteko nahitazko baldintza da familia bakoitzak dituen premia espezifikoiei buruzko aurretiazko ebaluazioa egitea (DSRU Matching needs and services, 1999). Plan horretan, idazki bidez, honako hauek bildu beharko dira: esku-hartzearen helburuak, erabiliko den metodologia eta baliabideak, eta esku-hartzea gauzatuko deneko sekuentzia, baita esku-hartzearen iragarpena eta ebaluazioa ere (Fernández del Valle, 1996; Sánchez Redondo, 2001). Familiek, idazki bidez, dokumentu bat jaso beharko lukete eta dokumentu horretan esku-hartzean erabiliko diren baliabideak eta jarduerak bildu beharko dira, baita horien intentsitatea ere; horretaz gain, familiek jakinarazitako onespena sinatu beharko lukete programan parte hartu aurretik (Scottish Executive, 2010).

Planaren aplikazioak hasieran proposatutako helburuak lor daitezzen sustatu behar duenez, jardun-plan errealista izan behar du. Jarritako helburuak lortzen ez badira, profesionalak jakin behar dute zein diren helburu horiek ez lortzeko arrazoiak eta idazki bidez jaso beharko dituzte (Fuertes, J. eta Sánchez, E., 1997).

#### 4.5. Emaitzen ebaluazioa

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programak egindako esku-hartze orok emaitzen ebaluazioa izan beharko luke, eta ebaluazio horrek ahalbidetu beharko luke proposatutako helburuak lortu diren, bai esku-hartze mailan, bai komunitate-mailako baldintzak hobetzeko mailan. Laguntza indibidualen planak aldizka berrikusi beharko dira, eta berrikuspen horiei esker neurriak edo baliabideak aldatu ahal izango dira eta une bakoitzeko esku-hartze premietara egokitu.

Familia erabiltzaileek eta profesionalak jakin behar dute esku-hartzearen hasieran jarritako helburuak lortu ote diren, eta, hala badagokio, zein diren helburu horiek ez lortzearen kausak. Helburuak espezifikoa eta errealista izango dira nahitaez, aldizka ebaluatu ahal izateko (Department of Health, 1999). Laguntza-plan indibidual horiek familien partaidetzarekin egin beharko lirateke; izan ere, programako profesionalak eta gurasoek haurrak behatzeko, parte hartzeko eta haurrek behar duten zaintza emateko ardura dute (Scottish Executive, 2010). Horretaz gain, haurren eskubideen ikuspegitik, haurrak ere kontuan hartu beharko lirateke esku-hartze plana egiterakoan.

#### 4.6. Erabiltzaileen premiekin bat datorren erreferentziako profesionala

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programaren erabiltzaile orok profesional espezifikoa bat izan beharko luke erreferentziako figura gisa, behar bezalako esku-hartzea bermatu duena eta zentroaren eta familien arteko lotura izango dena. Erreferentziako figura horren profil pertsonalak eta profesionalak bat etorri beharko du familiak azaltzen dituen laguntza-premiekin; horretaz gain, prestakuntza eta esperientzia egokiak izan beharko ditu.

Erreferentziako profesionalaren rola –haurrak zentroan duen egoerari eta laguntza- edo hezkuntza-alderdiei buruzko informazioa ematearekin lotutako alderdiak alde batera utzita– honako honetan oinarritu behar du: familiei laguntza integrala ematean, familia bakoitzak eduki

ditzakeen premia espezifikokoak lantzerantz bideratutako laguntza ematean, alegia. Ikuspegi horretatik abiatuta, erreferentziazko profesionalak, modu indibidualean, aholkuak eta laguntza emateko gauza izan beharko luke, familiek baliabideen sarean moldatu ahal izateko eta, behar izanez gero, sartzeko-prozesuan aurrera egin ahal izateko.

#### **4.7. Ekipamendu eta azpiegitura nahikoak eta egokiak**

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programa orok esku-hartzea gauzatzeko ingurune fisiko egokia izan behar du. Zentroetan garatzen diren programen kasuan, programa horiek ekipamendu materiala izan behar dute, baita kalitatezko hezkuntza-praktika berma dezaketen azpiegitura nahikoak, egokiak, garbiak eta kontserbazio-egoera egokian daudenak ere (Child Care Aware, 2010). Halaber, instalazioek indarreko araudiaren arabera aplikatu daitezkeen segurtasun- eta osasun-arauak bete behar dituzte. Umezainaren figuraren bitartez bizielekuan garatzen diren programei dagokienez, haurrak zaintzeko erabiltzen den lekuak segurua izan behar du eta haurrak behar bezala zainduko direla berma dezakeena (National guidelines for childminders, Irlandako Gobernuak, 2010).

#### **4.8. Lan-baldintza egokiak**

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programa orok behar adina profesional izan behar ditu lan-kargari aurre egiteko eta gainkargarik ez izateko, eta profesionali soldata- eta lan-baldintza egokiak eskaintzeko. Haurrak zaintzeko programen arduradunek lan-baldintza ezin hobekak bermatu behar dituzte, langileen segurtasunerako eta osasunerako lan-arriskuak txikiagotuko dituztenak alderdi fisikoari, psikikoari, sozialari edo emozionalari dagokionez. Programako profesionalak behatu egin beharko dira lanean eta baita lagundu ere, eta arduradunek lana nola egiten den jakin beharko dute, eta, aldi berean, langileek beren iritzia eman ahal izateko eta hobetzeko proposamenak egiteko leku bat prestatu beharko dute (Child Care Aware, 2010).

Horretaz gain, guraso bakarreko familiei laguntzeko programen profesionalak, esku-hartzeari ekin aurretik, beren rola eta erantzukizunak argi eta garbi definituta beharko dituzte. Ildo horretatik, jardunbide egokiei buruzko eskuliburuak adierazten dute idazki bidezko dokumentuak dituen programa bat eduki behar dela, eta dokumentu horietan jarduteko politikak, planak eta protokoloak bildu beharko direla. Idazki bidez jasotako informazio horrek langileen prestakuntza errazten du, eta, aurrerago, lana behar bezala betetzea. Horretaz gain,

profesionalek antolaketa-kultura irekia partekatu behar dute, eta etengabe babestuta eta ikuskatuta daudela nabaritu behar dute. Laguntzeko zeregin horretan, programen arduradunek gogoeta egiteko eremu bat eman behar diete langileei, kezka azaltzeko eta hobetzeko proposamenak egiteko (Child Care Aware, 2010).

Bestalde, programa horrek, gainera, etengabeko prestakuntza sustatu behar du, baita profesionalen birziklapena ere, jakintzak eguneratzea eta eguneroko praktikaren premietara egokitzea ahalbidetuko duena (Scottish Executive, 2010). Erreferentziazko figura hori izateaz gain, gurasoek jarduteko protokolo bat eduki beharko luke kezka edo erreklamazioak baldin badaude. Programan parte hartzen duten familia guztiek jakin behar dute norengana eta nola jo behar duten beharrezkoa izanez gero.

#### **4.9. Integrazio komunitarioa eta baliabide-sarean sartzea**

Guraso bakarrek familiei laguntzeko programa orok erraztu behar die erabiltzaileei baliabideetan eta/edo programatik kanpo dauden zerbitzuetan sartzea. Programa horiek familia erabiltzaileak sar daitezten eta familia horiek komunitatean parte har dezaten sustatu behar dute, familia-gaitasuna eta lan-merkatuan sartzeko aukera sustatzeko (Fernández del Valle, 1998).

Helburua hori izanik, nahitaezkoa da programako profesionalek etengabeko koordinazioa eta komunikazio ona izatea oinarrizko gizarte-zerbitzuekin bereziki, baita beste zerbitzu mota batekin ere (ikastetxeak, osasun-zentroak eta abar). Ildo horretatik, sare-lanerako zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloek zeregin hori errazten dute eta familiei ahalbidetzen diete zer zerbitzu dauden eskuragarri jakitea eta nola lortu zerbitzu horiek. Hainbat egilek esaten dute laguntza-sareak sustatu behar direla familiak komunitatean erabat integratzeko. Ildo horretatik, guraso bakarrek familiei laguntzeko programek erabiltzaileen arteko harremana sustatu behar dute familia horien laguntza informaleko sarea indartze aldera.

#### **4.10. Familia erabiltzaileen eta programaren arteko harreman ezin hobea**

Guraso bakarrek familiei laguntzeko programa orok bermatu behar du behar bezalako harremana egotea, zintzotasunean, konfiantzan eta gardentasunean oinarritua, erabiltzaileen eta profesionalen artean. Egile askoren arabera, esku-hartze prozesu ororen azpian dagoen

oinarrizko helburua familiaren partaidetza, kolaborazioa, erantzukizuna eta inplikazioa bilatzea da. Programak erabiltzaileen isilpekotasuna bermatu behar du eta gurasoen nahiz seme-alaben iritzia kontuan hartu behar du. Horretaz gain, eta, ahal den neurrian, programak hurrek parte har dezaten bultzatu behar du. Programa erabiltzen duten haurren adinaren eta heldutasunaren arabera, adingabeek parte hartzeko jarduerak eta estrategiak ezarri behar dira (Kantabriako Gobernuak eguneko zentroaren proiektu makroa, 2009).

Aita/ama erabiltzaile guztiek leku bat izan behar dute beren kezkek eta kexak jakinarazteko eta hobetzeko proposamenak egiteko (Child Care Aware, 2010). Halaber, profesionalak erabiltzaileen gogobetetze-mailaren berri izan behar dute zerbitzuaren kalitateari, diseinuari eta garapenari buruz, baita profesionalen eta erabiltzaileen arteko harremanari buruz ere. Horretaz gain, profesionalak egindako etengabeko eta behar adinako *feedback-a* jaso beharko lukete familia erabiltzaile guztiek. Familiek aldizkako informazioa jasoko dute hainbat gairi buruz. Gaiak honako hauek dira: esku-hartzearen bilakaera, beren seme-alabak nola dauden, lortutako emaitzak, baita laguntza-planari buruz hartzen den edozein erabaki edo egiten den aldaketa oro.

#### 4.11. Programaren eraginkortasun ekonomikoa

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programa orok kostuari eta etekinari buruzko azterketa egin behar du, esku-hartzea termino ekonomikoetan balioetsi ahal izateko. Programaren ezarpenak programaren eraginkortasuna bermatu behar du eta kostua behar bezala justifikatu beharko da programaren emaitzak lortuz.

Programa eraginkorra izango da lortutako emaitzen eta programak erabilitako baliabideen arteko harremanari buruzko balioespina aldekoa bada. Helburuak lortzeari eta kasu indibidualetan ezarritako lanaren kalitateari buruzko informazioa biltzeak ahalbidetuko du behar adina informazio izatea programaren errentagarritasuna balioesteko eta emandako zerbitzuaren berri izateko (Osasun Saila, Erresuma Batuko Gobernuak, 1999).

Laburpen gisa, ondorengo taulan guraso bakarreko familiei laguntzeko programa orearen lana bideratu behar duten jardunbide egokien adierazleak biltzen dira.

JARDUNBIDE EGOKIEN ADIERAZLEAK	
5.	- Ingurunearen azterketa
	- Sartzeko eta kanpoan uzteko behar bezala definitutako irizpideak
	- Erreferentziako esparru teorikoa
	- Laguntzak pertsonalizatua/indibidualizatua izan behar du
	- Laguntza-plan oro aztertu egin behar da
	- Erabiltzaileen premiekin bat datorren erreferentziazko profesionala
	- Ekipamendu eta azpiegitura nahikoak eta egokiak
	- Profesionalek lan-baldintza egokiak izatea
	- Integrazio komunitarioa eta baliabide-sarean sartzea
	- Familia erabiltzaileen eta programaren arteko harreman ezin hobea
	- Zerbitzuaren ebaluazioa
	- Programaren eraginkortasun ekonomikoa

## EAE-KO GURASO BAKARREKO FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMAK

### 5.1. Sarrera eta metodologia

#### 5.1.1. Egitura, edukiak eta alderdi metodologikoak

Txostenaren bigarren zatian EAEn ezarritako eta osorik edo zati batean administrazio publikoek finantzatutako guraso bakarreko familiei laguntzeko hiru programen deskribapena, azterketa eta balioespena biltzen dira. Sarreran esanenez, informazioa hedatzerakoan behar den isilpekotasuna gordetzeko, programa bakoitza inizial baten bitartez (A, B edo C) aipatzen da izen osoa esan ordez.

Txosten hau egiteko informazioa biltzeko erabili diren metodoak honako hauek dira:

- Hiru programetako jarduera-memorien berrikuspena.
  - A programa: 2009ko jarduera-memoria.
  - B programa: 2007ko programaren memoria.

- C programa: 2008an eta 2009ko lehenengo hiruhilekoan egindako lanaren memoria teknikoa.
- Hiru elkarteetako bakoitzaren orri elektronikoetan eskuragarri dagoen informazioari buruzko azterlana.
- Azterketa-bisitaldiak hiru programetako bakoitzera<sup>11</sup>. Bisitaldi horiei esker datuak eskatzeko fitxak bete ahal izan ziren eta honako data hauetan egin ziren:
  - A programa: 2010eko maiatzaren 6an.
  - B programa: 2010eko maiatzaren 14an.
  - C programa: 2010eko ekainaren 1ean.
- Elkarrizketak programen arduradunei:
  - A programan Elkartearen presidentea eta presidenteordea elkarrizketatu ziren, baita programaren ardura duen gizarte-langilea ere.
  - B programan Elkartearen presidentea elkarrizketatu zen, programaren arduradun nagusia zen aldetik.
  - C programan erakundearen aholkularitza juridikoa elkarrizketatu zen, arduradun nagusia den aldetik, eta Elkartearen hezitzaile bat.
- Elkarrizketak profesionalei eta umezainei:
  - A programan begirale/hezitzaile bat elkarrizketatu zen, baita administrazio-lanak egiten dituen profesional bat ere.
  - B programan gaur egun umezain-lanak egiten dituzten hiru pertsona elkarrizketatu ziren.
  - C programan umezain-lanak egin zituen pertsona bat elkarrizketatu zen.
- Elkarrizketak familia erabiltzaileei:
  - A programan hiru ama erabiltzaile elkarrizketatu ziren.
  - B programan programako hiru ama erabiltzaile elkarrizketatu ziren.
  - C programan ama erabiltzaile bat elkarrizketatu zen.

<sup>11</sup> 1. eranskinean azterketa-bisitaldietan bildutako datuak eskatzeko fitxak eta elkarrizketak egiteko erabilitako gidoiak biltzen dira.

Txostenaren zati honen helburu nagusia zera da, ahalik eta gardentasun handienarekin azaltzea programa bakoitzean egiten den lana, baita lan horren ezaugarri nagusiak ere. Nolanahi ere, kontuan izan behar da egindako lana ez dela emandako zerbitzuen eta/edo instalazioen berrikuspena –eginkizun hori beste erakunde batzuei dagokie–, ezta programek duten inpaktuari buruzko ebaluazioa ere; horretarako, beste metodologia bat aplikatu beharko baitzen. Aitzitik, egindako lanarekin, batez ere aztertu nahi izan da erakunde bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuek zenbateraino biltzen dituzten aurreko kapituluak aipatutako jardunbide egokiaren irizpideak, eta, batez ere, EAEko guraso bakarreko familiei laguntzeko zerbitzuen plangintza hobetzeko asmoz, aztertu nahi izan da zein diren erabilitako laguntza-formula bakoitzaren elementu positiboak eta negatiboak. Txostenean biltzen den informazioa, eta ondorengo balioespena arestian aipatutako datu-iturrietan soilik oinarritzen da; datu horiek kualitatiboak dira nagusiki. Horren haritik, litekeena da elkarte horiek gauzatzen duten esku-hartzearen alderdiren bat behar bezala ez azaltzea, bai informazioa ez delako behar bezala eman (esate baterako, azaldutako gai guztiei buruzko erregistrorik ez dagoelako), bai bildutako informazioa gaizki interpretatu delako. Hala eta guztiz ere, pentsa daiteke ikuspegi desberdinen arteko nahasketari esker (informazio administratiboa, programen arduradunak, emakume langileak eta emakume erabiltzaileak), horietako bakoitzaren ezaugarri nagusien ikuspegi nahiko zehatza lortu dela.

Bestalde, nabarmendu behar da, orokorrean, programen funtzionamenduari buruz bildutako informazioa azken ekitaldiari buruzkoa dela, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak finantzatutako ekitaldiari buruzkoa, alegia. A programaren kasuan, aztertutako datuak 2009koak dira, eta C programari buruzko informazioa 2008ko azken hiruhilabetekoa eta 2009ko lehen hiruhilabetekoa da. Hirugarrenik, B programari buruz bildutako informazioa 2007ko ekitaldiari buruzkoa da, eraginkortasun ekonomikoari buruzko atala izan ezik, atal hori 2009ko ekitaldiko datuak erabiliz egin baita. Era berean, aipatu behar da –bereziki informazio ekonomikoari dagokionez– ezin izan dela erabat bereizi haurrak zaintzeko programei buruzko informazioa eta erakunde sustatzaile bakoitzak eskaintzen dituen gainerako jarduerak.

Informazioa biltzeari dagokionez nabarmendu behar den beste alderdi bat elkarrizketatuak – programa bakoitzeko profesionalak eta ama erabiltzaileak– hautatzeko erabilitako metodoari buruzkoa da. Pertsona horiek ez ziren ausaz aukeratu, baizik eta programa bakoitzeko arduradunek hautatu eta proposatu zituzten. Horretaz gain, C programan, beste bi programetan ez bezala, familia erabiltzaile batengana eta esku hartzeko profesional batengana soilik jo ahal izan genuen. Familia eta umezain gehiago ez elkarrizketatzeko arduradunek argudiatu zituzten arrazoien artean, familien isilpekotasunari eustea eta, batez ere, familia



erabiltzaileekin eta umezainekin gaur egun harremanik ez izatea daude, familia eta umezain horiek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek aukeratu zituztelako, eta zerbitzu horiek izan zutelako zuzeneko harremana pertsona horiekin.

Txostenaren bigarren zatiaren egiturari dagokionez, aztertutako datuak sei informazio-bloketan bildu dira, sarreraz gain:

- lehenengoak esparru teorikoa eta aztertutako hiru programetako bakoitzaren helburuak errepasatzen ditu labur,
- bigarrenak erabiltzaileei eskaintzen zaien laguntzari buruzko datuak biltzen ditu (lanaren antolaketa, laguntza pertsonalizatua, erabiltzaileekiko harremana, eta abar),
- hirugarrenak gizarte-zerbitzuen sarearen beste baliabide batzuekin koordinatzeko formulei buruzko informazioa ematen du,
- laugarrenak hiru programetako bakoitzak dituen giza baliabideei eta baliabide materialei buruzko kudeaketa aztertzen du; eta
- bosgarrenak programa bakoitzaren eraginkortasun ekonomikoari buruzko datu orientagarri batzuk biltzen ditu.

Azkenik, esan behar da txosten honen lehen zirriborroa 2010eko ekainean egin zela, eta ez direla aztertutako elementuetan data horren ondoren sor zitezkeen aldaketak bildu. Hala eta guztiz ere, hiru zentroetako arduradunek adierazitako aldaketa batzuk sartu dira 2010eko abenduan.

#### *5.1.2. Aztertutako programen ezaugarri nagusiak*

Laburpen gisa, eta azterketa hau hobeto ulertzeko, aztertutako hiru programen ezaugarri nagusiak biltzen dira ondorengo taulan.

## 17. taula. EAEko guraso bakarreko familiei laguntzeko programen ezaugarri nagusiak.

	A PROGRAMA	B PROGRAMA	C PROGRAMA
<b>Programa kudeatzen duen Elkartearen ezaugarriak</b>	Erakunde kudeatzailearen helburua honako hau da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden talde minoritarioci laguntzea,</li> <li>- elkarteei laguntzea,</li> <li>- adingabeen marjinazioa prebenitzea,</li> <li>- gaixo kronikoen ahaideei laguntzea,</li> <li>- adingabe etorkinei familia-babesa ematea, eta</li> <li>- terrorismoaren biktimen ahaideei laguntzea.</li> </ul>	Erakunde kudeatzailearen helburua honako hau da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- guraso bakarreko familien gizarte-zirkunstantziak eta bizi-baldintzak hobetzea,</li> <li>- horien interesak koordinatzea, ordezkatzea eta balioa ematea,</li> <li>- gizarte arduratsuek diren politikak lortzeko lan egitea, eta</li> <li>- egoera horiek markatzen dituzten jarrera publikoak alda daitezten lan egitea.</li> </ul>	Emakumeen eskubideen defentsa sustatzen duen eta batez ere honako alderdi hauek eskaintzen dituen Elkartea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- laguntza eta jardun espezifikoak epai- eta zigor-eremuan eta eremu zibilean</li> <li>- laguntza eta informazio interaktiboa gizarte- eta erakunde-alderdietan</li> <li>- laguntza psikologikoa tratu txarren, genero-indarkeriaren eta sexu-jazarpenen biktimei, eta prestakuntza psikologikoa epaitu aurretik eta ondoren</li> </ul>
<b>Artatutako udalerrriak</b>	Bat Lurralde Historiko batean	22 Lurralde Historiko batean eta bat beste batzuetan	Bi Lurralde Historiko batean eta bat beste batean
<b>Programa bakoitzaren zerbitzu nagusia</b>	Adingabeak zaintzeko zentroa haurtzaindegi eta ludoteka gisa erabiltzen da	Etxez etxeko umezainak	Etxez etxeko umezainak
<b>Zerbitzu gehigarriak</b>	Ikastetxetara lekuz aldatzea. Amentzako autolaguntzako taldea. Amentzako prestakuntza-jarduerak. Lege-laguntza eta laguntza juridikoa, eta prestazio ekonomikoak izapidetzeko aholkularitza.	Haurtzaindegi-zerbitzua bost astetan 2007ko ekainean eta uztailean. Lege-laguntza eta laguntza juridikoa, eta prestazio ekonomikoak izapidetzeko aholkularitza.	Lege-laguntza eta laguntza juridikoa.
<b>Jardueraren iraupena</b>	2008an hasi zen eta gaur egun zerbitzuak ematen jarraitzen du Eusko Jaurlaritzaren finantziarioarekin.	2002an hasi zen eta zerbitzuak ematen jarraitzen du Foru Aldundiaren eta udal batzuen finantziarioarekin.	2008ko azken hiruhilekoan eta 2009ko lehenengoan gauzatu zuen jarduera.
<b>Laguntza jaso duten lagunen kopurua</b>	2009an 80 familiari lagundu zien (80 ama eta 97 haur).	2009an 23 familia artatu zituen (21 ama eta 29 haur).	2008-2009 aldian 9 familiari lagundu zien (9 ama eta 10 haur).
<b>Profesionalak</b>	2009an lau begirale/hezitzailek, hiru gizarte-laguntzailek eta lan administratiboak egin zituen profesional batek osatzen zuten plantilla.	2007an programak 167 umezain eta Elkartearen hiru profesional izan zituen. 2009an programak 21 umezain ditu.	2008-2009 aldian, 8 umezainek eta Elkartearen bi profesional arduradunek osatu zuten programa.
<b>Aurrekontua</b>	2009an Eusko Jaurlaritzak 206.000,00 €-ko diru-laguntza eman zuen, eta zenbateko horretatik % 75 2009an ordaindu zen. Gainerako % 25etik (51.500,00 €) programaren koordinazio orokorraren kontzeptuan egindako gastua (36.000,00 €) baztertu egin zen, eta, azkenean, 15.500,00 € ordaindu ziren. Programaren arduradunek adierazten dute 2009ko ekitaldiko guztizko gastua 213.616,00 € izan zela.	2007an Eusko Jaurlaritzak emandako 226.971,90 €-ko finantziarioa izan zuen Elkarteak garatu zituen programa guztietarako. Diru-laguntza horren % 25 2010eko urtarrilera bitarte atzeratu zen. 2009an 81.246,00 € lortu zituen Foru Aldundiaren, Udalen eta bazkideen kuoten bitartez.	2008an 50.000,00 €-ko finantziarioa izan zuen.

## 5.2. Esparru teorikoa eta programen helburuak

### 5.2.1. Helburu orokorrak

Guraso bakarreko familiei laguntzeko hiru programek helburu nagusi bera dute, hau da, guraso bakarreko familia-unitateetako seme-alabak babestea eta laguntza ematea aiten/amen lan- edo prestakuntza-ordutegiaren berdina den ordu-tartean, baldin eta beste zerbitzuek ezin badute eginkizun hori bete. Aztertutako hiru programetan premia-egoeran dauden guraso bakarreko familien gizarteratzea eta laneratzea hobetuko duen eta familia-betebeharrak partekatu gabeko familia-kargak nahiz baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen laguntza-, prestakuntza- eta okupazio-premiekin uztartzeko tresna gisa erabili ahal izango den baliabide bat azaltzen da.

Zehazki, A programaren helburu nagusia –bere web-orrian azaltzen da– honako hau da:

*“Gaur egun baliabide ekonomikorik ez duten edo baliabide urriak dituzten guraso bakarreko familien bizikaltate hobetzea, eta ez ditu soilik adingabeak artatuko, baizik eta familia-unitate osoaren bizikaltate hobetu dadin honela lagunduko da: gizarte-arazoak atzemanaz, esperientziak trukatzeko gune bat sortuz, baliabideei buruzko informazioa eta aholkularitza emanez, ekonomikoak ez diren prestazioak emanez, parte hartzen duten familiak laneratzeko gaitasuna hobetu dadin lagunduz, gizarte-laguntza emanez eta gizarte-jarraipena eginez, esku-hartzeak eta oinarriko gizarte-zerbitzuak edo prozesuan parte hartzen duten beste zerbitzu batzuk koordinatuz”.*

B programaren orri elektronikoan eskuragarri dagoen informazioaren arabera, zerbitzu horrek uztartze-programa bat osatzen du, eta honako helburu nagusi hau du:

*“Familia-betebeharrak eta partekatu gabeko familia-erantzukizunak dituztenen eta baliabide ekonomiko urriak dituzten bikoteen gizarte- eta lan-premiak uztartzea, eta honako egoera hauek estali nahi ditu: lan-elkarrizketetara joatea, prestakuntza hedatzea, lege- edo administrazio-arloko izapideak konpontzea, eskola-bileretara joatea, eta batez ere... familia- eta lan-betebeharrak uztartzea, familia-erantzukizunak dituzten eta egoera ekonomiko txikia dutenen ordutegi-desfaseak estaliz”.*

Azkenik, C programaren elkartearen *Umezainak* programaren web-orrian, honela definitzen zen <sup>12</sup> zerbitzua:

<sup>12</sup> Gaur egun, web-orri hori ez dago erabilgarri.

*“Guraso bakarreko etxekoan unitateen titularrak diren eta beren seme-alaben zaintzari bakarrik aurre egin behar diotenean beren familia-bizitzia eta prestakuntza- nabiz lan-bizitzia uztartzeko arazo handiak dituzten emakumeentzat bideratutako txertatze-programa pilotua da.... Programa horrek pertsona bat jarriko du emakume horien eskura azken horien seme-alabak berme guztiarekin zaintzeko, eta horri esker emakume horiek lan-merkatuan sartu abal izango dira familia ondo zainduta egongo delako lasaitasunarekin”.*

### 5.2.2. Esparru teorikoa

Arestian ikusi dugunez, txosten honen azterketaren xede diren hiru programek zaintzaile pribatua ordaintzeko behar adina baliabiderik ez duten, eta lan- eta familia-bizitza uztartzeko laguntza behar duten guraso bakarreko familien haurrak zaintzeko eta artatzeko zerbitzua eskaintzen dute. Hiru programen arduradunek adierazi dute zerbitzu mota hori abian jartzeko ideia ezaugarri horietako familiekin izandako esku-hartzearen ondorioz bizi izandako esperientziatik sortu zela, baita haurrak zaintzeari dagokionez familia horiek dituzten premia espezifikoak erantzuteko ere.

A programa haurtxoentzako haurtzaindegi gisa eta haur handiagoentzako ludoteka gisa definitzen da, eta beste bi programetatik bereizten da haurrak zaintzeko zerbitzua familien bizilekuetan gauzatu ordez zentro batean gauzatzen delako. Programaren arduradunek emandako azalpenen arabera, haurrak zentro espezifiko batean zaintzeko formula aukeratzeko bi arrazoi daude nagusiki:

- Alde batetik, eraginkortasun ekonomikoa handiagoa delako, pertsona bat bizilekuan zaintzeko kostu handixeagoa eragiten duela uste duten neurrian (*“Zentro honetan, etxez etxeko esku-hartze programa bateko langile kopuru berarekin haur gehiago zaintzen dira”*).
- Beste alde batetik, amei konfiantza handiagoa ematen dielako zentro espezifiko bat erabiltzeko bizilekuan bertan, amarik gabe, zaintzeko baino; azken horrek kasu batzuetan nolabaiteko urduritasuna eragiten baitie ama erabiltzaileei (*“Gehiago fidatzen dira haurra zentroan uzteaz norbait beren etxebizitzetara joateaz baino... uste dute zentroan hobeto zainduko dituztela... baliabide honekin lasiago daude, babestuago”*).

B programa amen/aiten lan-ordutegian haurrak zaintzeko etxez etxeko umezain-zerbitzu gisa definitzen da. Proiektuaren arduradunak emandako informazioaren arabera, programa hori abian jartzeko arrazoi nagusia honako hau da: ikasten edo lan egiten ari direlako gurasoek zaindu ezin dituzten haurrak zaintzeko orduak estaltzea, eta biztanleria osoarentzat diren zentro publikoen estaldura nahikoa ez denean. (*“Programa honen aspian dagoen filosofia besteak –ludotekak, ikastetxeak, astialdiko klubak eta abar– iristen ez diren horretara iristea da... Lanaldiaren eta ikastetxeen artean dauden*

*ordutegi-desfaseak estali nahi dira, ez dira beste zerbitzu batzuk ordeztu nahi, baizik eta soilik ordutegi-desfase horiek estali nahi dira”).*

C programan, guraso bakarreko familiek etxez etxeko umezainen laguntza ere badute adingabeak zaintzeko. Elkarrekin honako bi arrazoi hauengatik jarri du abian proiektua:

- Lehenik eta behin, programaren helburua erabiltzaileen prestakuntza- eta lan-premiak gogobetetzea denez, lana edo prestakuntza dela medio amak beren seme-alabekin egon ezin direnean haur horiek zaintzeaz arduratzen da programa.
- Bigarrenik, programak nahi du onuradunak soilik ama erabiltzaileak ez izatea, baizik eta umezain-lanak egiten dituzten emakumeak ere parte-hartze horren onuradunak izatea. (“*bi norabideko’ programa da, umezain-lanak egiten dituztenak Oinarrizko Errenta jasotzen duten emakumeak ere badirelako, eta, azken batean, parte hartzen duten emakume guztiak laneratzearen aldeko apustua egiten duen programa da*”).

Ikusi denez, hiru erakundeen helburu nagusiak, haurrak zaintzeko eta artatzeko denbora bat ematean oinarritzen dira batez ere, familia- eta lan-erantzukizunak uztartzeari begira. Nolanahi ere, ez dira hain ohikoak zaindutako haurrekin egiten den esku-hartze espezifikoki buruzko erreferentziak, eta, A programaren kasuan izan ezik, ez da zaindutako haurren gaitasun kognitiboak hobetzerik eta/edo haur horien psikologia- eta hezkuntza-arloko estimulaziora bereziki bideratutako gizarte-, hezkuntza- eta prestakuntza-arloko zerbitzuei buruzko esanbidezko aipamenik egiten.

### 5.3. Artatutako biztanleria

#### 5.3.1. Erabiltzaileak sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideak

Sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideei dagokienez, baliabide ekonomikorik ez izatea da –guraso bakarra izateaz gain– maiz kontuan hartzen den alderdia:

- A programak argi eta garbi definitutako harrera-irizpideak ditu. Zerbitzu hori guraso bakarreko familientzat soilik da, familia horietan, gainera, aita edo ama arduratzen da seme-alabak zaintzeaz eta familia horiek ez dute behar adina baliabiderik familia- eta lan-bizitza uztartzeko. Egoera horiek zehazteko, esku-hartzeari ekin aurretik programa horren koordinatzailea dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte-langilearekin koordinatzen da beti, eta egiaztatzen du, alde batetik, artatu beharreko familiak ez duela behar adina

baliabide ekonomikorik zaintzaile/umezain pribatu bat ordaintzeko, eta, bestetik, familia horrekin ez dela haurrak zaintzeko eta artatzeko lanetan lagun diezaiokeen ahaideren bat bizi.

- A programak bezalaxe, C programak hainbat harrera-irizpide ezartzen ditu, familia-unitatearen diru-sarrerekin eta, batez ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzearekin lotuta dauden irizpideak, hain zuzen ere. Ikuspegi horretatik begiratuta, C programa, beraz, laneratze-prozesua garatzen ari diren eta behar adina baliabide ekonomikorik ez duten familientzat soilik da. Kasu horretan, gizarte-laguntzaileek egindako familia-aukeraketa programari atxikitako langileek aipatutako laguntza-premiaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzearen irizpideetara egokitu zen beti. Programaren arduradunek adierazi dutenez, familiak hautatzeari ekiteko, Elkartek irizpide garbiak eman zizkien parte-hartzaile guztiek zerbitzua jasotzeko zuten premiari eta parte-hartzaile horien kolokako egoera ekonomikoari buruz.
- Bestalde, B programaren arduradunak jakinarazi duenez, sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideak –guraso bakarra izatea eta baliabide ekonomikorik ez izatea– argi definituta daude. Foru Aldundiak bideratu zituen eta Sarbideak programan parte hartzen duten erabiltzaileen zaintzaren kasuan, guraso bakarreko familiak izatea soilik hartu zen kontuan, diru-sarreraren gabezia ez baitzen programan sartzeko irizpide gisa aintzat hartu.

Aztertutako programek ere hainbat irizpide ezartzen dituzte artatutako familien ardura duten pertsonen generoari dagokionez:

- A programan emakumeen aldeko diskriminazio positiboko irizpideak daude, baina irizpide horiek praktikan ez dira beharrezkoak, zerbitzuaren eskatzaile gehienak emakumeak baitira.
- C programaren kasuan, programaren arduradunaren azalpenen eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako memoriaren arabera, programak emakumeak soilik onartzen ditu. Nolanahi ere, Elkartearen orri elektronikoan eskuragarri dagoen informazioa irakurrita ezin da egiaztatu programa emakumeentzat soilik dela. (“*guraso bakarreko etxeen unitateen titularrak diren emakumeentzat [gizonak alde batera utzi gabe] da...*”).
- B programaren kasuan, programaren arduradunaren azalpenen arabera, programa honek ez du genero kontuan hartuta baztertzeko irizpiderik (“*zerbitzuak gizonak eta emakumeak artatzen ditu*”), baina eskatzaile gehienak, A programan bezalaxe, emakumeak dira.

Bestalde, lan- eta familia-bizitza uztartzeko familiei laguntzeaz gain, hiru programek krisi-egoeran dauden adingabeak eta genero-indarkeriaren biktimak zaintzeko zerbitzuak ere ematen dituzte. Hiru programen arduradunen azalpenen arabera, zerbitzu hori eskaintzeko arrazoi nagusia honako hau da: kasu gehienetan ama/aita horiek ez diete gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu bati ekin, baina beren seme-alabak zaintzeko laguntza behar dute.

- A programaren 13 ama erabiltzaile etxeko indarkeriaren biktimak izan ziren 2009an. Ama horietatik zazpi X-ko Udaleko harrera-zentroetan bizi ziren.
- C programan genero-indarkeriaren biktima izandako bi erabiltzaile eta umezain bat izan ziren, guztiak X-ko Udaleko larrialdiko etxebizitza batean bizi ziren.
- B programaren kasuan, programaren arduradunaren azalpenen eta elkarrizketatutako umezain batek emandako informazioaren arabera, programak artatzen ditu genero-indarkeriaren biktimak, baina jasotako informazioaren bitartez ezin da jakin zein den artatutako familia kopuru zehatza.

Hiru programen harrera-irizpideekin lotutako beste ezaugarri komun bat honako hau da: ez dago familien jatorriarekin lotutako sartzeko eta kanpoan uzteko irizpiderik. Hiru programetan berdin-berdin artatzen dira Espainiako jatorriko familiak eta etorkinak. Horretaz gain, familia etorkinen kasuan, hiru programetako bakar batek ere ez du kontuan hartzen familia horien lege-egoera; hiru programek berdin-berdin ematen dizkiete zerbitzuak egoitza-baimena dutenei eta egoera irregularrean daudenei. Hiru programen artean soilik A programak ematen du artatutako familien jatorriari buruzko informazioa; programa horretan atzerritar jatorriko haurren presentzia oso handia da. Izan ere, programa horren 2009ko memorian adierazten da artatutako familien % 77k atzerritar jatorria zuela. Programaren koordinatzailearen azalpenen arabera, programa honek familia etorkinen adingabeak artatzeko arrazoietako bat da familia horiek ikasturtea hasi ondoren iristen direla herrialdera. Horren ondorioz familia horiek ez dute plaza liberrik haurtzaindegian eta programara jo behar dute nahitaez. (*“ikasturtearen erdian iristen direnez, ez daukate plazarik haurtzaindegi publikoetan eta programak artatu behar ditu ama horiek lan-munduan sartzeko aukera izan dezaten”*).

Azkenik, artatutako haurrak sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideei dagokienez, A programa beste bi programetatik bereizten da 16 urteko muga jartzen delako, espezifikoki, esku hartzearen xede diren haurrentzat. Horren arrazoia honako hau da: saihestu nahi da anai-arreben taldeetan ahizpa edo anaia zaharrenek txikien zaintzaren ardura hartzea. Beste bi programek ez dute adingabeak zaintzeko adin-mugarik ezartzen, nahiz eta, bi programen arduradunen azalpenen arabera,

umezainek zaintzen dituzten haurren gehieneko adina ez den, salbuespenezko kasuetan izan ezik, 12 urtetik gorakoa izaten<sup>13</sup>.

### 5.3.2. Programen estaldura

Guraso bakarreko familiei laguntzeko hiru programak asko bereizten dira artatzen dituzten familien kopuruari dagokionez. Laburbilduz, honako hau esan daiteke:

- A programaren kasuan, 2009an, 80 familia artatu ziren zentroan (80 ama eta 97 haur).
- C programan, 2008ko azken hiruhilekotik 2009ko lehenengo hiruhilekora bitarte bederatzi familia artatu ziren (9 ama eta 10 haur).
- B programaren kasuan, programaren memoriatik lortutako informazioaren, azterketa-bisitaldiaren eta arduradunari egindako elkarrizketaren bitartez ezin da zehazki jakin 2007an (urte horretan programak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuen) zenbat familiak hartu zuten parte. Hala eta guztiz ere, programaren arduradunak ematen ditu 2009ko zaintza-datuak. Ekitaldi horretan, programak 23 familia artatu zituen (21 ama, 2 aita eta 29 haur).

A programan zerbitzura zuzenean jotzen duten familiak eta hainbat zerbitzu eta erakundetatik –X-ko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Gizarteratze Zerbitzua, Haurraren eta Familiaren Zerbitzua, eta Herritarren Segurtasun Saila, baita Foru Aldundiaren Adingabea Zaintzeko Saila ere– bideratutako familiak artatzen dira. 2009an, ama erabiltzaileen % 37,5ek (30 ama) zuzenean jo zuen zerbitzura eta % 62,5 (50 familia) hainbat zerbitzutatik bideratu zituzten. Programara zuzenean jotzen duten amak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bideratzen dira programak bere partaidetzari ekin aurretik, eta programaren erregistroetan azaltzen dira zerbitzu horiek bideratutako familiak izango balira bezala.

Ondorengo taulan ikus daiteke urtean zehar artatutako 80 familietatik % 90 X-ko Udalaren arreta ere jaso zuten familiak direla.

#### 18. taula. A programak eta gizarte-zerbitzuek artatutako guraso bakarreko familiak. 2009

<sup>13</sup> B programaren arduradunaren arabera, kasu batean, zaindutako adingabearen adina hamabi urtetik gorakoa izan zen haurrak Autismoaren Espektoaren Nahasmendua zuelako. Kasu horretan, baliabidea ez zen lan- eta familia-bizitza uzartzeko ezarri, ama erabiltzaileari aritze-zerbitzua eskaintzeko baizik.



		Familia kopurua	%
X-ko Udala	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak	63	80,0
	Gizarteratze Zerbitzua	7	8,8
	Haurraren eta Familiaren Zerbitzua	1	1,3
Foru Aldundiaren titulartasuneko Gizarte Zerbitzuak		4	5,0
Foru Aldundiaren Adingabea Zaintzeko Saila		4	5,0
GUZTIRA		80	100,0

Egon daitekeen guztizko eskaerari buruz programa honek gauzatzen duen estaldurari dagokionez, X-ko Udalaren Gizarte Sailak 2009ko memorian aurkeztu zituen datuen arabera, Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzen duten 6.122 etxekoen unitateetatik 874 (% 14,3) guraso bakarreko familiei dagozkien etxekoen unitateak dira. Familia multzo horrek (874 etxekoen unitate) A programaren sartze-irizpide nagusiak betetzen ditu –guraso bakarra izatea, baliabide ekonomiko gutxi izatea eta gizarteratze- eta laneratze-prozesuan egotea–; horregatik, familia horiek programa horretan parte har dezakete. Datuak aztertu ondoren, esan daiteke A programak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten guraso bakarreko familien % 9,15 estali zuela X-ko Udalean. Egon litekeen eskaera beste termino batzuk erabiliz aztertzen bada, esan daiteke programak X-ko Udalaren gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten guraso bakarreko familien (1.452 familia, Sailaren Memoriaren arabera) % 5,5 artatzen duela edo hiri horretan bizi diren mantenu-pobreziaren egoeran dauden guraso bakarreko ia 500 familiaren % 18<sup>14</sup>.

C programaren kasuan, zerbitzu horrek guraso bakarreko etxekoen unitateen titularrak ziren eta Oinarrizko Errenta jasotzen zuten 9 ama artatu zituen, eta horietatik sei .....(e)ko udalerrian <sup>15</sup> bizi ziren, bi Y-an eta beste bat Z-n.

B programak eskuragarri jarritako datuei esker esan dezakegu 2007an artatu zen familia kopuru zehatza. Programa honen jarduera-memorian azaltzen diren datuak aintzat hartuta esan dezakegu programa horrek 2007an 16.465 esku-hartze ordu eskaini zituela eta programako profesionalak egindako esku-hartzearen zati handi bat umezainak izan nahi zuten emakumeei, programaren emakume erabiltzaileei eta emakume hautagai berriei elkarrizketak egiten ematen zutela. Elkarrizketatu horiek X-ko probintziako hainbat udalerritakoak ziren eta Y-ko probintziako beste

<sup>14</sup> Zifra hori kalkulatzeko, kontuan hartu da guraso bakarreko familiak % 4tan nagusitzen direla (Etxekoen Unitateei buruzko Inkesta, 2008) eta mantenu-pobrezia % 12tan nagusitzen dela familia horietan (PGDI 2008). Hala eta guztiz ere, kalkulu hori gutxi gorabeherakoa da, guraso bakarreko familien nagusitasuna ez ezik familia horien pobrezia-tasa ere desberdinak izan baitaitezke udalerrietan.

<sup>15</sup> Gutxi gorabehera, eta X-rako erabili diren nagusitasun berak erabiliz, esan liteke programak mantenu-pobreziako egoeran zeuden guraso bakarreko familien % 25 artatu zuela X-ko udalerrian.

udalerrri batekoak. 2009an, erakundeak emandako datuen arabera, 23 familia artatu ziren. Orain arte erabilitako nagusitasun-tasa berak erabiltzen badira, esan liteke egindako kalkuluen arabera mantenu-pobreziaren egoeran X-n bizi diren guraso bakarreko 1.300 familia baino gehiagoren artetik programak % 2 inguru artatu zituela.

Programa bakoitzaren estalduraren azterketari buruzko informazioa ematen duen beste datu bat da zerbitzuan parte hartzeko itxaronzerrendak daudela.

- A programaren arduradunek esan dute gaur egun zerbitzu horretan itxaronzerrendak daudela familiak programan parte hartzen hasteko. Horretaz gain, programan parte hartzeko baimena eskatzen duten eta ikastetxera bidaltzeko zerbitzuen premia ere baduten familien kasuan, programan parte hartzeko itxarote-epeak luzeagoak dira. Programaren arduradunek emandako azalpenen arabera, ikastetxeetara bidaltzeko zerbitzu hori beti ez emateko arrazoi nagusia langilerik ez izatea da. Haurrak hartzeko eta entregatzeko zerbitzu hori boluntarioek egiten dute batez ere, eta gaur egun programan ez dago behar adina pertsona kopururik zerbitzu mota hori eskatzen duten familia guztiei erantzuteko.
- C programen arduradunek adierazi dute zerbitzu horrek baduela onartuak izateko itxaronzerrenda. Ildo horretatik, adierazi dute programa horrekin lankidetzan jarduten duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek izan ditzaketela programan parte hartzeko emakume hautagaiak, baina programak gutxi iraungo duela (hiru hilabete) aurreikusten denez, eta batzuetan koordinaziorik ez dagoenez, soilik bederatzi familia artatu dira programa honetan.
- Azkenik, B programaren kasuan, A programan bezalaxe, programaren arduradunak esandakoaren arabera, ez dago itxaronzerrendarik (*“lan- eta familia-bizitza uztaizteko laguntza behar duten eta baliabide ekonomiko gutxi dituzten guraso bakarreko familia guztiak artatzen ditu programak ”*). Hala eta guztiz ere, esan behar dugu 2008an eta 2009aren zati batean, erakunde horrek ez dizkiela umezain-zerbitzuak eskaini familia interesdun guztiei. Programaren arduradunaren azalpenen arabera, zerbitzuak ez emateko arrazoi nagusia izan zen Eusko Jaurlaritzak uko egin ziola zerbitzua finantzatzeko diru-laguntzari, programak ez zuela dagokion baremoan eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortzen argudiatuz. Gaur egun erakunde horrek etxez etxeko laguntza-zerbitzu hori ematen jarraitzen du beste finantziazio-iturri batzuei esker (Udalak eta Foru Aldundia).

#### 5.4. Erabiltzaileen arreta

#### 5.4.1. Kasuen harrera

Kasuen harrerari dagokionez, aztertutako programa bakoitzaren ezaugarrien ondorioz, familien bideratze- eta harrera-prozedura desberdina da programa bakoitzean.

- A programak eta kasu gehienak bidaltzen dituen X-ko Udalak kasuen koordinazio- eta bideratze-protokolo bat landu dute. Programaren ardura duten profesionalen azalpenen arabera, protokolo hau sinatzearen azpian dagoen oinarrizko printzipioetako bat sareko lana sustatzea da (*“Ezjinbestekoa da sarean lan egitea, baliabideen bikoiztasuna saihestuta eta kasu jakin batekin lan-barremana duten gizarte-eragile guztien koordinazioa bermatuta”*). Dokumentu horren helburu nagusia da arreta koordinatua eta kalitatezkoa ematea esku hartzen den guraso bakarreko familiei, eta X-ko Udalaren –Udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Ekintza komunitarioko zerbitzuak, Haurrentzako zerbitzuak eta Laneratzeko zerbitzuak– eta A programaren artean kasuak bideratzeko modua ezartzen du. Koordinazio-protokolo horretan adierazten denez, A programaren baliabidea erabiltzeko hautagai-familia jakin bat proposatu nahi duten udaletako gizarte-langileek, baliabidea erabiltzeko proposamen-txosten bat landu behar dute, baita bertan dauden denboran egin beharreko lanerako plana ere.

Proposamen-txostena amaitu ondoren, A programan txosten sozial bat egiten da, familia jakinaren gainean jarriz eta horren onespina jaso ondoren, kasuari buruz garrantzitsua den eta, familiaren errealitatea eta ezarritako esku-hartze profesionaleko eta familia-arloko plana hobeto ulertzeko, baliabideko profesionalak jakin behar duten informazioarekin. A programak kasu bakoitzaren txosten sozial bat egiten du, gizarte-zerbitzuetatik bideratzen diren kasuetan izan ezik. Txosten sozial horrek, familia eskatzailearen datu pertsonalez eta sozioekonomikoez gain, zerbitzuen eskaera eta A programak egindako balioespina jasotzen du. Txosten hori egin aurreko pauso gisa, profesionalak telefono bidez harremanetan jartzen dira A programarekin, baliabidean plazak daudela egiaztatzeko eta kasuaren lehen aurkezpena egiteko. Prozesua arintze aldera, eta baliabidean plaza dagoela egiaztatu ondoren, kasuaren profesionalak sartzeko eguna eta esku-hartze azkarra eta eraginkorra egiteko garrantzitsuak izan daitezkeen beste alderdi batzuk finka ditzakete A programako gizarte-langilearekin, betiere txosten soziala bidali aurretik.

Bestalde, A programak zuzenean zentrorra joaten diren familiak jasotzen ditu. Proiektuaren publizitate- eta hedapen-lanak –webgune bat lantzea, esku-hartzeak komunikabideetan, zentroaren kanpo-errotulazioa, prentsan iragarkiak argitaratzea boluntarioak erakartzeko, eta abar–, Elkarrekin egin zuenak, 30 amari aukera eman zien zerbitzua ezagutzeko eta horri

buruzko informazioa eskatzeko. Kasu horietan, koordinazio- eta bideratze-protokoloaren arabera, A programaren arduradunak harremanetan jarri ziren X-ko Udaleko profesionalekin zerbitzua martxan jartzen hasteko. Kasu batzuetan, A programak familian sartzeko baldintzak betetzen zirela egiaztatu ondoren, esku-hartzeari ekin zitzaion, baita Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak bere oniritzia eman aurretik ere.

- C programan, programaren arduradunek baliabidearen berri eman zieten Elkartearen beste zerbitzu batzuetan dagoeneko elkarrekin lan egiten zuten Udalei. Programan parte hartzeko interesa adierazi zuten bi udalerrri horietan -X eta Y- lankidetzak hitzarmen bat sinatu zen Elkartearen eta udal-erakundearen artean. Bi udalerrri horietan, hitzarmena sinatu ondoren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileek, helburuei, sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideei eta umezainen lan-baldintzei buruzko lehen informazio-bilera egin ondoren, espedienteen azterlan bat egin zuten eta hautagaiak hautatu zituzten. Erabiltzaileak eta umezainak hautatu ondoren, gizarte-langileek beren hautaketaren berri eman zioten programaren koordinatzaileari, eta ama eta umezain hautagai guztiak zerbitzuan onartuak izan ziren.

Umezain-zerbitzu horrek X-ko Udaleko genero-indarkeriaren biktimentzako larrialdiko etxebizitza bateko bi erabiltzaile ere artatu zituen. Kasu horretan, harrera-zentro hori C programaren Elkartek kudeatzen zuen, eta zentroaren koordinatzailea izan zen, X-ko Udaleko gizarte-langilearen baimenarekin, bi amen eta umezain baten parte-hartzea proposatu zuena, biak larrialdiko etxebizitzako erabiltzaileak izanik. Programaren arduradunek emandako azalpenean arabera, kasu horretan, beharrezkotzat jo ez zelako, Elkartek ez zuen hitzarmenik sinatu Udalarekin, baina X-ko Udaleko gizarte-langileak beti izan zuen informazioa, eta horren ikuskapenarekin eta onepenenarekin gauzatu zen ekintza. (*“oso kasu berezia izan zen, eta elkartek etxebizitzak kudeatzeko hitzarmena udalarekin dagoeneko sinatua zuenez gero, ez zen paperik sinatu behar izan... besterik gabe, premia atzeman zen eta erantzuna eman zitzaion”*)

- B programaren kasuan, bildutako informazioak ez du zehaztasunez deskribatzen hainbat zerbitzuetako kasuak programara bideratzeko prozedura nolakoa den. Programaren arduradunak emandako azalpenen arabera, erakunde horrek Elkarteko bazkideak diren familiei eta X-ko Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Sailak, hainbat udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta irabazi-asmorik gabeko beste zerbitzu edo erakunde batzuek (Prestakuntza Fondoa, Sartu, Beroa, Cáritas, Gurutze Gorria, eta abar) bideratutako kasuei ematen die arreta.

#### 5.4.2. Programa hastea

Programaren profesionalek baliabidea familia batentzat egokia dela erabakitzen dutenean, honako hau da lanaren prozedura eta antolamendua programa bakoitzean:

- A programaren kasuan, zerbitzuko profesionalek araututako jardun-protokolo bat daukate, familia erabiltzaile bakoitzari buruzko informazioa idazki bidez jasotzen duena. Lehenik, kasua onartu ondoren, programaren ardura duen gizarte-langileak honako informazio hau jasotzen du idazki bidez fitxa sozial batean: familiaren identifikazio-datuak, harremana bestelako gizarte-zerbitzuekin, familia-egitura, lan-egoera, egoera ekonomikoa, etxebizitzarekin eta hezkuntzarekin lotutako egoera, eta adingabeen zaintzako premiak. Lehen dokumentu horrek aukera ematen dio programari egoerari eta premiei buruzko oinarritzko diagnostiko bat izateko, bai artatutako haurrari dagokionez, bai familia-unitate osoari dagokionez.

Fitxa horretaz gain, familia erabiltzaile guztiek programan parte hartzeko kontratu bat sinatu behar dute. *Sarrera eta asistentziako kontratu* horretan –bi alderdiek sinatu behar dute, hau da, ama erabiltzaileak eta programaren ardura duen gizarte-langileak–, oro har, emango diren zerbitzuak eta alderdi bakoitzak hartzen dituen konpromisoak biltzen dira. Dokumentu idatzi horretan, jasoko den zerbitzuaren intentsitatea biltzen da, hau da, adingabeek arreta jasoko duten ordutegia, baita familia bakoitzak nahitaez bete behar dituen betekizunak zein diren ere. Kontratu hori sinatzeak erabiltzaileak behartzen ditu beren egoera sozioekonomikoan, familiakoan eta bizikidetzan gertatzen diren aldaketa guztien berri ematera, behar izanez gero hartzaindegian plaza bat eskatzera, eta programak proposatzen dituen jardueretan parte hartzera. Programak ama erabiltzaileei eskatzen dien beste betebeharrak bat da haiek izan behar dutela adingabea pertsonalki zentrorera eraman eta bertan jaso behar dutenak. Hala ere, programa ez da zorrotza ildo horretan, eta onartu egiten du batzuetan amak pertsonalki joan ezin izatea eta zeregin hori beste norbaiten esku uztea. Kasu horietan, programak idazki bidezko baimen bat sinatzera behartzen du, zeregin horretaz arduratuko den pertsonaren izena, abizenak eta NAN zenbakia adieraziz. Bestalde, parte hartzeko kontratua sinatu ondoren, zentroko familia erabiltzaile guztiek dokumentu idatzi bat jasotzen dute, zentroan adingabeek izango duten arretari buruzko oinarritzko jarraibideak biltzen dituen –janaria eta aldatzeko arropa eramatea, zer egin gaixotasun baten kasuan, eta abar–.

- C programaren kasuan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek eta X-ko larrialdiko etxebizitzaren C programako Elkartearen koordinatzaileek hautatutako familia eta umezain guztiak programan onartuak izan ziren. *Umezainak* programak ez du idazki bidez informaziorik jasotzen familiaren egoera sozioekonomikoari buruz. Arduradunek emandako azalpenen arabera, familiari buruz idazki bidez informaziorik ez jasotzearen arrazoia da beharrezkotzat jotzen ez dutela, hain zuzen ere datu horiek familiak bideratzen dituzten Zerbitzuetako artxiboetan daudelako (*“asmoa zen zerbitzuaren garapenean inplikaturiko alderdi bakoitzak bere eskumenak bere gain hartzea egiten zen pauso bakoitza burokratizatu behar izanik gabe eta, horrela, profesional bakoitzaren jardura eta lana moteldu gabe... informazioa gizarte-langileek irekitako familia bakoitzaren espedientean zegoen, ez zen nabikoa izan hautatutako familien onarpena aztertzekeo gizarte-langileekin egin genituen bileretan aboz eman ziguten informazioa, ezta zerbitzuan sartzeko hautagai izan zitezkeen emakumeen eta horietako bakoitzaren egoeraren berri emateko bidaltzen zizkiguten emailak ere”). Dena den, programaren arduradunek azpimarratu dute hurrengoetarako interesgarria izango litzatekeela informazio hori idazki bidez jasotzea, eta onartutako familia bakoitzari buruzko txosten sozioekonomiko bat eskatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileei.*

A programan bezala, C programa erabiltzen duten familia guztiek programan parte hartzeko kontratu bat sinatu zuten (*“zerbitzuan hartua izateko edo egoteko konpromisoa”*). Dokumentu horretan, idazki bidez jasotzen dira programaren barruan familiaren parte-hartzeari buruzko datuak, ordutegia eta umezainak egin behar dituen zereginak, arreta jasoko duten adingabeen izena, jasotzeko lekua eta izan daitezkeen gertakarien kasuetan jarduteko jarraibide batzuk. Dokumentu horrek programan inplikaturiko alderdi guztien sinadura behar du –familia erabiltzaileak, umezainak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan familiaren ardura duen gizarte-langilea, eta C programaren koordinatzailea–, eta horren helburua da alderdien konpromisoa sustatzea eta umezainak eta ama erabiltzaileak elkar ezagutzeko aukera ematea (*“dokumentu bonen helburua da alderdi guztiak lotzea, erantzukizunak sortzea... eta hori sinatzeak, era berean, aukera eman zuen inplikaturiko alderdi guztiek elkar ezagutzera”*). Dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan kontratua sinatu ondoren, umezaina esku hartzen hasten da<sup>16</sup>.

- Azkenik, B programaren kasuan, Foru Aldundiak eta Udalek bideratzen dituzten familia guztiak zerbitzuan onartzen dituzte; kasu horietan, programak ez du idazki bidez jasotzen familia horien egoerari buruzko informaziorik. Hala ere, zuzenean Elkartera joaten diren familien kasuan, programak diru-sarreraren egiaztagiri bat, banantzearen/dibortzioaren

<sup>16</sup> Deskribatutako prozesua gorabehera, elkarrizketatutako umezainak emandako azalpenen arabera, esku-hartzeak batzuetan arreta jasoko duten haurrak alde aurretik ezagutu gabe hasten dituzte umezainek (*“leben egunean bakarrik geratu nintzen etxean haurtoarekin, eta ez ninduen ezagutzen... beste haurraren bila joan behar izan nuen eskolara eta ez nekien nolakoa zen”*).

hitzarmen arautzailea, halakorik badago, eta bizilekuko errolda- eta bizikidetzaz-ziurtagiria aurkezteko eskatzen die. Dokumentazio horren azterketan oinarrituta zerbitzuaren egokitasuna eta intentsitatea balioesten da, eta, kasu horietan ere, programak ez du idazki bidez jasotzen balioespen hori.

Beste bi programen kasuan ez bezala, B programan parte hartzeko ez da beharrezkoa aldezturik dokumentu idatzi bat sinatzea. Programaren profesionaletako batek familia programan onartu dela jakinarazten du, eta hautatutako umezaina da zuzenean familiarekin harremanetan jartzen dena. Umezainak familiaren bizilekuan egiten duen lehen bisitan, familiak ezagutu egiten du, eta zerbitzua nolakoa izango den adosten dute.

#### 5.4.3. Programen baliabideak eta jarduerak

Atal honen hasieran dagoeneko adierazi denez, A programak haurrei arreta ematen dien zentro batean oinarritutako arreta kolektiboko zerbitzu bat eskaintzen du, eta C eta B programek, aldez etxer etxeko umezain-zerbitzu indibidual bat eskaintzen dute.

- A programaren kasuan, programaren jarduera nagusia da astelehenetik larunbatera 07:00etatik 23:00etara bitarte haurrei arreta ematea. Zentrora joaten diren adingabeek zaintzaile/begiraleek antolatutako hainbat jardueratan parte hartzen dute. Haurtxoen kasuan, horien premia fisiologikoei erantzuteaz gain, estimulazio goiztiarreko jarduerak egiten dira, eta haur zaharragoekin eskolaz kanpoko laguntza-lanak eta hainbat jolas-tailer egiten dira. 2009. urteko jarduera-memorian jasotzen diren datuen arabera, A programako profesionalek 103 familia balioetsi zituzten, eta horietatik 80k zentroa erabili zuten beren haurrei arreta emateko. Programan onartuak izan ziren 80 ama horietatik, zentroak 97 haur artatu zituen guztira, hainbat ordutegitan, familia bakoitzaren premien arabera.

Programaren memoria adierazten da programak 2009an 21.652,50 zerbitzu-ordu eman zituela, eta eskaera-maila handieneko hilabeteak eskolako oporrak izaten diren hilabeteak direla (abuztua, uztaila, iraila eta abendua). Familia bakoitzak jasotzen duen baliabidearen intentsitateari dagokionez, programaren arduradunek adierazi dute zaila dela ezartzea familia bakoitzarekin egiten den esku-hartzearen batez besteko iraupena, hain zuzen ere baliabidea familia bakoitzaren premietara egokitzen delako, eta, beraz, baliabidearen erabilera kasu zehatz bakoitzaren arabera aldatzen delako.

Zentroan bertan adingabeei emandako arretaz gain, A programak haurrak egunean zehar egoten diren ikastetxeetara eramatea edo bertatik jasotzea eskaintzen die familia erabiltzaile batzuei. Zehazki, programaren jarduera-memorian adierazten da zentroko arduradunak arduratu zirela, erregulariki, ikastetxeko 36 adingabe programara eramateaz edota alderantziz. Programaren arduradunak emandako azalpenen arabera, bidaia horiek jomuga ikastetxea denean egiten dira beti, eta ez da inoiz zerbitzu hori ematen haurra aisialdiko edo astialdiko jardueretara eramateko.

Bestalde, A programak autolaguntzako talde bat dauka ama erabiltzaileentzat. Programaren arduradunak eta elkarrizketatutako hiru erabiltzaileek emandako azalpenen arabera, ama gehienak joaten dira talde horretara, hileroko egiten da eta haurtzaindegi-zerbitzua dauka. Talde horren helburu nagusiak dira ama erabiltzaileei aukera ematea laguntza informaleko sareak indartze aldera esperientziak partekatzeko, lan-eskaintzei buruzko informazioa emateko, prestakuntza-jardueri buruzkoa eta ematen diren laguntzei buruzkoa. Programaren arduradunak zaintzen du programa erabiltzen duten familia guztiek bileraren deialdia eta azken bileraren akta posta bidez jasotzen dutela.

Autolaguntzako talde horretaz gain, A programak prestakuntza-jarduerak egiten ditu zerbitzua erabiltzen duten amentzat. 2009ko jarduera-memorian jasotzen da programak lau prestakuntza-jarduera egin zituela, eta horietatik hiru ikastaro –alderdi soziojuridikoei, baliabideei eta laguntzei, amatasun arduratsuari, trebetasun sozialak sustatzeari eta haurren zaintza eta higienari buruz– X-ko Foru Aldundiaren Idazkaritza Teknikoak aldi berean finantzatu zituen. Azkenik, programako gizarte-langileak, era berean, prestazio ekonomikoak, enplegu-sustapena eta familia-bitartekotza lortzeko laguntza jasotzeko interesa duten familia erabiltzaile guztien eskaerei erantzuten die.

- C programak etxez etxeko umezain-zerbitzu bat eskaintzen du seme-alabak beren kargura dituzten eta Oinarrizko Errenta jasotzen duten guraso bakarreko familietako emakumeentzat. Kasu horretan, zerbitzuaren koordinazioa, kudeaketa eta jarraipena ez ezik Udalekiko koordinazio-lanak ere, Elkartearen plantillako abokatu batek egiten ditu nagusiki. Horretaz gain, programak Elkartek bereko hezitzaile baten lankidetzaren ere badauka. Bi pertsona horiek eman dituzten azalpenen arabera, ezin da zehaztu zeregin horietan ematen dituzten orduen kopurua, ezta zereginen eduki zehatza ere (*“programaren unean uneko premien arabera, hasieran ordu asko behar izan ziren udalen lankidetzaren, erabiltzaileen hantaketa, kontratazioa eta abar gauzatzeko, eta, gero, pixka bat gutxiago izan ziren kasu bakoitzaren jarraipenean, kontratazioen bileren kudeaketan, eta abar... ezin izango nuke ordu kopurua zehaztu”*).



Programak ematen dituen etxez etxeko arreta-zerbitzuei dagokienez, zerbitzuaren intentsitatea familia bakoitzaren premien mende dago nagusiki. Oro har, umezainak goizeko lehen orduan joaten dira familiaren bizilekura (07:00etatik aurrera, amaren ordutegiaren arabera), eta hurrei arreta ematen diete eta ikastetxera laguntzen diete. Arratsaldetan, haurrak jasotzen dituzte eskolan eta parkean eta/edo etxean zaintzen dituzte ama lanetik edo une horretan egiten ari den prestakuntza-ikastaroetatik itzultzen den arte. Programaren arduradunek emandako azalpenen arabera, ez dago ezarritako protokolorik esku-hartze bakoitzaren jarraipena egiteko, eta ez da idazki bidez jasotzen kasu bakoitzaren bilakaera. Hala ere, programaren arduradunek, esku-hartzearen garapenari buruzko informazioa biltze aldera, telefonoz hitz egiten dute aldizka familia erabiltzaileekin, umezainekin eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileekin. Programaren arduradunen arabera, kasu bakoitzari buruz informazio kopuru handiena duen profesionala Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte-langilea da (*“hori baita benetan familiak hautatzeko eta jarraipena egiteko lan guztia egiten duena”*). Umezainak, bestalde, hilean behin joaten dira Elkartearen bulegoetara nomina eta soldata jasotzera, eta bisita horietan arduradunek kasu bakoitzaren bilakaeraren berri izaten dute.

- C programan bezala, B programa etxez etxeko umezain-zerbitzu gisa definitzen da, hurrei beharrezko arreta ematen diena, eskola-ordutegietatik kanpo eta eskolako oporraldietan, hain zuzen ere aldi horietan ere familiei laguntza ematen jarraitzen zaiela bermatu behar baita. Umezain-zerbitzu hori normalean astean zehar ematen da 07:00etatik 23:00etara bitarte. Hala ere, batzuetan, umezain-zerbitzuak eman dira larunbatetan 10:00etatik 14:00etara bitarte. Programaren arduradunak emandako azalpenen arabera, zerbitzua familia bakoitzaren premia espezifikoetara egokitzen da, eta zerbitzuaren intentsitatea kasu zehatz bakoitzarekin aldatzen da (*“kasu batzuetan, umezaina soilik 45 minutu joaten da goizetan hilabete askotan, eta beste kasu batzuetan, ordu asko egiten dituzte denbora-tarte oso laburrean... hilabeteko iraupena duten prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen duten amen kasuan, ezinezkoa da haurtzaindegi publikoan plaza bat lortzea, eta prestatu ahal izateko aukera bakarra umezain-zerbitzuak ematen du”*). C programan bezala, programa horretako arduradunek esku-hartzearen garapenaren berri izaten dute, umezainekin nomina kobratzeko Elkartearen bulegoetan egiten dituzten bisitei esker eta erabiltzaileekin telefono bidez hitz eginez.

Etxez etxeko umezain-zerbitzuaz gain, B programak 2007an doako haurtzaindegi-zerbitzu bat eman zuen ekaineko azken astean eta uztaila osoan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 17:00etara bitarte. Haurtzaindegi-zerbitzu horretan jolas-jarduerak, eskulan-tailerrak, jangela-zerbitzua eta irteerak garatu ziren. 2007ko jarduera-memorian jasotzen denez, adingabeak itzuli eta jasotzea, kasu batzuetan, gurasoek egin zuten, eta, beste kasu batzuetan, familia bakoitzari esleitutako umezainak izan ziren zeregin hori egin zutenak. Haurtzaindegi-zerbitzu

horretan, programak 27 haur artatu zituen guztira. Haur horietatik, gehienez ere 17ri eman zitzaien arreta aldi berean, eta gutxienez 5i. Elkarrizketatutako arduradunek, umezain batek eta ama erabiltzaile batek emandako azalpenen arabera, haurtzaindegi-zerbitzu hori bi umezainek/zaintzailek zaindu zuten, eta, une jakin batzuetan, hala nola jangela-zerbitzua emateko, beste bi pertsonaren laguntza izan zuten. Bestalde, B programak, era berean, umezain-zerbitzu bat eskaini zuen 2007an AUZOLANen eta Prestakuntza Fondoaren hainbat prestakuntza-ikastarotan parte hartzen zuten emakumeentzat.

Azkenik, programa horrek, era berean, lege-arloko asistentzia edo asistentzia juridikoa eta prestazio ekonomikoak eta beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa lortzeko laguntza eskaini die interesa duten familiei.

#### 5.4.4. Arretaren indibidualizazioa

Jasotako datuen arabera, esan daiteke aztertutako hiru programek arretaren indibidualizazio-maila handia eskaintzen dutela, hain zuzen ere esku-hartzea artatutako familia bakoitzaren premia espezifikoen arabera diseinatzen delako. Horren ildotik, une bakoitzean familia bakoitzaren premietara egokitzen diren programak dira, eta horien oinarritzko elementuak –zerbitzuaren intentsitatea, parte hartzeko baldintzak, eta abar– kasu zehatz bakoitzaren arabera adosten dira, betiere, logikoa denez, ezarritako oinarritzko antolamendu-esparruaren barruan.

- A programaren kasuan, profesionalek idazki bidezko informazioa dute –fitxa soziala, txosten soziala, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek edo programak berak egindako lanerako plan indibidualizatua, eta programan sartzeko eta egoteko kontratua–, familia bakoitzarentzat arreta pertsonalizatua bermatuz. Horretaz gain, programaren malgutasunak aukera ematen die familia erabiltzaile batzuei lan-jarduerarik gabeko aldietan parte-hartzea eteteko eta programan berriz ere parte hartzen hasteko beren egoera pertsonalaren eta lan-egoeraren arabera.
- Era berean, C programak ematen duen zerbitzua familia bakoitzaren egoerara egokitzen saiatzen da, eta alderdi guztiek sinatzen duten kontratuan kasu bakoitzaren baldintza zehatzak adierazten dira. Baliabidea denboran zehar egokitzeari dagokionez, arduradunek emandako azalpenen arabera, programaren iraupenak eta familia erabiltzaileen egoera pertsonalak ez zuten inoiz behartu hasiera batean diseinatutako esku hartzeko plana egokitzea.
- B programak ere arreta pertsonalizatua ematen du, eta esku-hartzeak familia bakoitzaren premiei erantzuten die (*“arreta pertsonalizatua izateak aukera ematen du txandaka lan egiten duten pertsonak beren seme-alaben zaintza bermatzeko zerbitzu bat izateko... pertsona horien lan-baldintzak direla eta, premiak astero desberdinak dira, eta arreta egokia bermatzeko modu bakarra da zerbitzua malgua izatea eta horien premiei egokitzea”*). Gainera, elkarrizketatutako ama erabiltzaileek emandako informazioaren arabera, programa horrek ere aukera ematen die familia erabiltzaileei beren parte-hartzea eteteko eta berriz ere hasteko une bakoitzeko egoera pertsonalaren arabera.

#### 5.4.5. Erreferentziazko profesionala

Programen barne-antolamenduarekin lotutako beste alderdi batzuen kasuan bezala, erreferentziazko profesionalaren ezaugarriak zerbitzu bakoitzean desberdinak dira. Nolanahi ere, hiru zerbitzuetan gertatzen da erreferentziazko profesionalak normalean ez direla zuzeneko arretaz arduratzen, hain zuzen ere programaren kudeaketaz arduratutako profesionalak arduratzen direlako.

- A programaren kasuan, familia erabiltzaile guztiek dute erreferentziazko figura argi bat, eta berbera da familia guztientzat. Programa koordinatzen duen gizarte-langilea da, eta erreferentzia gisa jarduten du programaren erabiltzaileentzat nahiz beste zerbitzu batzuetako eta programako profesionalentzat.
- C programan, koordinazio-lanak egiten dituen abokatua eta hezitzailea dira familia erabiltzaileentzako erreferentziazko bi figurak. Hala ere, bi profesional horiek eta elkarriketatutako amak emandako azalpenen arabera, praktikan familia erabiltzaileentzako erreferentziazko figurak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileak dira (*“horiek dira benetako erreferentziazko figurak... pertsona horiek dira programaren erabiltzaileetatik gertuen dagoen baliabidea, hain zuzen ere izan daitezkeen gertakariak lehenago konpon ditzaketelako”*). Horren ildotik, programa horren memorian honako hau adierazten da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileei dagokienez: *“Profesional horiek izan dira umezain gisa lan egiteko hautagaien, programaren zuzeneko hartzaileak eta guraso bakarreko etxekoan unitateetako titularrak diren amen, eta Elkarteko erreferentziazko profesionalen arteko baliozko bizketakideak”*.
- B programaren jarduera-memorian adierazten da Elkarteko gizarte-langilea izan zela familia erabiltzaileentzako erreferentziazko figura. Hala ere, programaren arduradunek eta elkarriketatutako erabiltzaileek ematen duten informazioak ez du balio datu hori egiaztatzeko. Horien azalpenen arabera, ez dago erreferentziazko profesional bakar bat, Elkartean lan egiten duten profesional guztiak baitira familia erabiltzaileentzako erreferentziazko figurak (*“telefonoz deitzen zenuenean, denek zekiten zure kasua eta edonork lagun ziezazukeen”*).

#### 5.4.6. Familiek jasotzen duten Feedbacka

Haurrek programan egiten duten parte-hartzeari buruz familiek jasotzen duten informazioari dagokionez, haurrentzat eguna nola joan den adierazten duen eguneroko *feedback*aren eta programako helburuen betetze-mailari buruzko informazioaren artean bereizi behar da.

- Lehenik, aztertutako hiru programetan, haurren zaintzaz arduratzen diren umezainek eta zaintzaile/begiraleek honako alderdi hauei buruzko informazioa ematen diete familiei egunero: adingabearen premia fisikoen (janaria, loa, eta abar) betetze-maila, horren gogoaldarte, jardueretan izan duen parte-hartzea eta besteekiko interakzioa. Informazio hori ez da inoiz idazki bidez jasotzen, eta informazioaren *feedback*a hiru programetan egiten da, profesionalek nahiz zerbitzuaren erabiltzaileek eskatuta.
- Programan parte hartzeagatik lortzen diren helburuei buruz familiek jasotzen duten informazioari dagokionez, aztertutako hiru programetako batek ere ez du idazki bidezko informaziorik ematen. A programaren kasu zehatzean, programaren koordinatzaileak/gizarte-langileak jasotzen du informazioa idazki bidez kasuaren bilakaerari buruz eta esku-hartzea nola eta zergatik amaitu den azalduz, informazio hori familiei helarazten ez zaien arren. Hori gorabehera, hiru programetako arduradunek bat egin dute adieraztean programak prozesu osoan egiten duen jarraipenak –zentroan bertan A programan eta telefono bidez B eta C programetan– eta amekin ezartzen den komunikazioak aukera ematen diela erabiltzaileei beren kasuaren bilakaera nola doan une oro jakiteko.

#### 5.4.7. Erabiltzaileen eta programaren arteko harremana

Programa bakoitzeko profesionalekin eta familia erabiltzaileekin egindako elkarrizketetan lortutako informazioak aukera ematen du esateko ama erabiltzaileen eta programaren artean ezartzen den harremana positiboa dela.

- A programaren kasuan, haurtzaindegiko eta ludotekako zerbitzua erabiltzen duten amak, normalean, pertsonalki joaten dira zentrorra beren seme-alabak eramatera edo jasotzera, eta, beraz, zentroan lan egiten duten profesionalekin harremana ohikoa da. Elkarrizketatutako ama erabiltzaileen iritzien arabera, familien eta programaren arteko harremana hurbila eta ona da.

- C programaren kasuan, umezainaren eta elkarrizketatutako amaren iritziaren arabera, horien artean ezartzen den harremana oso estua da, hain zuzen ere harremana egunerokoa delako eta familiaren bizilekuan egiten delako. Hala ere, familiek programako arduradunekin ezartzen duten harremana ez da hain hurbila, hain zuzen ere telefono bidezko harremanetara mugatzen delako, eta, elkarrizketatutako ama erabiltzaileak emandako azalpenen arabera, ez da oso ohikoa. Programaren arduradunek emandako informazioaren arabera, oso harreman urria dute familia erabiltzaileekin, hain zuzen ere erreferentziako profesionala, kasu guztietan, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan kasuaren ardura duen gizarte-langilea izan delako nagusiki.
- B programaren erabiltzaileen eta programaren arteko harremanari buruz jasotako informazioak aukera ematen du adierazteko, oro har, programarekin ezartzen den harremana ona dela. Elkarrizketatutako hiru ama erabiltzaileetako bik adierazi dute programaren arduradunekin duten harremana oso hurbilekoa dela; hala ere, elkarrizketatutako hirugarren erabiltzaileak baieztatu du programarekin duen harremana egokia dela, baina beti ama erabiltzailearen ekimenez.

#### 5.4.8. Erabiltzaileen arteko harremana

Programaren familia erabiltzaileen artean ezartzen den harremana desberdina da aztertutako hiru zerbitzuetan.

- A programaren kasuan, programaren helburuetako bat da familiek elkar ezagutzea eta elkarri laguntza ematea, eta, horretarako, funtsezkoak dira autolaguntzako taldearen hileko bilerak. Horretaz gain, erabiltzaileen arteko harremana sustatzeko helburuarekin, lehen jardueretako bat izan zen taldean parte hartzen zuten ama guztien telefono-zenbakiekin zerrenda bat ematea. Ama erabiltzaile batek emandako azalpenen arabera, talde horretan parte hartzeak aukera eman dio beste erabiltzaile baten laguna egiteko, eta noizbait elkarri lagundu diote beste erabiltzailearen haurrak zainduz.
- C programaren helburuen artean ez da biltzen familia erabiltzaileek elkarren artean harremanak izatea, eta, beraz, programak ez du espezifikoki familia onuradunen artean inolako harreman motarik sustatzen.

- B programaren Elkartek aisialdiko jarduera batzuk antolatzen ditu –txangoak, afariak, eta abar– elkarteko pertsona guztientzat, eta horren helburu nagusia familien artean gizarte-laguntza sustatzea da. Programaren arduradunak emandako azalpenen arabera, jarduera horien emaitza ona da, hain zuzen ere aukera ematen dielako ama batzuei elkarren artean ezagutzeko eta antzeko egoeran dauden beste familia batzuen laguntza izateko. Hala ere, familia erabiltzaileei buruz jasotako informazioak ez du balio alderdi hori egiaztatzeko, hain zuzen ere elkarrizketatutako hiru ama erabiltzaileetako batek ere ez duelako parte hartu aisialdiko eta astialdiko jarduera horietan.

#### 5.4.9. Koordinazioa beste zerbitzu batzuekin

Zona bakoitzeko sare komunitarioa osatzen duten gainerako zerbitzuekiko koordinazioari dagokionez, programa bakoitzak jarduteko hainbat jarraibide ditu.

- A programaren kasuan, hainbat zerbitzu publikorekin koordinatzen da, baita irabazi-asmorik gabeko erakundeekin ere, hala nola Elikagaien Bankuarekin, Cáritasekin, Gurutze Gorriarekin eta Elkarte Afroamerikarrarekin, etab. Programa horrek garatzen duen koordinazio-lan nagusia Udaleko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuekin egiten duena da. Arestian deskribatutako bideratze-protokoloan jasotzen denez, koordinazioa seihileko bileren bitartez eta telefono bidez egiten da, diseinatutako esku hartzeko plana aldatu behar den kasuetan (esku-hartzeko epeak luzatu edo aldatzea, eta zerbitzuan baja hartzea, etab.).

Era berean, A programa SARTU erakundearekin egindako lankidetzahitzarmen baten bitartez ere koordinatzen da. Erakunde horrek bazterkeriako arrisku-egoeran dauden pertsonak laneratzeko lan egiten du, orientazioa eta prestakuntza emanez. Arduradunak emandako azalpenen arabera, A programan artatutako familia askok parte hartzen dute prestakuntza-programa horietan. A programaren ardura duen gizarte-langileak komunikazio bizia eta ohikoa duen eta telefono bidez koordinatzen den beste zerbitzu batzuk dira Udaleko emakumeen harrera-zentroa, Afro Elkarteko zentroa, X-ko Foru Aldundiaren haurdun dauden emakumeentzako zentroa, eta Y-ko Udaleko Bidatu programaren zentroa.

- C programak, nagusiki, koordinazio-lanak egiten ditu lan egiten duen udalerrietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuekin. X-ko eta Y-ko udalek lankidetzahitzarmen bat dute sinatua C programaren Elkartearekin. Bertan zehazten da modu estuan eta aktiboan lan

egingo dutela elkarrekin programaren garapenean. Programaren arduradunek emandako azalpenen arabera, udalerrri horietako gizarte-langileekin telefono bidezko harremana estua da eta komunikazioa etengabea eta bizia. Programa horrek, era berean, koordinazio-lanak egiten ditu genero-indarkeriako biktimentzako larrialdiko etxebizitza baten arduradunekin, betiere kontuan hartuta etxebizitza horretako bi erabiltzailek programan parte hartzen dutela. Etxebizitza hori Elkartek berak kudeatzen du, eta, Umezain-programa horren arduradunek azaldu dutenez, zerbitzuen arteko informazio-trukea etengabea da.

- B programan, programaren arduradunek emandako azalpenen arabera, aldizkako lan-saioak egiten dira erabiltzaileen laneratze-prozesuan esku hartzen duten hainbat profesionalekin eta gizarte-eragileekin –Foru Aldundiaren AUZOLAN elkartearen gizarteratzeko eta laneratzeoko programa, eta abar–. Programak emandako informazioak ez du balio jakiteko zehazki zein maiztasunarekin egiten diren bilera horiek eta zein diren Elkartearekin koordinatzen diren zerbitzu guztiak.

## 5.5. Giza baliabideak eta baliabide materialak

### 5.5.1. Langileez hornitzea

Programaren ezaugarri espezifikoak –haurrak zentro batean zaintzea, edo etxeko umezainak–, artatutako pertsonen kopurua eta Elkartearen aurrekontu-zuzkidura dira programa bakoitzak dituen profesionalen kopurua eta profila desberdina izateko arrazoiak.

A programak plantilla egonkorra izan du martxan jarri zenetik. Zehazki, programaren plantilla honela dago osatuta:

- Gizarte-langile bat, osasun publikoan espezializatua, lanaldi osoan kontratatua; programa koordinatzen duen profesionala da. Pertsona horrek A programaren zentroan dauka bere lanpostua, eta erreferentziatzeko profesionala da familia erabiltzaileentzat nahiz A programaren plantillarentzat.
- Lau begirale/hezitzaile, lanaldi osoan kontratatuak, haurrei zuzeneko arreta emateko zentroan. Arduradunen azalpenen arabera, udako eskola-oporretan zerbitzuaren eskaer-maila handia dela eta, programak laguntzeko beste pertsona bat kontratatzen du hiru asteko aldian.



- Administrazio-lanak egiten dituen pertsona bat, lanaldi osoko kontratuarekin; bere lanpostua A programaren zentroan dago.
- A programak, era berean, Gizarte Laneko eta Gizarte Integrazioko Eskolako praktiketako pertsonen lankidetzak dauka.

C programan honako hauek daude:

- Elkartearen plantillako abokatu bat, umezain-zerbitzuaren kudeaketa ekonomikoko, koordinazioko eta jarraipeneko lanak egiten dituena.
- Gizarte-hezitzaile bat, lehen laguntzen oinarriko praktiketako prestakuntza eta lanaren kulturaren kontzientziak eta sustapeneko tailerretan gauzatzen diren funtzio didaktikoak egiten dituena.
- Artatutako adingabeak zaintzeko lanak egiten dituzten zortzi umezain. Umezainak X-ko eta Y-ko udalerrietako Oinarriko Errenta jasotzen duten emakumeak dira. Pertsona horiek adingabeak lagundu eta zaintzeko zereginak egin zituzten bakarrik (eskolara eramatea eta jasotzea, parkean egotea, egunero zaintzea Gabonetako oporretan, eta abar), eta horien lana ez zen inola ere izan etxeko zereginak edo adingabeak zaintzea gainditzen duen bestelako zereginak egitea.
- Azkenik, programa horren memorian adierazten da Oinarriko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileak ere programaren plantillaren barruan daudela. Memorian ematen den informazioaren eta elkarrizketatutako profesionalen azalpenen arabera, Oinarriko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileak izan ziren, Elkartek ezarritako irizpideen arabera, zerbitzuan parte hartzeko baldintzak betetzen zituzten pertsonak hautatzeaz arduratu zirenak eta lanaren zati handiena egiten dutenak beste zerbitzu batzuekiko koordinazioan eta esku-hartze bakoitzaren jarraipenean.

B programan honako hauek daude:

- Denbora partzalean (egunean 5 ordu) kontratatutako bi pertsona, administrazio-lanak egiteko. Profesional horietako bat programaren ardura duen abokatua da.

- Denbora partzalean (egunean 5 ordu) kontratatutako gizarte-langile bat. Jardueramemorian adierazten denez, programaren koordinazio-lanak egiteaz, harremana mantentzeaz eta familia erabiltzaile guztien jarraipena egiteaz arduratzen den profesionala da. Hala ere, programaren arduradunari eta hiru erabiltzaileei egindako elkarrizketetan bildutako informazioak ez du balio gizarte-langile horrek zeregin horiek egiten dituela egiaztatzeko, hain zuzen ere elkarrizketatutako pertsona guztiek baieztatzen baitute programaren arduradun nagusia administrazio-lanak egiten dituen abokatua dela.
- 2007an, programak 167 umezainen lankidetzatza izan zuen. Gaur egun, erakundearen barne-arazo batzuen ondorioz artatutako pertsonen kopurua ere murriztu ondoren, erabilgarri dauden *umezainen* kopurua 21 da, eta horietako batzuk familia bati baino gehiagori ematen diete zerbitzua aldi berean.

#### 5.5.2. Plantilla hautatzea

Langileak hautatzeko prozesuak nahiz kontratatutako profesionalen profilak desberdinak dira hiru programetan:

- A programaren kasuan, langile guztiak programaren hasieran kontratatu ziren, betiere egiteko aurreikusiak zituzten zereginari jarraiki. Langileen hautaketa –gizarte-langileak, hezitzaileak eta administrariak– Elkarteko arduradunek egin zuten, eta, emandako informazioaren arabera, plantilla osoaren profila lanpostu bakoitzari egokitzen zaio.
- C programan, Elkarteko profesionalak –abokatu bat eta hezitzaile bat– dagoeneko Elkartearen plantillakoak ziren alde aurretik. Bestalde, kontratatutako umezainen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileek hautatu zituzten, emakume horiei laneratzeko aukera bat emate aldera. Programaren arduradunek emandako azalpenen arabera, umezainak hautatzeko erabilitako hautaketa-irizpideak honako hauek izan ziren: emakumea izatea, Oinarrizko Errenta jasotzea, eta haurren zaintzaren arloan esperientzia izatea (“*adingabeen zaintzaren arloko jakintzak izatea... zortzi umezainak dagoeneko ama ziren*”).
- 2007. urtean, B programak, alde batetik, Elkartearen bulegoetan lan egiten duten hiru pertsona ditu, egiten duten lanarekin bat datorren prestakuntzarekin. Horretaz gain, haurrak familien bizilekuan zaintzeko lanak egiten dituzten umezainen lan-poltsa bat dauka programak. Lan-poltsa hori osatzen duten umezainak haurren zaintzaren arloko esperientzia duten eta hainbat bidetatik Elkartera joaten diren emakume guztiak dira: lan

bila zuzenean programara joaten diren emakumeak, lana eskatzen duten Elkarteko bazkideak, laneratzeko programetan parte hartzen duten eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek bideratu dituzten pertsonak, Elkartek unibertsitatera bidaltzen duen enplegu-eskaintzako iragarki baten ondorioz programara joaten diren unibertsitateko ikasleak, etab.

### *5.5.3. Lan-baldintzak eta eginkizunen ezaugarriak*

#### *5.5.3.1. Ordutegiak*

Aztertutako hiru programetan elkarrizketatutako profesionaletako batek ere ez du kexarik edo eragozpenik adierazi egiten dituzten lan-ordutegiei dagokienez. Nolanahi ere, ordutegi horiek arestian adierazi dugunarekin bat datoz.

- A programan, programaren ardura duen profesionalak nahiz begirale/hezitzaileek 37,5 orduko batez besteko lanaldia egiten dute astean. Gizarte-langileak eta administrazioako zereginenez arduratzen den pertsonak lanaldi jarraituko ordutegian lan egiten dute, eta begirale/hezitzaileek –zentroa astelehenetik larunbatera 07:00etatik 23:00etara bitarte irekita dagoela aintzat hartuta– txandakako lan-ordutegia dute. Elkarrizketatutako profesional guztiek adierazi dute ados daudela beren lan-ordutegiarekin.
- Etxez etxeko arreta-programen kasuan, esku-hartzearen intentsitatea familia erabiltzaile bakoitzaren premien arabera aldatzen da, eta, beraz, umezain bakoitzaren ordu kopurua eta ordutegia desberdina da eta artatutako familiaren arabera aldatzen da. Txosten hau egiteko lortutako datuetatik –datuak eskatzeko fitxetatik eta egindako elkarrizketetatik– ondorioztatzen da C programako umezain batek 20,2 ordu lan egiten dituela astean batez beste, eta B programako umezain batek, aldiz, 14 ordu batez beste. Elkarrizketatutako lau umezainek adierazi dute beren lanaldia handituko luketela, hain zuzen ere lan egiten duten edo lan egin duten familia gehienetan ordu gutxiko zeregina egiten dutelako, eta beste zeregin batzuekin batera dezakete.

#### *5.5.3.2. Prestakuntza*

Etengabeko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, egoera desberdina da aztertutako programa bakoitzean:

- A programak etengabeko prestakuntzako programa bat eskaintzen du bere profesionalentzat. Alde batetik, programa martxan jarri zenean, begirale/zaintzaile guztiek haurren zaintzari buruzko ikastaro bat jaso zuten. Bestetik, zentroan bertan administrazio-zereginak egiten dituen profesionalak kontabilitateari buruzko prestakuntza-ikastaro bat egiten du modu telematikoan.
- C programak ez dauka profesionalentzako etengabeko prestakuntzako programarik. Hala ere, programaren memorian jasotzen den informazioaren arabera, eta Elkarteko hezitzaileak emandako azalpenen arabera, programaren hasieran lehen laguntzei buruzko prestakuntza-ikastaro bat egin zen. Ikastaroa programako hezitzaileak eman zien zortzi umezainei (*“ikastaro txiki bat izan zen, eta horren helburu bakarra izan zen umezainei irakastea larrialdi-kasu batean zeregin egin behar zuten... funtsean 112 zenbakira deitzea”*).
- B programak ez dauka umezaintzako prestakuntza-programarik, ezta Elkarteko profesionalentzat ere.

### 5.5.3.3. Lan-karga

Programen ezaugarri desberdinen ondorioz, programa bakoitzaren lan-karga oso desberdina da.

- A programaren kasuan, elkarrizketatutako profesional guztiek –programaren arduraduna, administrariak, eta zaintzaile/hezitzailea– adierazi dute aurre egin behar duten zailtasun nagusia lan-gainkarga dela. Plantilla osoaren iritziak, lan-gainkarga horren arrazoiak dira zentrorra arratsaldez joaten diren haurren kopurua eta haurrentzat ezarritako adin-tarte zabala (0-16 urte). Jarduera-memorian aurkezten diren datuekin bat etorritik, programak 20 haur artatzen ditu zentroan ordu-tarte bakoitzeko; hala ere, elkarrizketatutako profesionaletako batek adierazi du arratsaldetan eta larunbatetan egun berean 34 haur izatera iritsi direla. Kasu horietan boluntarioen laguntza behar izan da, baita haurrak zaintzeko zereginetan beren borondatez laguntzen duten ama erabiltzaile batzuen laguntza ere. Artatutako adingabeen urteen aldeak ere zailtasun batzuk suposatzen ditu, hain zuzen ere haurtxoek eskatzen duten arretaren intentsitatea ez delako bateragarria gainerako haur zaharragoekin behar den arretarekin eta jarduera askoren garapenarekin. Horren ildotik, programaren arduradunek adierazi dutenez, adingabeen arreta egokia izateko, lanaldi osoan kontratatutako beste bi pertsona beharko lirateke begirale/zaintzaile lana egiteko.

- C programaren kasua guztiz desberdina da. Alde batetik, elkarrizketatutako Elkarteko profesionalek ez dute adierazi lan-gainkargarik izan dutenik, eta, umezainen kasuan ere, lan-karga ez zen handia izan, hain zuzen ere umezain bakoitzak familia bakar bat artatu zuelako. Programaren arduradunek aipatzen duten zailtasun nagusia eta bakarra da zerbitzua martxan jartzeko denbora gutxi izan zutela; izan ere, abuztuan jakin zuten Eusko Jaurlaritzaren finantziarioa jaso zutela, eta abenduan jarduerak dagoeneko amaituta egon behar zuten.
- B programaren arduradunak emandako azalpenen arabera, programako profesionalek ere ez dute lan-gainkargarik izan. Programaren arduradunak adierazi du artatutako familia gehienetan umezain-zerbitzua ordutegi berean ematen dela –goizeko lehen orduan adingabeak zaindu eta ikastetxeetara eramateko, eta arratsaldeko ordutegian adingabeak eskolan jasotzeko eta gurasoak iritsi arte zaintzeko–, baina horrek ez dakar arazorik, hain zuzen ere programak beti duelako umezain kopuru nahikoa baliagarri.

#### 5.5.4. Langile boluntarioak

Hiru programetatik, A programa da boluntarioen laguntza duen bakarra, hain zuzen ere zazpi boluntariok parte hartzen baitute modu egonkorrean. Pertsona horiek haurrak zerbitzutik ikastetxeetara eramateko eta alderantzizko betekizuna dute esleitua. Asteaz bidez beste bi ordu laguntzen dute programan, eta horien lankidetzak baldintzek boluntarioei buruzko Legearen betekizunak betetzen dituzte, eta, gainera, aseguru bat dute.

Pertsona horien lankidetzari dagokionez, programaren arduradunak adierazi dute boluntario baliagarrien kopurua txikitu egiten dela denboran zehar, eta, beraz, adingabeak ikastetxeetara eramateko esleitua duten zeregina nabarmen muga daiteke.

#### 5.5.5. Ekipamendua eta azpiegiturak

Hiru programetatik, A programa da programaren onuradunak diren haurrak zaintzeko zentro bat duen bakarra. Zerbitzua 200 m<sup>2</sup>-ko lokal batean ematen da, X-ko erdigunean, eta honela dago banatuta:

- harrera-lekua, familien harrerarako eta adingabeak sartzeko,
- bulegoa, jendea artatzeko eta koordinaziorako,

- haurrentzako egongela jolasguneekin eta gune mugatuekin jolas heuristikoentzat, adierazpenezko jolasentzat, garapen psikomotorearentzat eta marrazteko gunearekin,
- siestarako/atseten hartzeko gela koltxoiekin ekipatua,
- ikasteko/egoteko gela helduentzat (bi guneetan banandua, ikasketako eta aisialdiko jarduerak egiteko),
- office bat hozkailuarekin eta hainbat mikrouhin-laberekin, bilera-gela (ikasteko gune gisa erabiltzeko aukerarekin), eta
- egokitutako bi bainugela (bietako batek haurtxoak aldatzekoa dauka).

Zentroan egindako azterketa-bisitaldiak aukera eman du egiaztatzeko lokalaren dimentsioak egokiak direla ordu-tarte bakoitzeko 20 haur zaintzeko, programaren jarduera-memorian jasotzen denari jarraiki, eta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak ezartzen dituen segurtasun- eta osasun-baldintzak betetzen dituela. Lokalaz gain, zerbitzuak altzari eta ekipamendu nahikoak ditu –ekipo informatikoak Internetarako konexioarekin, haur eta gazteentzako jokoak eta material didaktikoa, telebista, DVD erreproduzigailua, bideo-jokoen makina, eta abar–.

Bestalde, C eta B ethez etxeko arreta-programek ez dute haurrentzako arreta-zentrorik, hain zuzen ere umezain-zerbitzua familien bizilekuan ematen delako. Bi elkarteetako profesionalek bulego bat daukate, umezainak edo ama erabiltzaileak eskatuz gero, intimitatea eta pribatutasuna bermatzen duen langela batekin. B programaren Elkartearen kasu zehatzean, duela gutxi bulegoa lekuz aldatu dute, eta azterketa-bisitaldia egin zenean profesionalak bulegoa egokitzeko prozesuan zeuden.

## 5.6. Zerbitzuaren ebaluazioa eta eraginkortasun ekonomikoa

Epigrafe honetan, esku hartzeko prozesua eta horren emaitzak ebaluatzeko programa bakoitzean erabilitako sistema aztertzen da, baita –egindako gastuaren, emandako zerbitzuaren intentsitatearen eta artatutako pertsona kopuruaren arabera– aztertutako hiru zerbitzuei esleia dakiekeen eraginkortasun ekonomikoa ere.

### 5.6.1. Prozesuaren ebaluazioa

Programa bakoitzean eskuragarri dagoen informazioa jasotzeko metodoa eta kantitatea honako hau da:

- A programaren kasuan, horren arduradunen arabera, erabiltzailearen, programaren eta beste zerbitzu batzuetako profesionalen arteko komunikazio biziak eta koordinazioak aukera ematen du kasu bakoitzaren etengabeko bilakaera ezagutzeko, baita esku-hartzea familiak une bakoitzean dituen premietara nola egokitzen den jakiteko ere. Arduradun nagusiaren azalpenen arabera, kasu zehatz bakoitzean, familia bakoitzaren lanerako plan espezifikoak esku-hartzearen bilakaerari buruzko datuak jasotzen ditu, eta, beharrezkotzat jotzen den kasuetan, familia erabiltzailearen premia berrietara egokitzen da. Horren ildotik, eta beharrezkoa izanez gero, ikastaroan parte hartzeko kontratuaren klausulak aldatzen dira. Programaren ardura duen gizarte-langilea da esku-hartzearen hasieran ezarritako helburuen lorpena balioestez eta, beharrezkoa izanez gero, baliabidea egokitzeaz arduratzen den profesionala.
- C programaren kasuan, programaren arduradunek ez dute prozesuaren ebaluazio bat egiteko behar adina datu jasotzen. Programaren ardura duen koordinatzaileak emandako jarraibideen arabera, kasu bakoitzaren bilakaerari buruz eta helburuen betetze-mailari buruz informazio gehien duten profesionalak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileak dira. Idazki bidez jaso ez bada ere, programaren arduradunek adierazi dute familia bakoitzaren bilakaeraren berri izan zutela, erreferentziatzko gizarte-langileek ematen zituzten informazioen bitartez, hain zuzen ere horiek baitziren familia horien jarraipena egiten zutenak eta zerbitzua ongi erabiltzen zutela egiaztatzen zutenak. Elkartearen zeregina izan zen nagusiki umezainen jarraipen zorrotza egitea eta lanaren garapenean egon zitekeen edozein gertakari albait lasterren konpontzea (oporrak, bajak, eta abar). Elkartek adierazi duenez, hurrengo aldiatarako interesgarria izango litzateke familia bakoitzean egindako aurrerapenen txosten bat eskatzea eta idazki bidez jasotzea, izaera pertsonaleko datuen babesa kontuan hartuta.
- Arduradunak emandako azalpenen arabera, B programan, esku-hartze bakoitzaren bilakaerari buruzko informazioa Elkartek familia erabiltzaileekin eta umezainekin duen telefono bidezko harremanaren bitartez jasotzen da. 2007. urtean, zerbitzuen idazki bidezko jarraipena, erregistroen eta fitxen bitartez, zerbitzu guztiak koordinatzen zituen gizarte-langileak egin zuen –bideratze-eragileak, familia erabiltzaileak eta umezainak–. Beharrezkotzat jo zen kasuetan, esku hartzeko plana familiaren egoera berrira egokitu zen berriro.

### 5.6.2. Emaizzen ebaluazioa

Emaitzen ebaluazioari dagokionez, honako datu hauek azpimarratu behar dira:

- Programaren arduradunek emandako azalpenen arabera, eta urte amaierako memorian jasotako datuei jarraiki, A programa eraginkorra dela esan daiteke, hain zuzen ere familia bakoitzarekin hasieran ezartzen dituen helburuak lortzen dituelako. Kasuen % 62,5etan (50 familia), programak aukera eman die ama erabiltzaileei lan- eta familia-bizitza uztartzeko. Ama talde horren barruan, % 62k bere lanpostuari atxikitzea lortu du, % 28 lan-merkatuan sartu da, eta kasuen % 10etan, programan parte hartzeak aukera ematen die erabiltzaileei beren lanpostua hobetzeko.

Bestalde, zentroan haurrak zaintzeak aukera ematen die ama erabiltzaile guztien % 31,5i laneratzeko prozesu bat hasteko, eta, prestakuntzaldi baten ondoren, lan-merkatuan sartzen dira.

- C programari dagokionez, zerbitzuaren arduradunek adierazi dute programa eraginkorra dela bi zentzutari. Lehenik, programak aukera ematen die zortzi umezainei ordainduriko lanpostu bat izateko (*“berme guztiekin: lan-kontratua, nomina eta Gizarte Segurantzarako kotizazioa”*). Hortaz, arduradunen azalpenen arabera, umezain-lanak garatu dituzten emakumeek jaso duten Oinarrizko Errentaren zenbatekoaren murrizketan ere lagundu du programak. Era berean, programak aukera ematen die umezainei gizarte-laguntza gisa jasotzen dituzten diru-sarrerak eta lan-errendimenduengatik jasotzen dituztenak bateragarri egiteko. Hala ere, programaren arduradunek adierazi dute programaren iraupenak ez duela aukera ematen epe luzerako helburu hori lortzeko (*“Esku-hartzearen iraupen laburrak ez du aukerarik eman birziklatze-ikastaroetan parte hartuz lortzen ari zireen prestakuntza eta lan-ohiturak sendotzeko; programaren arduradunak adierazi duenez... izan duten maniobra-marjina txikiak izan da, are gehiago kolektibo borren motibazio urria kontuan hartzen badugu”*).

Familia erabiltzaileei dagokienez, etxez etxeko umezain-zerbitzua baliatzen duten bederatzitik bost familietan lortu dira esku-hartzearen hasieran proposatutako helburuak. Kasu horietako hirutan, programan parte hartzeak aukera eman die beren lan-egoera hobetzeko, ama batek laneratzeko programa batean parte hartu du, eta beste erabiltzaile batek gidabaimena lortu du. Hala ere, programak ez ditu lortu lau familia erabiltzailetan ezarritako helburuak. Kasu batean, amak programan parte-hartzeari utzi behar izan zion genero-indarkeriako biktima zelako, eta beste hiru kasutan ez dago informaziorik esku-hartzearen bilakaerari eta emaitzei buruz.



- B programaren kasuan, arduradunak emandako jarraibideen arabera, programa eraginkorra da, hain zuzen ere aukera ematen dielako guraso bakarreko familiei lan- eta familia-bizitza uztartzeko. Programa horren jarduera-memorian jasotzen da programak guztira 164.465 zerbitzu-ordu eman zituela 2007an. Hala ere, programaren memoria horretan ez dago informazio eskuragarririk etxez etxeko umezain-zerbitzu horrekin lortutako emaitzei buruz, eta, beraz, ezin da zerbitzuaren azterketa eraginkor bat egin.

### 5.6.3. Erabiltzaileen gogobetetzea

Elkarrizketatutako zazpi ama erabiltzaileek adierazi dute programarekin oso pozik daudela, eta ezin da gogobetetze-maila handiago bati buruz hitz egin –eskuragarri dagoen informazioaren arabera– aztertutako programetan<sup>17</sup>:

- Hiru programetako bakoitzean parte hartzen duten amak krisi-egoeran daude, eta, beren azalpenen arabera, programaren laguntzarik gabe ezin izango ziren prestatu eta ezin izango zuten lan-jarduerarik garatu. Horren ildotik, erabiltzaileen aldetik jasotako eskerrak orokorrak dira programa osoari dagokionez, eta, bereziki, profesionalen aldetik jasotzen duten arretari dagokionez. Familien gogobetetze-maila altua, hau da, A programaren zentroa nahiz C eta B programetako zerbitzuak erabiltzen dituzten amen gogobetetze-maila altua, beren seme-alabek jasotzen duten arretaren kalitatearekin ere lotuta dago.
- Horretaz gain, elkarrizketatutako ama guztiek adierazi dute programarekin oso pozik daudela baliabidearen malgutasunari dagokionez. Elkarrizketatutako ama guztiek adierazi dute gustura daudela programa une bakoitzaren premietara egokitzen delako, eta esku-hartzea atzerapenik gabe eta itxaronaldi luzerik gabe hasi zelako.
- C programari dagokionez, horren arduradunek adierazi dute programan parte har dezaketen familia batzuek parte ez hartzea erabaki zutela, programarentzat aurreikusitako iraupena urria zelako. Horren ildotik, profesional horiek emandako azalpenen arabera, programaren iraupena hasiera batean hiru hilabetekoa izatea aurreikusten da, eta, beraz, ez da egokitzen familia askok dituzten arreta-premietara, hain zuzen ere urtebeteko prestakuntza-ikastaroak egiten dituztelako.

<sup>17</sup> Gogoratu behar da C programaren kasuan erabiltzaile batekin elkarrizketa bat egiteko aukera izan zela, eta hiru programetako bakar batean ere pertsonak ez zirela ausaz hautatu, programa bakoitzeko arduradunek hautatu baitzituzten.

- B programaren kasuan, 2007ko memorian adierazten denez, erabiltzaileen gogobetetze-mailari buruzko inkestak egin ziren zerbitzu bakoitzaren amaieran, eta emaitzak oso onak dira.



#### 5.6.4. Profesionalen gogobetetzea

Familien kasuan bezala, profesionalak guraso bakarreko familien arretarako programarekin duten gogobetetze-maila balioesteko, ezinbestekoa da kontuan hartzea elkarrizketatu ziren profesionalak programa bakoitzeko arduradunek hautatu zituztela eta hautaketa ez zela ausaz egin. Nolanahi ere, eta orokorrean, hiru programei buruz lortutako informazioa ikusita, esan daiteke elkarrizketatutako profesional guztiek gogobetetze-maila altua adierazi dutela jasotako ikuskapen-mailari dagokionez, profesionalen eta erabiltzaileen arteko harremanari dagokionez, egin beharreko lanaren ezaugarriei dagokienez, eta programa bakoitzaren lan-baldintzei dagokienez.

Hala ere, A programan, elkarrizketatutako profesional guztiek adierazi dute –arestian esan dugunez– beren gustukoa ez den alderdietako bat lan-gainkarga dela. Profesional horiek emandako azalpenen arabera, badaude une batzuk zentroan haur kopuru oso handia artatzen dela eta, gainera, adingabeen arteko adin-aldeak –0tik 16 urtera bitarte– zailagoa egiten duela kalitatezko arreta ematea.

#### 5.6.5. Programen eraginkortasun ekonomikoa

##### 5.6.5.1. Aztertutako programen eraginkortasun ekonomikoa balioesteko zailtasunak

Guraso bakarreko familientzako arreta-programen egokitasun-maila balioesteko, ezinbestekoa da programen eraginkortasun ekonomikoa eta pertsona erabiltzaile bakoitzaren arretak dakarren kostua ere balioestea. Txosten horri dagokionez, programen eraginkortasun ekonomikoaren azterketa oso zaila da, hainbat arrazoirengatik:

- Lehenik, datuak jasotzeko erabilitako formulak ez dira homogeneousak programen artean. Zailtasun hori gainditzeko, azterketa-bisitaldietan datuak jasotzeko fitxen bitartez arduradunek eman dituzten datuak baliatu dira ia soilik. Emandako informazioa osorik ez zegoenean, edo beste datu-iturri batzuekin argi eta garbi bat ez zetorrenean soilik baliatu dira informazio-iturri osagarriak, eta, jakina, hiru erakundeetako arduradunek emandako informazioa egiazkotzat jo dugu.
- Erakundeek emandako datuak kasu gehienetan partzialak edo osatu gabeak dira, eta programa bakoitzaren eraginkortasuna konparatzeko balio duten emaitzak lortu ahal izateko, kalkulu batzuk egin behar izan dira.

- Zaintzaile kopurua alde batera utzita, egindako kalkuluek ez dituzte kontuan hartu arretaren kalitatearekin lotura estua duten eta programa bakoitzaren eraginkortasunaren azterketa zorrotz batek kontuan hartu beharko lituzkeen bestelako faktore gehigarriak.
- Ez da beti erraza haurren arretarako programaren kostua elkartearen gainerako jardueretatik bereiztea, eta, beraz, kasu batzuetan baliteke benetan dagokiona baino partida ekonomiko handiagoa gaineratu izana programaren gastu gisa.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da azpimarratzea ondoren egiten den azterketa guztiz gutxi gorabeherakoa dela, eta horren helburua aztertutako hiru programekin lotuta ikus daitezkeen alde batzuk agerian jartzea dela.

#### *5.6.5.2. Aldeak ratioei, erabiltzaile bakoitzeko kostuei eta arreta-ordu bakoitzeko kostuari dagokionez*

Informazioa jasotzeari dagokionez aipatutako zailtasunak gorabehera, erantsitako taulan aztertutako hiru programen eraginkortasun ekonomikoari buruzko konparazio-datu nagusiak jasotzen dira, baita langile-ratioei, arretaren intentsitateari, eskaera potentzialaren estaldurari edo hiru programen finantziazio-iturriei buruzko beste datu batzuk ere.

19. taula. Aztertutako programen efizientziarekin eta eraginkortasunarekin lotutako adierazleak

	A PROGRAMA	C PROGRAMA	B PROGRAMA
Gastua guztira	213.616,00€	50.000,00€	81.246,00€
Artatutako haurren kopurua (azken urtean)	97	10	29
Artatutako erabiltzaile bakoitzeko gastua	2.202,00€	5.000,00€	2.802,00€
Haur bakoitzarekin egindako esku-hartzearen batez besteko ordu kopurua (hilean)	19**	80	60
Hilean kalkulaturako arreta-ordu kopurua	1.804**	800	1.740****
Arreta-ordu bakoitzeko kostua	9,90€**	5,20€	3,90€
Gastua langileetan (%)	62	80	78
Erabiltzaileek egindako finantziazioaren %a	0	0	0
Langile kopurua	6*	9	24
Umezain edo zaintzaile kopurua	4	8	21
Umezainen edo zaintzaileen asteko batez besteko lanaldia	37,5	20,2	14
Arreta-ratioa	0,04	0,80	0,72
Kalkulatutako estaldura (%)***	18,0	25,0	2,0

\* Zerbitzuak, gainera, zazpi boluntario ditu. \*\* Haur bakoitzarekin egindako esku-hartzearen batez besteko ordu kopuruari, hileko batez besteko arreta-ordu kopuruari eta A programako zentroaren arreta-ordu bakoitzeko kostuari buruzko datuak ez dira atera azterlan hau egiteko erakunde bakoitzak betetako fitxetatik, hain zuzen ere programaren arduradunek datu hori ez zutela ziurtatu baitzuten. Informazio hori eskuragarri ez zegoenez gero, 2009. urteko erakundearen memoria erabili da erreferentzia gisa, eta bertan ezartzen da urteko guztizko arreta-ordu kopurua 21.652 ordukoa dela, hamabi hilabetetan banatuta. \*\*\*Erreferentziako lurralde-eremuetan mantenu-pobreziako egoeran dauden guraso bakarreko familien gutxi gorabeherako kopuruari dagokionez. \*\*\*\*Eraginkortasun-azterketa hori egin ondoren, B programak eman duen datua izan da 2009. urtean hileko zerbitzu-ordu kopurua ez zela 1.740 izan (datuak jasotzeko fitxetan begiratuta zeharka kalkulaturako informazioa, batez besteko erabiltzaile kopurua hileko batez besteko ordu kopuruarekin eta 12rekin biderkatuta), izan ere urtean 4.500 ordukoa izan baitzen. Zifra berri hori benetan bat etortzen bada zuzeneko arreta-orduen guztizko kopuruarekin, ordu bakoitzeko kostua ez litzateke 3,90 € izango, baizik eta 18,05 €. Kasu horretan, B programako arreta-ordu bakoitzeko kostua beste bi programetako baino askoz handiagoa izango litzateke.

Taulak adierazten dituen datu nagusiak honako hauek dira:

- C programako Elkartek erregistratzen du erabiltzaile bakoitzeko kostu handiena, hain zuzen ere 10 pertsonari emandako arretak 50.000 euroko gastua izan baitu. Horrek esan nahi du erabiltzaile bakoitzeko gastua 5.000 euro dela, eta B eta A programan, aldiz, 2.802 eta 2.202 euro da, hurrenez hurren.
- Funtsean, alde horien arrazoia izango litzateke C programaren intentsitatea handiagoa dela, hain zuzen ere, batez beste, egunean lau orduko arreta ematen die bere erabiltzaileei (80 ordu hilean), eta A programak eta B programak, aldiz, hilean 19 eta 60 orduko arreta ematen die, hurrenez hurren.

- Zuzeneko arreta-ratioa (kontratutako zaintzaile kopurua programaren erabiltzaile kopuruarekin alderatuta urtean zehar) A programaren zentroan beste bi programetan baino askoz txikiagoa da. Horren arrazoia da aldi bereko arreta-ratioa baxuagoa dela (etxez etxeko zaintzaileen kasuan, aldiz, ratioa orokorrean haur bakoitzeko zaintzaile batekoa da, eta zentroan egindako arretaren kasuan zaintzaile batek haur-talde handiago bat arta dezake), baita txandakatze-tasa txikiagoa dela ere, hau da, programan egonaldia luzeagoa dela. Zentroan lan egiten duten pertsonen gaitzarekin lotuta azpimarratutako datuek bi arrazoi horietatik lehena adierazten dute.
- A programaren Elkartek langileetara bideratzen duen guztizko gastuaren ehuneko txikiagoa da beste bi erakundeetan baino, ziur asko lokalaren alokairuak eta mantentzeak (argia, gasa, ura, garbiketa, eta abar) Elkarteen kostuen egituran duen garrantziaren ondorioz.
- Intentsitate txikiago hori gorabehera, eta, adierazi dugunez, erabiltzaile bakoitzeko kostu txikiagoa dakarten arreta-ratio txikiago horiek gorabehera, arreta-ordu bakoitzeko kostua (ia 10 euro) pixka bat handiagoa da A programaren kasuan beste bi erakundeetan baino; izan ere, azken bi horien ordu bakoitzeko gutxi gorabeherako kostua antzekoa da (5,2 euro C programaren kasuan, eta 3,9 euro B programaren kasuan<sup>18</sup>). Pentsa daiteke alde horren arrazoia zerbitzua ematen den zentroaren alokairuaren kostua dela, edo zuzeneko arreta ematen ez duten eta zerbitzuaren kostua kalkulatzeko kontuan hartzen diren teknikarien erabilgarritasun handiagoa (hezitzaileak, administrariak, koordinatzaileak eta bitartekariak).
- Finantziarioari dagokionez, zentroetako batek ere ez du kuotarik jasotzen erabiltzaileen aldetik, doan baliatzen baitute zerbitzua<sup>19</sup>.

Azterketa labur horren ondorio gisa, esan daiteke, kostuen egiturari eta eraginkortasun ekonomikoari dagokionez, bi eredu desberdin daudela:

- Etxez etxeko arretaren eredia. Intentsitate handiagoa izan ohi du, arreta-ratio handiagorekin eta zerbitzuaren erabilera-maila handiagorekin. Bestalde, instalaziorik behar ez izateak diru-kopuru handia aurrezteko aukera ematen du, eta, beraz, arreta-ordu bakoitzeko kostua txikiagoa da. Hori gorabehera, intentsitate handiagoa duenez gero, erabiltzaile bakoitzeko batez besteko kostua handiagoa da.

<sup>18</sup> Betiere, adierazi dugunez, arreta-orduak 4.500 direla kontsideratzen denean izan ezik, kasu horretan B programaren kostua, esan dugunez, handiagoa izango litzatekeelako.

<sup>19</sup> B programaren kasuan, aldiz, elkarrizketatutako ama batzuek zerbitzuari buruz egindako deskribapenak nahiz, 2007. urteari dagokionez, aztertutako administrazio-informazioak adierazten dute erabiltzaileek zerbitzuaren kostuaren zati bat ordaintzen dutela, arreta-orduen kopuru zehatz bat gaitzitzen denean (bost ordu astean).

- Zentro bateko arreta-ereduak, aldiz, intentsitate askoz txikiagoa eta, oro har, erabiltzaile bakoitzeko gastu txikiagoa eskaintzen du. Hala ere, arreta-ordu bakoitzeko kostua pixka bat handiagoa da, hain zuzen ere lokal bat erabili behar izateak dakarren kostu gehigarriaren ondorioz, eta, ziur asko, gizarte- eta hezkuntza-arloko zerbitzu gehigarriak ematearen ondorioz.

Laburbilduta, eta txostenaren lehen zatian adierazitako guraso bakarreko familien arretarako programentzako jardunbide egokiaren adierazleen berrikuspena kontuan hartuta, hurrengo taulan aztertutako hiru programetako bakoitzak betetzen dituen jardunbide egokiko irizpideak jasotzen dira.

ADIERAZLEAK	A Programa	C Programa	B Programa
Ingurunearen azterketa	√		
Ondo bereizitako sartzeko eta kanpoan uzteko irizpideak	√	√	√
Erreferentziarako esparru teorikoa	√	√	√
Arretak pertsonalizatua/indibidualizatua izan behar du	√	√	√
Arreta-plan ebaluatua	√		
Erreferentziarako profesional egokia erabiltzaileen premietarako	√	√	√
Ekipamendu eta azpiegitura nahikoak eta egokiak	√	√	√
Profesionalen lan-baldintzak egokiak	√	√	√
Integrazio komunitarioa eta baliabide-sarerako sarbidea	√		
Familia erabiltzaileen eta programaren arteko harreman ezin hobea	√	√	√
Zerbitzuaren ebaluazioa	√		
Programaren eraginkortasun ekonomikoa			√

Guraso bakarreko familiei laguntzeko programa horien deskribapenaren ulermena eta azterketa errazte aldera, laburpen gisa, 2. Eranskinean hiru taula agertzen dira programa horien ezaugarri nagusiekin.

## 6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Sarrerako kapituluak adierazienez, txosten hau egitean ezarri diren oinarrizko helburuak honako hauek izan dira:

- guraso bakarreko familietara eta horietan bildutako adingabeak zaintzera bideratutako gizarte-arloko esku-hartze programen inguruan azken urteetan gure ingurunean herrialdeetan egindako esperientziak deskribatzea;
- horrelako programak garatzeko erreferentziazko irizpide nagusiak biltzen dituen esparru teoriko bat proposatzea, horien helburuen, edukien eta antolamendu-formulen ikuspuntutik;
- EAEn ematen diren guraso bakarreko familien arretarako hiru programa espezifikoaren edukia deskribatzea;
- aztertutako arreta-programek proposatutako kalitate-irizpideak zein neurritaraino betetzen dituzten balioeste, eta
- guraso bakarreko familien arretaren inguruan, jardunbide egokirako gomendio batzuk proposatzea.

Lortutako emaitzak balioesteko, ezinbestekoa da gogoratzea hiru programa oso desberdin aztertu direla, bai ematen duten arretaren edukiarik dagokionez –kasu batean, zentro kolektibo baten barruan emandako zaintzak, eta, beste bietan, etxez etxeko zaintzak–, bai erabiltzaile kopuruari, arretaren estaldurei, antolamendu-formulei edo programen profesionalizazio-mailari eta garapenari dagokionez. Muga horiek kontuan hartuta, funtsezko honako ideia hauek azpimarratu behar dira:

- Aztertutako hiru programetatik, bistakoa dirudi A programaren Elkartearen garapena osatuena dela, eta, diseinuari nahiz aplikazio praktikoari dagokionez, egokiena dela esan daiteke. Horren ildotik, esan daiteke identifikatutako jardunbide egokiko irizpideak gehien aplikatzen dituen programa dela, eta, eskuragarri dagoen informazioaren arabera, gizarte-arloko esku-hartze zorrotzeta eta kalitate handienekoa egiten du. Nolanahi ere, esan beharra dago, era berean, artatutako amen eta galdetutako langileen gogobetetze-maila altua dela, eta ez da atzeman kezarik edo poztasunik gabeko egoerarik, kontrakoa baizik.



- A programari egiten zaion balioespena onena izateak, hala ere, ez du esan nahi erakunde horrek garatzen duen programa denik formula egokiena guraso bakarreko familietan haurren zaintzarako eta/edo lana uztartzeko zerbitzuak emateko. Horren ildotik, dirudienez, bildutako informazioak adierazten duena da, soilik, A programa dela, aztertutako hiruretatik, ongien antolatua dagoena eta profesionaltasun-maila handiena erakusten duena (esparru teoriko zehaztuagoa, jarraipen-tresna garatuagoak, argi eta garbi ezarritako bideratze- eta onarpen-protokoloak, familiei emandako zerbitzu sorta handiena, eta abar). Hala ere, programak larritzat hartu behar diren arazo espezifiko batzuk ditu –hala nola zuzeneko arretako langileen gainkarga–, eta hiruretatik intentsitate txikiena duena da, baita eraginkortasun txikiena duena ere, arreta-ordu bakoitzeko kostuaren ikuspuntutik. Horretaz gain, pentsa daiteke malgutasun txikiena duena dela, behintzat teorikoki, hain zuzen ere zentroa irekita dagoen ordutegira mugatzen delako eta bere izaera propioak desegokia egiten duelako ordutegi jakin batzuetan izaten diren arreta-premiei erantzuteko.
- Bestalde, programa horri buruz egin daitekeen balioespen onak ez du eragozten erakunde horrek hartutako ikuspegiaren egokitasuna balioesteko premia, familia horiei aholkularitza- eta orientazio-zerbitzu osagarri batzuk eskaintzeari dagokionez. Hain zuzen ere, esate baterako autolaguntzako taldeak sortzea positibotzat har badaiteke ere, ezinbestekoa da adieraztea, era berean, eskainitako zerbitzu gehigarriek ez dituztela ordezkatu behar beste erakunde batzuk eskaini behar dituztenak, hala nola Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eman behar dituztenak; bestela, bistakoa dirudi ahaleginak bikoizteko arriskua dagoela, alde batetik, eta guraso bakarreko familientzako aholkularitza-sare paralelo bat eraikitzeiko arriskua, funtzio hori Gizarte Zerbitzuetako lehen mailako arreta-sare batek estal dezakeela eta estali behar duela kontuan hartuta.

Programaren kalitate orokorrari dagokionez aurkitutako aldean arrazoia, nolana ere, ez da programa bakoitzak garatutako arreta-eredua, baizik eta, nagusiki, programaren arduradunen profesionaltasuna eta hartutako antolamendu-formulak. Ikuspuntu horretan oinarrituta, lehenik adierazi beharra dago programa horiek ibilbide nahiko egiaztatua eta ezarpen nahiko hedatua duten erakundeei esleitu beharko litzaizkiekeela, era horretan zerbitzuaren kalitatea bermatuz, betiere sustatzaileen borondate ona alde batera utzita.

Proposatutako arreta-ereduari dagokionez, honako hau esan daiteke:

- Lehenik, zalantzan jartzekoa da espezifikoki edo ia soilik guraso bakarreko familietara bideratutako haurren zaintzarako programak ezartzeko premia. Txosten honen lehen zatian aztertutako herrialdeen esperientziak adierazten du oso gutxi direla herrialde horietan soilik guraso bakarreko familiak artatzen dituzten haurren zaintza-zerbitzuak hornitzeko formulak, eta, oro har, familia horiek egon daitezkeen haurren zaintzarako programa orokorrak baliatzen dituzte. Ikuspuntu horretan oinarrituta, nazioarteko esperientzia ikusirik atera daitezkeen ondorio argienetako bat da guraso bakarreko familiek aholkularitza eta laguntza indibidualizatua eta espezifikoa behar dutela (eta, beraz, espezializatua), baliabideen sarean mugitzeko eta beren premiei erantzuteko laguntza emango dena, eta ez dute hainbeste behar haurren zaintzarako zerbitzu espezifikorik, ama horiek ohiko baliabideetatik aldentzen baitituzte<sup>20</sup>. Formula horiek ezohiko baliabide gisa, iragankor gisa edo larrialdiko baliabide gisa justifikatuak egon daitezkeen arren, horiek orokortzeak ziur asko kalitate txarragoko haurren zaintzarako sare paralelo bat sortzeko aukera emango luke bakarrik
- Jakina, guraso bakarrei espezifikoki zuzendutako programak ez beharrezkoak egiteko, ezinbestekoa da haurren zaintzarako baliabideen egungo sare orokorrean oinarritzko bi aldaketa egitea: alde batetik, arreta-formulen dibertsitate handiago batetik bakarrik ondoriozta daitezkeen eskaintzaren hazkunde bat (premia bereziak dituzten familientzat gordetako hartzaindegi-plazak, eskolaz kanpoko jarduerak zabaltzea ikastetxeetan, gizarte-ludotekak, astialdiko taldeak, eta abar); bestetik, antolamendu-formula malguagoak dituzten zerbitzu horiek sartzea, familien premia berezietara gehiago egokitzeko aukera emanaz (eta ez dutenak eskatzen, arreta pertsonaleko zerbitzu horietan eta beste batzuetan askotan gertatzen den moduan, familiak izatea zerbitzuaren antolamendu-premietara egokitu behar dutenak).
- Logikoa denez, malgutasun handiagoa izateak aukera emango luke zentroetako eta etxez etxeko zerbitzuak konbinatzeko, eta, beraz, familiek aukera izango lukete, beren premien arabera, formula bat edo bestea hautatzeko, administrazioek familia mota baten alde hautatzea ezabatuz. Dena den, bistakoa dirudi etxez etxeko arretak abantaila garrantzitsu batzuk dituela zentroetako arretarekin alderatuta, hain zuzen ere arretaren malgutasun

<sup>20</sup> Laguntza-zerbitzu espezializatu hori Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek nahiz esparru horretan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko elkarteek eman dezakete, edo baita enplegu-bulegoek ere, programa horien helburua laneratzea dela aintzat hartuta. Hain zuzen ere, txostenean adierazi denez, horixe da Erresuma Batuan aurrera jarraitu duten bidea.

handiagoa, intentsitate handiagoa eta indibidualizazio handiagoa<sup>21</sup>. Bestalde, EAEko familiek asko eskatzen dute zerbitzua, baina, hala ere, familia askok merkatu pribatura jo behar dute –oso kasu askotan informala edo ezkutukoa– horrelako zaintzak izateko.

- Horregatik, eta aztertutako herrialdeen esperientzia kontuan hartuta, gomendagarria izan daiteke Frantzian nahiz Erresuma Batuan ikus daitekeen *childminder* edo *assistante maternelle* deitutako figura sustatzea. Pertsona horrek haur-talde txikiak zaintzen ditu, askotan bere bizilekuan. Horrelako zaintzaileak emandako haurren zaintza-zerbitzuak ordaintzeko EAEn laguntza ekonomikoak badaudela kontuan hartuta, horrelako programen sustapena zaintzaileen prestakuntza, egiaztapen eta homologaziorako sistemak sortzetik igaro beharko litzateke, baita zerbitzuaren jarraitutasuna, fidagarritasuna eta kalitatea bermatzen duten laneko autoantolamenduko formulak bultzatetik ere (kooperatibak, laneratzeko enpresak, eta abar). Pentsa daiteke, haurren zaintzarako eskaintza handitzeaz eta horren kalitatea bermatzeaz gain, gaur egun modu informalean lan egiten duten haurren zaintzaileen profesionalizazio-estrategia horrek efektu positiboa izango luke enplegua sortzeari dagokionez, baita pertsona horien lan-baldintzak hobetzeari dagokionez ere.
- Aurrekoaren antzeko beste formula bat izango litzateke gizarte- eta familia-arloko erantzukizunak uztartzeko zailtasunak dituzten eta, gainera, bazterkeriako eta/edo babesgabetasuneko arrisku-egoeran dauden familiei espezifikoki zuzendutako Etxeko Arreta Zerbitzu (EAZ) modalitate bat garatzea –baita Gizarte Zerbitzuen sistemaren esparruan ere–.

Epe laburragoan, aurrera egiteko bide bat izan daiteke eredu misto bat sortzea, neurri batean A programaren eredutik abiatuta, eta, nolana ere, hobekuntzak edo funtsezko aldaketak eginez:

- Zerbitzua beste familia batzuetara zabaltzea, hau da, nahitaez guraso bakarrekoak ez diren eta lan- eta familia-arloko erantzukizunak uztartzeko zailtasun berberak dituzten familietara;
- Kargak eta arreta-ratioak berrikustea.
- Artatutako haurren adinaren arabera bereizitako zonak, ordutegiak edo zentroak ezartzea.

<sup>21</sup> Era berean, kontuan hartu behar da, arestian adierazi dugunez, zentroetako arreta ez dela aukera egokia ezohiko ordutegietako premiak estaltzeko, hain zuzen ere gomendagarriagoa baitirudi, ordutegi jakin batzuen kasuan, haurrak zentroetan zaindu ordez, beren bizilekuan edo, bestela, zaintzailearen bizilekuan zaintzea.

- Zentroko zuzeneko arreta-zerbitzua, kasu jakin batzuetan, Elkarreak berak gainbegiratutako eta prestatutako haurrentzako zaintzaileek emandako etxez etxeko zerbitzuen hornidurarekin konbinatzea.
- Horrelako programek benetan eman behar dituzten zerbitzu gehigarrien sailkapena, kontuan hartuta udal bakoitzeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei dagokiela familia horien diagnostiko, orientazio eta jarraipen indibidualizatua egitea, gizarte-zerbitzuen sarera jotzen duten gainerako familien baldintza berberekin. Horretarako, jakina, ezinbestekoa da, halaber, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu horiek indartzea, eta, hala badagokio, zerbitzu horiei laguntza teknikoak izateko aukera ematea, familia horien premia eta zirkunstantzia espezifikoak jakin ahal izateko.

Aukeratzen den formula edozein izanik ere, era berean, ezinbestekoa dirudi azpimarratzea programa horiek ama ez dagoenean haurrak zaintzera ez mugatzeko eta gizarte- eta hezkuntza-osagai bat gaineratzeko premia dutela. Era berean, azpimarratu behar da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek protagonistak izan behar dutela kasuak ezartzen diren arreta-programetara bideratzeari dagokionez. Era berean, azpimarratu beharko litzateke artatutako emakumeen laguntza-sare propioak indartu behar direla –gurasoak barnean hartuz, betiere okerragoa ez denean–, eta haurrentzako gizonezko zaintzaileak gaineratu behar direla garatzen diren programetan.

Azkenik, eta ikuspuntu teorikoago batetik, guraso bakarreko familien arduraren emakumeei zuzendutako aktibazio-politikei buruzko hausnarketa bat sustatu beharko litzateke, baita uzartzeko politikak aplikatzeko premiari buruz ere, giza kapitala sortzean, lanbide-prestakuntzan, gurasoen zereginetan laguntzean eta diru-sarrerak bermatzean oinarritutako beste estrategia batzuen aurka. Horren ildotik, azpimarratu behar da laneratzea, kasu honetan eta beste batzuetan, ez dela berez helburu gisa ikusi behar, baizik eta gizarteratzeko tresna gisa, eta familia-erantzukizunak dituzten emakumeak lan-merkatuan sartzeari beste alderdi batzuen gainetik lehentasuna eman dioten politikek ez dutela beti arrakasta izan gizarteratzeari dagokionez, ezta emakume horien eta beren seme-alaben bizitza-kalitateari dagokionez ere.

## BIBLIOGRAFIA

**ADEMA, W. eta THEVENON, O.:** “Les politiques de conciliation du travail et de la vie familiale en France au regard des pays de l’OCDE. À partir de la synthèse des études ‘bébés et employeurs’”. *Recherches et Prévisions*, 93. zk., 2008, 51-72 or.

[http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/133625a1dad62406c12574cc0037e34c/\\$FILE/RP93-WAdema%20et%20Thevenon.pdf](http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/133625a1dad62406c12574cc0037e34c/$FILE/RP93-WAdema%20et%20Thevenon.pdf)

**ANANIAN, S. eta BAUER, D.:** “Le temps périscolaire”. *Etudes et Résultats*, 611. zk., 2007, 8 or.

<http://www.sante.gouv.fr/drees/etude-resultat/index.htm>

**BAILLEAU, G.:** “L’offre d’accueil collectif des enfants de moins de 6 ans en 2008”. *Etudes et Résultats*, 715. zk., 2010, 8 or.

<http://www.sante.gouv.fr/drees/etude-resultat/er-pdf/er715.pdf>

**BRADSHAW, J. eta FINCH, N.:** *A comparison of child benefit packages in 22 countries*. Serica: Research Report, 174. zk. Londres, Department for Work and Pensions, 2002, 338 or.

<http://www.dwp.org.uk/asd/asd5/rrep174.asp>

**BREWER, M. et al.:** *The lone parent pilots after 12 to 24 months: an impact assessment of in work credit, work search premium, extended schools childcare, quarterly work focused interviews and new deal plus for lone parents*. Serica: Research Report, 415. zk. Londres, Department for Work and Pensions, 2007, 172 or.

<http://www.dwp.gov.uk/asd/asd5/rports2007-2008/rrep415.pdf>

**Child Welfare League of America.** *Standards of excellence for residential group care services*. Washington, Child Welfare League of America, 1991, 189. or.

**Child Welfare League of America.** *Standards of excellence for the management and governance of child welfare organizations*. Washington, Child Welfare League of America, 1996, 130 or.

**Childcare Resource and Research Unit.** *Quality targets in services for young children*. Toronto, University of Toronto, 2004, 4 or.

[http://www.childcarequality.ca/wdocs/QbD\\_QualityTargets.pdf](http://www.childcarequality.ca/wdocs/QbD_QualityTargets.pdf)

**Dartington Social Research Unit.** *Matching needs and services, 2<sup>nd</sup>*. Ed. Dartington, Dartington Social Research Unit, 1999, 66 or.

**DE PAUL, J. eta ARRUABARRENA, M.I.:** *Manual de protección infantil, 2. ed.* Bartzelona, Masson, 2001, 528 or.

**Department of Health.** *The care of children. Principles and practice in regulations and guidance*. Londres, HMSO, 1989, 20 or.

**Department of Health.** *Caring for children away from home. Messages from research*. Chichester, John Wiley and Sons, 1998, 105 or.

**European Communities.** “Carta europea de los derechos del niño”. *Diario Oficial de las Comunidades Europeas*, C 241 zk., 1992, 9 or.

[http://www.defensordelmenor.org/upload/legislacion/LeyEuropea/Carta\\_Europea\\_Derechos\\_Nino.pdf](http://www.defensordelmenor.org/upload/legislacion/LeyEuropea/Carta_Europea_Derechos_Nino.pdf)

**EYDOUX, A. et al.:** *Les familles monoparentales en France*. Serica: Rapport de Recherche, 36. zk. Noisy-Le-Grand, Centre d’Études de l’Emploi, 2007, 114 or.

[http://www.ceerecherche.fr/fr/rapports/redir/familles\\_monoparentales\\_france\\_rap36.pdf?utm\\_source=pdf&utm\\_medium=familles\\_monoparentales\\_france\\_rap36](http://www.ceerecherche.fr/fr/rapports/redir/familles_monoparentales_france_rap36.pdf?utm_source=pdf&utm_medium=familles_monoparentales_france_rap36)

**EYDOUX, A. eta LETABLIER, M.T.:** “Familles monoparentales et pauvreté en Europe: quelles réponses politiques?”. *Politiques Sociales et Familiales*, 2009, 21-47 or.



[http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/cd0328341490cbc9c12576a2003f424d/\\$FILE/PSF98-AEydoux%20et%20MTLetablier.pdf](http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/cd0328341490cbc9c12576a2003f424d/$FILE/PSF98-AEydoux%20et%20MTLetablier.pdf)

**FAGNANI, J. et al.:** *Comparaison européenne des aides aux familles*. Seriea: Dossier d'Étude, 112. zk. Paris, Caisse Nationale des Allocations Familiales, 2009, 256 or.

[http://www.politiquessociales.net/IMG/pdf/Dossier\\_112\\_-\\_Comparaison\\_Europeenne.pdf](http://www.politiquessociales.net/IMG/pdf/Dossier_112_-_Comparaison_Europeenne.pdf)

[http://www.politiquessociales.net/IMG/pdf/Dossier\\_112\\_-\\_Annexes.pdf](http://www.politiquessociales.net/IMG/pdf/Dossier_112_-_Annexes.pdf)

**FERNÁNDEZ DEL VALLE, J.:** "Evaluación de programas en servicios sociales". Non: *Evaluación de programas. Una guía práctica en ámbitos sociales, educativos y de salud*. Seriea: Personalidad, Evaluación y Tratamiento Psicológico, 2. zk., Madril, Síntesis, 1995, 207-239 or.

**FUERTES, J. eta SÁNCHEZ, E.M.** *La buena práctica en la protección social a la infancia. Principios y criterios*. Madril, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, 1997, 28. or.

**Government of Ireland.** *Childcare Facilities. Guidelines for Planning Authorities*. Londres, Stationery Office, 2001, 20 orr.

<http://www.childcareonline.ie/files/1237391425.pdf>

**KESTEMAN, N.:** L'allocation de parent isolé et les obligations alimentaires: les conséquences de la réforme de 2007. *Recherches et Prévisions*, 95. zk., 2009, 67-75 or.

[http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/7937851ba9aba68ec12575e10058f384/\\$FILE/PSF95-NKesteman.pdf](http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/7937851ba9aba68ec12575e10058f384/$FILE/PSF95-NKesteman.pdf)

**KNIJN, T. et al.** "Activation as a common framework for social policies towards lone parents". *Social Policy and Administration*, 41 libk., 6. zk., 2007, 638-652 or.

**LÓPEZ-CABANAS, M. et al.:** *V Congreso Estatal de Intervención Social. Calidad y responsabilidad compartida: retos del bienestar en el cambio de siglo. Madrid, 25 a 27 de noviembre de 1998*. Seriea: Servicios Sociales, 43. zk., Madril, IMSERSO, 1999, or. 4 libk.

**MADRUGA, I.;** *Monoparentalidad y política familiar. Dilemas en torno a la madre cuidadora/madre trabajadora*. Seriea: Monografías, 220. zk. Madril, Ikerketa Soziologikoen Zentroa, 2006, 316 or.

**MAHIEU, R.:** "La PAJE après 18 mois de montée en charge". *Recherches et Prévisions*, 82. zk., 2005, 75-80 or.

[http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/6dc128d57f7e4627c12572a400535908/\\$FILE/RP82-RMahieu.pdf](http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/6dc128d57f7e4627c12572a400535908/$FILE/RP82-RMahieu.pdf)

**MILLAR, J. eta EVANS, M. (ed.):** *Research report. Lone parents and employment: international comparisons of what works*. Seriea: Research Report, w181. zk. Londres, Department for Work and Pensions, 2003, 123 or.

<http://www.dwp.gov.uk/jad/2003/181rep.pdf>

**MOORE, L.:** *Getting family support right. Inspection of the delivery of family support services*. Londres, Social Services Inspectorate, Department of Health, 1999, 65 or.

**National Association of Child Care Resource and Referral Agencies**

<http://www.naccrra.org>

**National Association of Child Care Resource and Referral Agencies.** *Child Care Aware. Oficina de Cuidado de Niños (CCB), la Oficina de Asistencia para Familias (OFA), la Administración para Niños y Familias (ACF)*. Washington, U.S. Department of Health and Human Services.

<http://www.childcareaware.org/>

**National Resource Center for Health and Safety in Child Care.** *A parent's guide to choosing safe and healthy child care*. Washington, U.S. Department of Health and Human Services, 4 or.

<http://nrckids.org/RESOURCES/ParentsGuide.pdf>

**NICOLAS, M. eta TOMASINI, M. :** "Conciliation des vies familiale, professionnelle et sociale des allocataires de minima sociaux". *Recherches et Prévisions*, 91. zk., 2008, 69-87 or.  
[http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/4529b3444106615fc125741300386fcc/\\$FILE/RP91-1-MNicolas%20et%20MTomasini.pdf](http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/4529b3444106615fc125741300386fcc/$FILE/RP91-1-MNicolas%20et%20MTomasini.pdf)

**Observatoire National de la Petite Enfance.** *L'accueil du jeune enfant 2008. Données statistiques.* Paris, Caisse Nationale des Allocations Familiales, 2009, 20 or.  
[http://www.monenfant.fr/c/document\\_library/get\\_file?uuid=01e47424-5ec8-4445-b39c-f39f9520eef6&groupId=10169](http://www.monenfant.fr/c/document_library/get_file?uuid=01e47424-5ec8-4445-b39c-f39f9520eef6&groupId=10169)

**Office of the Minister for Children.** *National guidelines for childminders.* Dublin, Stationery Office Dublin, 2006, 50 or.  
[http://www.omc.gov.ie/documents/childcare/guidelines\\_for\\_childminders.pdf](http://www.omc.gov.ie/documents/childcare/guidelines_for_childminders.pdf)

**Organisation for Economic Co-Operation and Development.** *Bébés et employeurs. Comment réconcilier travail et vie de famille. Volume 4: Canada, Finlande, Royaume-Uni et Suède.* Paris, ELGA, 2005, 276. or.

**PARIS, H.:** "Les attentes des Français vis à vis des modes de garde pour les jeunes enfants". *Recherches et Prévisions*, 87. zk., 2007, 83-88 or.  
[http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/6ac9d6ad6d6b694dc12572a300530813/\\$FILE/RP87-HParis.pdf](http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/6ac9d6ad6d6b694dc12572a300530813/$FILE/RP87-HParis.pdf)

**REBOLLOSO, E. et al.:** *Evaluacion de programas de intervención social.* Seriea: Análisis e Intervención Social. Madril, Síntesis, 2008, 428. or.

**REDONDO, E. eta MUÑOZ, R.:** *Manual de buena práctica para la atención residencial a la infancia y a la adolescencia.* Madril, Haurrekiko Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkarten Federazioa, 1998, 204 or.

**REGNER, M. eta JOHANSSON, L.:** "The 'ordinary' family as a resource for single parents - on the Swedish contact family service". *European Journal of Social Work*, 10. libk., 3. zk., 2007, 319-336 or.

**RICCIO, J.A. et al.:** *Implementation and second-year impacts for lone parents in the UK employment retention and advancement (ERA) demonstration.* Seriea: Research Report, 489 zk. Londres, Department for Work and Pensions, 2008, 234 or.  
<http://www.mdrc.org/publications/475/full.pdf>

**RIDGE, T. eta MILLAR, J.:** *Work and well-being over time: lone mothers and their children.* Seriea: Research Report, 536. zk. Londres, Department for Work and Pensions, 2008, 113 or.  
<http://research.dwp.gov.uk/asd/asd5/rports2007-2008/rrep536.pdf>

**Scottish Executive.** *National care standards for childcare agencies.* Edinburgh, Scottish Executive, 2005, 39. or.  
<http://www.scotland.gov.uk/Resource/Doc/46930/0023885.pdf>

**Sitter Service Development and Support.** *Standards for Childcare Agencies and Sitter Services.* Dundee, Sitter Service Development and Support  
<http://www.opfs.org.uk/services/sitter-service-development-and-support>

**SKINNER, C. eta FINCH, N.:** "Lone parents and informal childcare: a tax credit childcare subsidy?". *Social Policy and Administration*, 40. libk., 7. zk., 2006, 807-823 or.

**Support Force for Children's Residential Care.** *Matching needs and services. The audit and planning of provision for children looked after by local authorities.* Dartington, Dartington Social Research Unit, 1996, 67. or.

**TOMASINI, M.:** "L'allocation de parent isolé". *Recherches et Prévisions*, 91. zk., 2008, 101-108 or.  
[http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/9e2adf6fbb519bebc125741300388214/\\$FILE/RP91-2-MTomasini.pdf](http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/090ba6646193ccc8c125684f005898f3/9e2adf6fbb519bebc125741300388214/$FILE/RP91-2-MTomasini.pdf)

**United Nations.** *Convención sobre los derechos del niño*. Washington, United Nations, 1989, 24 or.

**VANOVERMEIR, S. eta CAZENAVE, M.C.:** “Les prestations familiales et de logement en 2008. Davantage de bénéficiaires d'aide à la garde d'enfants et d'aides au logement”. *Études et Résultats*, 725. zk., 2010, 8 or.

<http://www.sante-sports.gouv.fr/IMG/pdf/er725.pdf>

**Hainbat egile:** “La PAJE améliore-t-elle le choix des parents pour un mode de garde?”. *Recherches et Prévisions*, 88. zk., 2007, 5-52 or.

<http://www.caf.fr/web/WebCnaf.nsf/VueLien/RECHERCHESPREVISIONS88SOMMAIRE?opendocument>

**Warwick Institute for Employment Research.** *What works for whom?. A review of evidence and meta-analysis for the department for work and pensions*. Seria: Research Report, 407. zk. Londres, Department for Work and Pensions, 2007, 164 or.

<http://www.dwp.gov.uk/asd/asd5/rports2007-2008/rrep407.pdf>

**WILSON, V. et al.:** “Do the benefits justify the costs? An evaluation of the sitter service in Scotland”. *Children and Society*, 21. libk., 3. zk., 2007, 214-227 or.



## ERANSKINAK



# 1. ERANSKINA

## DATUAK BILTZEKO TRESNAK



## DATUAK ESKATZEKO FITXAK

ORDUTEGIAK	
Zentroa/bulegoa irekitzeko ordutegia	Azken urtean
	Astelehena ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Asteartea ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Asteazkena ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Osteguna ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Ostirala ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Larunbata ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Igandea ___:___tik ___:___ra bitarte
Zerbitzuak emateko ordutegia	Astelehena ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Asteartea ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Asteazkena ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Osteguna ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Ostirala ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Larunbata ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte
	Igandea ___:___e(ta)tik ___:___e(ta)ra bitarte

ZERBITZUAK ETA INTENTSITATEA		
Emandako zerbitzuak:	Azken urtean	
	BAI	EZ
- Etxez etxeko umezainak		
- Haurrak zentroan zaintzea		
- Prestakuntza-ikastaroak		
- Enplegua sustatzeko programa		
- Lege-laguntza edo laguntza juridikoa		
- Laguntza-taldeak (autolaguntza)		
- Laguntza psikologikoa gurasoentzat		
- Laguntza psikologikoa haurrentzat		
- Prestazio ekonomikoak lortzeko laguntza		
- Koordinazioa beste zerbitzu batzuekin		
- Beste batzuk (zehaztu)		
- _____		
- _____		
- _____		
- _____		
Esku-hartzearen intentsitatea		
- Haur bakoitzarekin egindako esku-hartzearen batez besteko ordu kopurua		_____ ordu hilean
- Haurrekin egindako esku-hartzearen gehieneko ordu kopurua		_____ ordu hilean
- Haurrekin egindako esku-hartzearen gutxieneko ordu kopurua		_____ ordu hilean
Familia erabiltzaile bakoitzarekin egindako esku-hartzearen batez besteko iraupena		_____ hilabete

ARTATUTAKO BIZTANLERIA	Azken urtean	Gaur egun
Artatutako familien guztizko kopurua		
- Espediente kopurua guztira		
- Ama kopurua guztira		
- Haur kopurua guztira		
Azken urtean artatutako familien guztizko kopurua	Jatorria Espainian dutenak	Jatorria atzerrian dutenak
Azken urtean artatutako familien guztizko kopurua	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik bideratuak	Bestelako zerbitzuetatik bideratuak
	Azken urtean	
	BAI	EZ
Programan parte hartzeko itxaronzerrenda dago?		
Zenbat denbora itxaron behar da batez beste?	_____	

LANGILE BALIABIDEAK	Gaur egun	
	Langile kopurua	Langile guztien asteko guztizko ordu kopurua
Programako langileen guztizko kopurua		
- Psikologo kopurua guztira		
- Hezitzaile kopurua guztira		
- Gizarte-langile kopurua guztira		
- Administrari kopurua guztira		
- Zaintzaile/umezain kopurua guztira		
- Boluntario kopurua guztira		
- Bestelako profesionalen kopurua guztira (zehaztu)		
- _____		
- _____		
- _____		
- _____		

FINANTZA ALDERDIAK	
	Azken urtean
Programaren gastu ekonomikoaren guztizko aurrekontua	_____ €
Langileak kontratazeko baliatzen den aurrekontuaren %-a	% _____
Erabiltzaileek finantzatzen duten aurrekontuaren %-a	% _____
Erabiltzaileen batez besteko kuota	_____ €
Zerbitzuarengatik ordaintzen ez duten familia erabiltzaileen %-a	% _____



## ARDURADUNENTZAKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA

### 1. Estaldura eta erabiltzaileak

- Programa hori gabe beste baliabiderik izango ez luketen pertsonak artatzen dira?
- Zein beste baliabide dituzte familia horiek? Ingurunea (eskura dauden baliabideak eta zerbitzuak) aztertu da?
- Laneratze-prozesuan dauden pertsonen lehentasuna ematen zaie arretan?
- Itxaronzerrenda dago? Zer neurritan estaltzen da zonaldeko eskaera potentziala?
- Erabiltzaileak barnean hartzeko eta kanpoan uzteko irizpide argiak daude?
- Zergatik ez dira joaten zerbitzu normalizatuagoetara?

### 2. Lanaren antolamendua

#### - Profesionalen antolamendu-jarraibideak

- Profesionalen rola eta erantzukizunak ondo definituta daude?
- Familiarekin lan egingo duen profesionala (profila eta prestakuntza) erabiltzaileen premien arabera hautatzen da? Familiak erreferentziatzeko figura bat dute?
- Kasuak koordinatzeko/gainbegiratzeko bilerak egiten dira? Lana taldean egiten da? Profesionalek beren zalantzen berri emateko eta hobekuntza-proposamenak egiteko gune bat dute?
- Gaur egungo lan-kargari aurre egiteko kontratatutako nahikoa profesional daude?
- Plantilla egonkorra da?
- Lan-baldintzak egokiak dira (kontratu mota, etengabeko prestakuntza, soldata, lan-ordutegiak, eta abar)?

#### - Gune fisikoa

- Zentroak ingurune fisiko egokia dauka?
- Ekipamendu materialak eta azpiegiturak nahikoak eta egokiak dira?
- Instalazioek segurtasun- eta osasun-arauak betetzen dituzte?

### 3. Erabiltzaileentzako arreta

#### - Arreta pertsonalizatua

- Familiaren premien alde aurreko ebaluazio bat egiten da?



- Banakako arreta-plan bat egiten da? Idazki bidez jasotzen da? Gurasoekin eta seme-alabekin egiteko lanaren helburuak, metodologia, baliabideak, sekuentziazioa eta ebaluzioa jasotzen ditu?
  - Familiarekin egiteko lanaren helburuak benetakoak dira? Kontingentzia-plana dago (B plana)?
  - Arreta mota edo orduak familiaren premien arabera modulatu dira? Familien premiak une desberdinetan ezberdinak badira, programa malgua da eta une bakoitzera egokitzen da?
  - Zergatik hautatu duzue zuen programa-modalitatea (haurrak zentroetan artatzea, etxeko umezainak, eta abar) familia horiek artatzeko?
- **Emaizak**
- Estali gabe geratzen diren familien premiak daude? Zer baliabide edo zerbitzu beharko lukete?
  - Familiak jasotzen duten zerbitzu kantitatea nahikoa da?
  - Kasu bakoitzaren emaitzen ebaluzio bat egiten da?
  - Proposatutako helburuak lortzen dira? Esku-hartze bakoitzaren inpaktuaren berri izaten da?
  - Familia bakoitzarekin proposatutako helburuak lortzen ez badira, arrazoiak adierazten dira?
  - Esku hartzeko prozesuaren bilakaera idazki bidez jasotzen da?
- **Integrazio komunitarioa eta harremana baliabide-sarearekin**
- Programatik kanpoko beste baliabide eta/edo zerbitzu batzuk lortzeko bidea ematen zaie erabiltzaileei?
  - Oinarrizko gizarte-zerbitzuekin etengabeko koordinazioa (komunikazio arina) dago?
  - Bestelako zerbitzu motekin (hezkuntzakoak, osasun-arlokoak, eta abar) eta komunitatearekin koordinazioa dago?
- **Harremanak familiarekin**
- Kezkak, kexak eta hobekuntza-proposamenak jakinarazteko gunerik ba al dute familiak?
  - Gurasoen eta haurren iritzia kontuan hartzen dira?
  - Erabiltzaileen konfidentziasuna bermatzen da?
  - Lortutako emaitzen berri ematen zaio familiari?
  - Esku-hartzeak irauten duen bitartean seme-alaben egoerari buruzko informazioa ematen zaie gurasoei?
  - (Programako erabiltzaileen arteko harremana eta erlazioa sustatzen da?)
  - Familiak programarekin duten gogobetetze-maila jasotzen da?

#### 4. Ebaluazioa

##### - Emaidzen ebaluazioa

- Programaren emaitzen ebaluazio bat egiten da?
- Programaren inpaktu globalaren berri izaten da?
- Egindako lanaren memoria bat idazten da urtero? Publikoa edo pribatua da?

##### - Eraginkortasun ekonomikoa

- Zenbat balio du familiarekin egindako esku-hartzearen ordu bakoitzak?
- Kostuen eta onuren azterketa bat egiten da?
- Azterketa horien balioespena positiboa da?



## PROFESIONALENTZAKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA

### 1. Lan-baldintzak

- Zure lana egiteko behar den prestakuntza duzu? Zure profila (pertsonea eta profesionala) zure lanari egokitzen zaiola uste duzu?
- Lan-baldintzak onak dira?
  - Kontratu mota egokia dela uste duzu?
  - Zure lan-ordutegiarekin ados zaude? Eta, lan-kargarekin? Ordu gehiegi lan egiten duzula uste duzu? Lan-gainkarga duzu?
  - Etengabeko prestakuntza programaren bat dago?
- Lanean lagundua/gainbegiratua/babestua sentitzen zara? Zure iritzia, zalantzak, kezak adierazteko edo hobekuntza-proposamenak egiteko gunerik ba al duzu?

### 2. Familiakiko esku-hartzea

- Rolak eta erantzukizunak ondo definituak dituzu?
- Programak familien premiak asebetetzen dituela uste duzu?
- Programan ematen direnez gain, familiek baliabide eta zerbitzu gehiago behar dituztela uste duzu?
- Zeregin bakoitzean denbora nahikoa ematen duzula uste duzu? Esku-hartzeak intentsitate handiagoa izan beharko lukeela uste duzu?
- Beste zerbitzu batzuekin egiten den lankidetzaren egokia dela uste duzu?
- Nola balioesten duzu familiek ezartzen den harremana?

## FAMILIA ERABILTZAILLEENTZAKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA

### 1. Zerbitzuaren erabilera

- Nola iritsi zinen lehen aldiz programara? Beste zerbitzu batek bideratu zintuen? Nork eman zizun programa horren berri?
- Zenbat denbora igaro zen parte hartzeko erabakia hartu zenuenetik zerbitzua martxan jarri zen arte? Itxaronzerrendak daude?
- Zergatik behar duzu programa horren parte-hartzea?
- Zer egiten duzu programan parte hartzean?
  - Noiztik erabiltzen duzu zerbitzu hau?
  - Zein zerbitzu eta baliabide mota jasotzen duzu?
  - Zenbat ordu astean?
  - Oraingo aldiaz gain, arestian programa horretan parte hartu duzu?

### 2. Nola balioesten duzu programa hori?

- **Profesionalen balioespena eta erabiltzaileen eta programaren arteko harremanaren balioespena**
  - Erreferentziazko pertsona bat duzu?
  - Zure eta zure seme-alaben iritziak/kegak/hobekuntza-proposamenak kontuan hartzen dira?
  - Profesionalek beren lana egiteko tresna pertsonal eta profesional egokiak (prestakuntzakoak) dituztela uste duzu?
  - Zure premien arabera esleitutako profesionalaren hautaketa egokia dela uste duzu?
  - Zure konfidentziasuna/intimitatea/pribatutasuna bermatu da?
- **Programaren balioespena (gogobetetzea)**
  - Beste zerbitzu eta baliabide batzuetarako sarrera erraztu dizute? Zer beste baliabide edo zerbitzu hartzen dituzu beharrezkotzat?
  - Programak zure premiak kontuan hartzen ditu eta malgua da?
  - Jasotzen dituzun baliabideen kantitatea nahikoa dela uste duzu? Esku-hartzeak baliabide nahikoak dituela uste duzu? Baliabide horiek zure premiak asetzen dituzte? Zer neurritaraino?
  - Proposatutako helburuak lortzen direla uste duzu? Zure egoera hobetu egin da programan parte hartu izanari esker?
  - Zure seme-alaben egoeraren berri ematen dizute?
  - Lortutako emaitzen berri ematen dizute?
  - Azken batean, zein da programarekiko gogobetetze-maila orokorra?

## **2. ERANSKINA**

### **LABURPEN TAULAK EAEko GURASO BAKARREKO FAMILIEN ARRETARAKO PROGRAMEN EZAUGARRIAK**



## A PROGRAMA

### PROGRAMAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

- Programaren izena: **A Programa**
- Elkartea: **A programaren elkartea**
- Elkartearen **helburuak**:
  - gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden talde minoritarioak babestea,
  - hainbat elkarre babestea,
  - adingabeen marjinazioa prebenitzea,
  - gaixo kronikoen ahaideei laguntzea,
  - adingabe etorkinei familia-babesa ematea, eta
  - terrorismoaren biktimen ahaideei laguntzea.
- Zerbitzu nagusia: **Hurtzaindegi eta ludoteka gisa jarduten duen adingabeen zaintzarako zentroa.**
- Zerbitzuaren **iraupena**: 2008an hasi zen, eta gaur egun indarrean dago.
- **Aurrekontua**:
  - Finantziario-iturri nagusia Eusko Jaurlaritza da.
  - 2009an, 200.000,00 euroko laguntza izan zuen.
  - Guztizko gastua 213.616,00 euro da.

### ESPARRU TEORIKOA ETA HELBURUAK

#### Helburuak

- *“Gaur egun baliabide ekonomikorik ez duten edo baliabide gutxi dituzten guraso bakarreko familien bizitza-kalitatea hobetzea, eta ez da mugatzen adingabeen arretara bakarrik, familia-unitate osoaren bizitza-kalitatearen hobekuntzan lagunduko baitu, bonako hauen bitartez:*
  - *gizarte-arazoak atzemanaz,*
  - *esperientziaren trukerako gune bat sortuz,*
  - *baliabideei buruzko informazioa eta aholkularitza emanez,*
  - *prestazio ez ekonomikoak emanez,*
  - *parte hartzen duten familien laneratzeko gaitasunaren hobekuntzan lagunduz,*
  - *gizarte-arloko arreta emanez eta jarraipena eginez, eta*

	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>esku-hartzeak koordinatuz oinarritzeko gizarte-zerbitzuekin edo prozesuan parte hartzen duten beste batzuekin?</i></li> </ul>
<b>Programa martxan jartzeko arrazoiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arduradunek <u>adierazitako arrazoiak</u> honako hauek dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Antzeko familiekin izandako <u>aldez aurreko esperientzia</u> (guraso bakarreko familiak eta baliabide ekonomiko nahikorik gabe)</li> <li>○ Arreta-baliabide horiek ezartzeko <u>premiari</u> buruzko balioespena.</li> <li>○ Esku-hartze eredu batek (haurrak zentroetan artatzea) etxez etxeko arretak baino <u>eraginkortasun ekonomiko</u> handiagoa duela pentsatzea</li> <li>○ <u>Balioespen subjektiboa</u>: ama erabiltzaileak lasaiago daudela, eta, etxez etxeko arretaren aurka, horrelako baliabideetan konfiantza handiagoa dutela.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Barnean hartzeko eta kanpoan uzteko irizpideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <u>Argi eta garbi definituta</u> daude.</li> <li>- <u>Izaera publikokoak</u> dira</li> <li>- <u>Honako hauek dira</u>: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <u>Guraso bakarreko</u> familia izatea, seme-alabak bere kargura izanik</li> <li>○ Adingabeei arreta emateko <u>baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea</u>.</li> <li>○ <u>Lan- eta familia-bizitza uztartzeko</u> premia izatea.</li> <li>○ Haurrak artatzeko <u>laguntzarik ez izatea</u>.</li> <li>○ <u>Emakumeekiko diskriminazio positiboa</u>. Ez da beharrezkoa martxan jartzea, erabiltzaile guztiak emakumeak direlako.</li> <li>○ <u>Genero-indarkeriaren biktimak</u> onartzea. 2009an etxeko indarkeriaren 13 biktima artatu zituzten.</li> <li>○ Ez dago kanpoan uzteko irizpiderik <u>amen jatorriagatik</u>. 2009an, arreta jaso zuen familien % 77 etorkinak izan ziren.</li> <li>○ Badaude 3 urtetik beherako haurrak dituzten eta zerbitzu hori erabiltzen duten amak, <u>ikastetxe publiko batean plazarik aurkitzen ez dutelako</u>.</li> <li>○ Artatutako <u>adingabeen adin-tartea</u>: 0tik 16 urtera bitarte.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Estaldura</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2009an <u>programak</u> honako hauek <u>artatu zituen</u> (Kop.) <ul style="list-style-type: none"> <li>○ 80 ama.</li> <li>○ 97 haur.</li> </ul> </li> <li>- <u>Programak</u> honako hauek <u>artatzen ditu</u> (%): <ul style="list-style-type: none"> <li>○ X-ko Udalean Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten guraso bakarreko familia guztien % 9,15.</li> <li>○ X-ko Udalaren Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen arreta jasotzen duten guraso bakarreko familien % 5,5.</li> </ul> </li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ X-ko udalerrian bizi diren eta mantenu-pobreziako egoeran dauden guraso bakarreko familien % 18.</li> <li>- <u>Familien lehen kontaktua</u> programarekin: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Kasuen % 37,5 (30 ama) ama propioen ekimenez gertatzen dira (haiek joaten dira zuzenean)</li> <li>○ Kasuen % 62,5 (50 familia) beste zerbitzu batzuetatik bideratu zituzten (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak nagusiki).</li> </ul> </li> </ul>
<b>Itxaronzerrendak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Itxaronzerrendak daude.</li> <li>- Programak <u>ez ditu behar adina langile</u> (profesionalak eta boluntarioak) <u>haurrak</u> zentrotik ikastetxeetara edo alderantziz <u>eramateko</u>, eta, beraz, zerbitzu hori behar duten familia guztiek ez dute jasotzen programaren arreta.</li> <li>- Ez dago daturik artatu ezin dituzten familien kopuruari buruz.</li> </ul>
<b>ERABILTZAILIEN ARRETA</b>	
<b>Kasuen harrera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- X-ko Udalaren oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin itundutako <u>kasuen Bideratze Protokolo</u> bat dute.</li> <li>- Zerbitzuen arteko <u>hasierako kontaktua</u> telefono bidez egiten da.</li> <li>- Programak familiari buruzko <u>txosten sozial</u> bat osatzen du, gizarte-zerbitzuetatik bideratuak ez diren kasuetan izan ezik. Txosten horretan balioesten da familiak baliabidean parte hartzeko duen premia.</li> </ul>
<b>Programa hastea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egokitasuna balioetsi ondoren, familiaren egoerari eta premiei buruzko <u>diagnostiko-fitxa</u> bat betetzen da.</li> <li>- Programak eta familiak <u>sarrera- eta asistentzia-kontratu</u> bat sinatzen dute. Bertan, zerbitzua, horren intentsitatea eta alderdi bakoitzak hartzen dituen konpromisoak deskribatzen dira.</li> </ul>
<b>Programen baliabideak eta jarduerak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programaren <u>jarduera nagusia</u> Elkartearen zentroan haurrak zaintzea da.</li> <li>- Zentroan <u>arreta emateko ordutegia</u> 07:00etatik 23:00etara, astelehenetik larunbatera, bitarte da. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ordutegi zabal horren arrazoietako bat da ama askok ostalaritzaren sektorean lan egiten dutela, eta bertan lan-ordutegiak ez direla bateragarriak hurrek sare publikoko zentroetan jasotzen duten arretarekin.</li> </ul> </li> <li>- Zerbitzuaren <u>eskari handieneko garaia</u> eskolako oporraldietan izaten da (gabonak, aste santua eta uda).</li> <li>- Egiten diren <u>zereginak</u>: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <u>Adingabeekin</u>:</li> </ul> </li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hautxoekin: <u>oinarrizko arreta eta estimulazio goiztiarreko jarduerak</u>.</li> <li>▪ Haur handiagoeekin: <u>eskolaz kanpoko laguntza eta jolas-tailerrak</u>.</li> <li>○ <u>Amekin</u>: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Autolaguntzako taldea</u> hilean behin eta haurtzaindegi-zerbitzuarekin. Bilerak bakoitzera 21 ama bertaraten dira batez beste.</li> <li>▪ <u>Prestakuntza-jarduerak</u> (alderdi soziojuridikoei, baliabideei eta laguntzei buruz, amatasun arduratsua, gizarte-trebetasunen sustapena, eta haurren zaintza eta higieena)</li> <li>▪ <u>Familia-bitartekotza</u>. 2009an, interesa zuten hiru amei eman zitzaion.</li> </ul> </li> <li>- Baliabidearen <u>intentsitatea</u>: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ 2009an, programak 97 haur zaindu zituen 21.652,50 orduz esku hartuta.</li> <li>○ Zerbitzuaren <u>batez besteko erabilera 6 hilabetekoa</u> da; hala ere, intentsitatea asko aldatzen da kasu batetik bestera.</li> <li>○ Adingabe bat zentroan <u>gehienez ere egon daitekeen denbora 8 ordu</u> da (lanaldi bat).</li> <li>○ Arreta jasotzen duten 97 adingabetatik 36 ikastetxeetatik <u>jasotzen dituzte edo bertara eramaten dituzte</u>.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Arretaren indibidualizazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Esku-hartzea familia bakoitzaren <u>premia espezifikoaren arabera</u> diseinatzen da.</li> <li>- Programa bakoitzaren informazioa <u>idazki bidez</u> jasotzen da, honako hauen bitartez: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Fitxa soziala</li> <li>○ Txosten soziala</li> <li>○ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik edo programa propiotik ateratako lanerako plan indibidualizatua.</li> <li>○ Programan sartu eta egoteko kontratua.</li> </ul> </li> <li>- Programa familia bakoitzaren <u>premiakiko malgua</u> da uneoro. Badaude familiak lanik gabeko aldietan parte hartzeari uzten diotenak, eta egoera pertsonalaren eta lan-egoeraren arabera baliabidea berriz ere erabiltzen dutenak.</li> </ul>
<b>Erreferentziako profesionala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programa koordinatzen duen <u>gizarte-langilea</u> da erreferentziako figura eta harremanetan jartzeko pertsona honako hauentzat: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ familientzat,</li> <li>○ programako profesionalentzat, eta</li> <li>○ bestelako arreta-zerbitzuentzat.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Familiek jasotzen duten Feedbacka</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hurrei <u>zuzeneko arreta ematen dieten langileak</u>: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ez da informazio-trukerik jasotzen idazki bidez.</li> </ul> </li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Adingabeak zaintzen dituzten begirale/zaintzaileek egiten dute.</li> <li>○ Egunero ematen dute informazioa premia fisikoei buruz, gogo-aldarteari buruz, jardueretan parte-hartzeari buruz, eta bestelako hurrekiko interakzioari buruz.</li> <li>○ Familiek nahiz zuzeneko arretako profesionalak eskatzen dutenean egiten da.</li> </ul> <p>- <u>Programaren koordinatzailea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Idazki bidez jasotzen du kasuaren bilakaera.</li> <li>○ Familiei ez zaie idazki bidez informaziorik ematen kasuaren bilakaerari buruz, helburuen lorpenari buruz, etab.</li> <li>○ Esku-hartzeari buruzko informazioa bai, hitzez ematen zaie familiei.</li> </ul>
<b>Erabiltzaileen eta programaren arteko harremana</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <u>Harremana</u> ohikoa da.</li> <li>- Ama gehienek zentrorra eramaten dituzte adingabeak, eta, beraz, programako profesionalekin duten harremana <u>etengabea</u> da.</li> <li>- Amek eta profesionalak harremanari buruz egiten duten <u>balioespena positiboa</u> da.</li> </ul>
